

BERNARD GASTELUÇAR

EGUIAC CATOLICAC
SALVAMENDU
ETERNALAREN EGUITECO
NECESARIO DIRENAC

Edizio kritikoa
Lino Akesolok paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1983

17A 6746

EGUIAC CATOLICAC
SALVAMENDU
ETERNALAREN EGUITECO
NECESARIO DIRENAC

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-8

REGUIA CATHOLICAE

• S A L V A M E N D V •

ETERNALAREN EGUITECO
necessario direnac.

BERNARD GASTELVÇAR

J E S U S - E N

COMPAGÑIACO AITAC

*Escaldunen Favoretan
Ezgoiñ bññan
Moldatnac.*



P A U E N ,

IOANNES DESPARATZ,

Erregueren Imprimatçaille.

baithan, 1686.

BERNARD GASTELUÇAR

EGUIAC CATOLICAC
SALVAMENDU
ETERNALAREN EGUITECO
NECESARIO DIRENAC

8

Edizio kritikoa
Lino Akesolok paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1983

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
Ribera, 6 - Bilbo-5

ISBN: 84-85479-23-8
Depósito Legal BI: 1549-83

Mekanografiatzailea: Itziar Rekalde

Maketazio eta orrazketa: Rikardo Badiola

Fotokonposaketa: Ipar, kooperatiba elkarte
Particular de Zurbaran, 2-4. Bilbo-7.

Amado Moldiztegia
Mazarredo, 35. Bilbo-9

Aurkibidea

<i>Jaldi adi plazara</i>	13
<i>Nor dugu Gasteluzar?</i>	14
<i>Gasteluzar euskalzale eta idazle</i>	15
<i>Egia katolikak</i>	15
<i>Bertso-neurriak</i>	17
<i>Gasteluzar-en euskera</i>	18
<i>Oraingo edizioa</i>	20

EGUIAC CATOLICAC

Permission	23
Aprobationea	24
Veni Creator Spiritus	25
Jesus Jaun Errege	26
Gloria	26
Prefazioa	29
Abisua	31

I. PARTEA

Giristinoaren eginbidea	33
Goizean	35
Giristinoaren eginbidea	35
Propos ona	37
Jesus Kristoren orazinoa	37
Aiñgeruaren salutazionea	37
Apostoluen sinboloa	38
Debozinoa	38
Mezaren entzuteko	38
Mezan	38
Gorphutz Saindua altxatzean	40
Kalitza altxatzean	40
Sakramendu Saindua altxatu ondoan aktak	41
Hirur verthute teologalak	41
Zeruko erregiña handiari othoitza	42
Joseph doatsuari othoitza	42

Aingeru beirailleari othoitza	42
Zazpi psalmu penitentzialak letharina handiekin.	43
Psalmu 6	43
Psalmu 32	43
Psalmu 37	44
Psalmu 50	46
Psalmu 101	47
Psalmu 141	49
Letharina handiak	50
Psalmu 69	54
Othoiz egigun	55
Gauza beraren gainean, othoitza	55
Bere bekhaturen barkhazinoaren galdegiteko, othoitza	55
Gauza beraren gainean, othoitza	55
Aita Sainduarentzat, othoitza	55
Erregerentzat, othoitza	55
Bakhearentzat, othoitza	56
Xahutasanuaren galdegiteko, othoitza	56
Defuntuentzat, othoitza	56
Obra on baten hasteko, othoitza	56
Defuntuentzat eta bizientzat, othoitza	56
Eguneko eginbidea	57
Arratseko eginbidea	57
Adora	57
Esker	58
Galdegin	58
Etsamena	58
Dolore	58
Resoluzione	58
Reflekzione	58
Abisu	59
Bekhatuen konfesioea	60
Elizan sartzean	60

II. PARTEA

Jesus Kristoren Debozioea	61
Jesus-Kristo Gizon eta Jainko Salbatzailearen Noelak	63
Inkarnazioea	63
Misterioa	63
Jesus-Kristo Haurri salutzioea	64
Figura Lege Zaharrekoak	66
Jesus Haur sortu berriari	67
Misterio bera	67
Jainkoa gizon egin da	70
Jesusen errenkurak establian	71
Establia	72
Berriz	73
Amak salutatzen du Jesus bere haurra	73
Ama extasian dago	74
Ama Birjinak maitatzen du bere haurra	75
Amak bere haurriari	76

Noelak	76
Aingeruek adoratzten dute Haurra	76
Aingeruek erraten dute	77
Arzaiñek adoratzten dute Haurra	78
Erregeek elkhartzen dute presentak	79
Herodes	79
Bekhatorearen amudioa	80
Gizon gustien amudioa	80
Debotak erakusten dio amudio Jesus Haurrari	81
Jesus Jainko Haurraren amudioa gizonarentzat	82
Jesus-Kristo gure Jaunaren Pasioneko instrumentak	82
Jesus-Kristo Jaunaren Pasioneko historia	84
Bertze hamabi orenak	85
S. Benoisten othoitza	86
Jesus Gurutzearen gainean	86
Amudioz hiltzen da Jesus	87

EBANJELIOKO HITZ HAUKIEN GAIÑEAN

Madalena	88
Gurutzearen aitzinean bekhatorea	89
Jesusen pasione sailduko orenak	90
Aktak pasione sailduaren ohoretan	91
Andre dena Mariari othoitza	93
Aingeru gustiei othoitza	93
Bazko denboran	93
Jesus-Kristo gure Salbatzaile Jaunaren besta-buruak	94
Jesusen izen sailduaren leharinak	95

III. PARTEA

KONFESIOEA ETA ALDAREKO SAKRAMENDU SAINDUA

Penitentzia saildua: konfesioea	101
Justizia dibinoa koleran	102
Dialoga bekhatorearen eta justuaren artean	102
Bekhatoreak kitatzen du bekhatua	104
Atrizioea	104
Kontrizioea	105
Kontrizioea anplekiago deklaratu	106
Bekhatoreak hartu nahi du bizitze ona	107
Bekhatorea manyateraren eta gurutzearen erdian	108
Jesu-Kristok abisu ematen dio penitentari	109
Bertze abisua	109
Preparazioea Sakramendu Sainduaren errezibitzeko	
Aldareko Eukaristia dibinoa, Gure jaunaren obra	110
Salbatzaileak gizonei ematen diote jatera bere gorphutza	110
Ihardets biozo giristiñoak	110
Sakramendu sailduaren gaiñean Saint Tomas doktoraren prosa	111
Mahain saildura ethorri baño lehen konsiderazioea	112
Mahain sailduaren aitzinean debozioea	112
Errezibitzeko denboran konsiderazioea	113
Mahain sailduan salbatzailearen errezibitu ondoan	114

Salbatzaillea doktor egiten da bihotzean	115
Errezibitzen duena bat egiten da Jesusekin.	115
Jesu-Kristoren aldare egiten da errezibitzen duena	116
Jesu-Kristoren tenplu egiten da	116
Saint Tomas doktoraren debozioea	116
Errezibitu ondoan errateko orazione debota	118
Sakramendu saildua aldarean ageri denean benedikzioea ematerako denboran	119
Sakramentu sailduaren ohoretan noiz nahi egiteko aktak	120
Aldareko sakramendu sailduaren lethariñak	125

IV. PARTE

ANDRA DENA MARIAREN DEBOZIOEA

Birjiñ eta Ama Maria	131
Andre dena Mariaren bestak	132
Birjiña Ama Maria bere Jesus Haurrarekin erretaula batean pintatua	132
Jesusen eta Mariaren izenak bihotz deboten konsolagarriak.	133
Jesus eta Maria dire arima deboten amudioa	134
Ama Birjinaren auhenak Gurutzearen aitzinean	135
Arima deboten auhenak Andre dena Maria Birjina Amari.	136
Andre dena Maria agonian xirioa eskuetan	137
Andre dena Mariaren triunfa asunpzio egunean	138
Birjina Ama sailduaren salutazioea.	139
Giristiñoari Saint Bernardek egiten dio presenta, esplikaturik Andre dena Mariaren botherea ebanjelioko hitz haukien gañean	139
Ala den ederrago Jesus, haur bezala bere amaren besoetan, ala gizon bezala aita eternalak landatu gurutzean	141
Jesu-Kristo Jaunaren odol preziatua eta Ama Birjina andrearen ezne sakratua dire bekhatorearen esperantza	141
Andre dena Mariari konsekratzen zaio debota	142
Andre dena Mariari othoitza	143
Bertzea	143
Bertzea	143
Bertzea	144
Salve Regina.	144
Ave, Maris Stella	144
Quem terra, pontus, sidera.	145
O gloriosa virginum.	146
Memento salutis auctor	146
Andre dena Mariaren lethariñak.	147

V. PARTEA

GIZONAREN LAU FIÑAK

JESUS-KRISTO GURE SALBATZAILLE JAUNAREN KONSEILLU HANDIA

Gizonaren lau fiñak.	151
Eternitatea pontu batean dago	152

Othoitza gogotik hartzekotz eritasuna eta heriotzea	153
Jesus-Kristo gure salbatzailearen baithan esparantza.	154
Jesus-Kristo salbatzaile jaunari othoitza	154
Agonian denarantzat othoitza	155
Jesus-Kristo Jujearen tronua jujamenduan.	156
Purgatorioko arimaren auhenak	157
Purgatorioetako arimaren eksortazionea bekhatoeari.	158
Purgatorioan sarthu gabe zeruetara joateko bidea.	159
Dies irae dies illa.	159
Ifernua.	160
Surik baizen ezta ifernua	161
Alferrik desiratzen tu munduko penak.	162
Arima damnatuaren abisua	163
Ifernutik begiratzeko othoitza	163
Ifernuko tromenten gaiñean	164
Dialoga tromenta beren gaiñean.	165
Parabisua	168
Dohatsuak deitzen du gizona parabisura	168
Parabisura joateko desira.	169
Arima debotaren ontasuna da Jainkoa	169
Lekhu sainduak bisitatu ondoan, Aitoren seme bat hiltzen da amudios Olibeseko mendian.	170
Parabisuaren galdegiteko othoitza.	171
Eternitatea	172
Eternitatea luzearen hedadura	173
Deklaratzen du zer den bethi eta zer den sekula	175
Eksenpluak	176
Hil nahiz sartzen da furian.	178
Maitatu nahi luke Jainkoa	181
Desparaziñoa	182
Orazionea ifernurat ez joateko	

VI. PARTEA

PATROIN SAINDUEN OHORETAN

Patroin sainduen ohoretan Jainkoari.	187
Jesus-Kristori	187
Andre dena Mariaren zerbitzari izateko othoitza	
Saint Joseph handiari	189
Aingeru beiraillea	189
Martira	190
Ipizpikua	190
Saint Bernard Abadea	191
Konfesora	192
Saint Inazio Jesusen Konpañiako patriarka zenaren bistan ekstasiatua	193
Saint Inazio beraren bertze okstasia	193
Saint Franzes Xabier, Indietako apostolua.	194
Birjina saindua	196
Alargun saindua	196

VII. PARTEA

HANITZ KONDIZIONETAKO PRESUNENTZAT

Meditazioneak	201
Errotora	201
Apheza	201
Beata	202
Karguduna	202
Aitoren semea	202
Ihiztaria	203
Soldadura	203
Miriku sabanta	203
Doktora	204
Merkataria	204
Gizon egitekotsua	204
Marinela	205
Arrantzalea	205
Aberatsa	205
Pobrea	205
Laboraria	206
Arzaina	206
Nekazalea	206
Ezkonduak	206
Aita eta ama	207
Gaztea	207
Zaharra	207
Amoina	207
Liburua akhabatzean hunen egileak irakurtzailleari ematen dioen konseillua . . .	208
Othoitza Andre dena Mariari	208
Othoitza Saint Josef handiari	208
Aingeru beiraille sainduari	208

VIII. PARTEA

DOKTRINA KRISTIANA

Fedeko Misterio prinzipalak	211
Jainkoa	211
Trinitatea	212
Semea	212
Espiritu Saindua	212
Eukaristia	213
Konfesioea	214
Jainkoaren manamendu sainduak	214
Elizako manamendu sainduak	215
Elizan zazpi sakramendu dire	215
Anplekiago esplikatzen dire sakramenduak	216
Noelak	216
Orazioea Aita Saindu Urbano VIII-k egiña	217
Orazioea	218
Jesus	218
Jainkoari Saint Augustiñen othoitza	219
Taula	221

BERNARD GASTELUZAR (1619-1701)

Jalgi adi plazara

Gaur Euskeraren Lekukoen saillean plazara datorren liburuari eta liburuaren egileari ongi etorririk zabalena egitea dagokigu. Idazle au XVIIIgn mendeko poetarik onenetakoa dugula esan zaigu; baiña, era berean, oso gutxi ezagutua dela ere bai.

Lafittek, 1929n, idatzia datorkigu gogora: «Huna lau mende eskuarazko liburua liburuari darraikola... Ondikotz; gutiak dira liburu zahar horiek ezagutzen dituztenak. Ez da mirakulu. Irakurgai horiek jauregi, komentu, hiri bakhar batzuetako liburutegietan dagotzi ehortzirik; eta nork du heien ondolik esker eskuin ibiltzeko astia? Zendako ez berriz agertaraz gure arbasoen lanak eta Eskual-Herriko lau bazterretarat heda?»

Antziñako gure literaturaren ondikozko egoera ori ikusirik, zorigaitz orren osagarri, Lafittek bere eskumenean zeukana egin zuen: Euskaldunen Lorategia argitaratu, alegia, 18000 garrenerarteko euskal-idazleen lan-pusketaz osatutako bilduma, anarteko euskal-idazleen lanezko lorategia. Bazen zerbait. Ez zen ordurako laguntza txikia izan, garai bateko gure literaturaren nolabaiteko ezagutza emateko.

Gaur lorategi bat, bildumatxo bat ez zaigu aski. Aurrerago jo nai genuke. Gaurko euskalzaleak antziñakoen idazlan guztiak, osoak, ber-argitaratzea eskatzen du. Betiko galtzeko arriskuan daudenak, batez ere, berriz argitara eman eta gaurko euskalzaleen eta ikasinaien eskuetan ezarri, ez dugu gutxiago nai.

*Eta Gasteluzar, ain zuzen, betiko galtzeko arriskuan dagoen idazlea dugu. F. Michel-enganik asi eta gure egunotaraiño, bein eta berriz jotako illeta dugu gure inguruan, idazle onek ateratako liburua nekez aurkitzen dela iñon. Liburu «bikaiña bezain bakana» dela esan zuen Michel-ek (*Le Pays Basque*, 490): «Aussi rare qu'il est excellent». Vinson-ek ezin izan zuen ale osorik bat ere aurkitu. Parisko Biblioteka Nazionalean ale bat ederra zeukatela baiña,*

berak zortzi aleren puskaz osotu bear izan zuen beretzat ale bat. «Livre fort rare» dela aitortu bear izan zuen.

Illeta bera entzun izan dugu gure egunotan, eun urte geroago. K. Mitxele-nak (Egan, 1965, 40) onela esan du: «Onen (Gasteluzarren) liburua bakan arkitzen da». Eta Laffittek: «Mingarri da urran iñon aurkitu eziñezko liburua dela pentsatzea» (Le Basque eta la litterature d'expresion basque, 31).

Gaurko argitaraldi onekin zorionean gaude. Illetak ixiltzera dator. Gasteluzar berpiztera datorrela esan dezakegu. Eta nola berpiztu ere? Ezekiel profetaren liburuko illak bezala, illen ezur eta puskak bilduz, elkarrekin josiz eta biziberrituz. Ale baten xerokopia atera, eta zituen utsak beste lauzpabost aleren puskaz bete: orixe egin bear izan dugu orain euskaldunen eskuetara datorren liburu au osotzeko.

Nor dugu Gasteluzar?

Argitaraldi berri onekin Egia Katholikak liburuak zor zaizkion ezagutza eta omena izango ditu, noski. Baiña, tamalez, ezagutza ori ez da neurri berean liburua idatzi zuenaren bizitzaraiño iritziko. Ezer gutxi dakigu, oraindaiño, Gasteluzarren berri. Eskualdunen Loretegia argitaratzean, Lafittek ez-jakin osozkoa aitortzen zuen: «Bernard Gasteluzar aita Jesuista nungotarra zitaken, noiz sortu, noiz hil, ezin erran dezakegu. Lapurtarra zela ezin uka». Jesuista eta lapurtarra. Liburuaren euskera ikusita ateratzen zuen Lafittek egillea lapurtarra zela, ez zekien besterik geiago esaten. Illunpue osoa zegoen, orain dela mende erdi, gure artean jesuista euskaldun onen inguruan. Gaur, illunpe ori urratzen asiak gara. Lafitte bera, R. Moreau eta beste batzuk izan ditugu argitzaile, Sommervogel Jesusen Lagundiko bibliografo andia barne.

Lafittek onela laburtuko digu dakigun apurtzua: «Lapurdi Ziburun sortu zen 1619ko martxoaren 12n. Jesuistetan sartu zen 1640n. Paben hil 1701ko apirilaren 15n.» Bereala, bizi luzeska orretan, Baionan bi urtez, 1956-57n, gertatutakoen laburpena onelaxe egin digu: «1656n predikari eta arima zain kausitzen dugu Baionan; hiri hortarat Jesusen Lagundiko buruzagiek igorri zuten hirur lagunekin, hor behar zutela finkatu jesuisten etxe berri bat, ikas-tegi batekin, eskualdean erroak egitekotan. Baina orduko burgeseria Baionan jansenisten aldekoa zen osoki, eta ez zuen jesuistarik nahi bere herrian.», Eta ez Baionan, ez inguruan ere. Baionan sartzea ezin lortu, eta Jesuitek andik kanpoko leku eder bat begiztatu zuten, «Begoigne» izenekoa. Baiñan, bai zera; an ere ez zen lekurik ez bakez egoterik Loiolatar andiaren semeentzat, Xabiartar ospetsuaren anaientzat. Euskaldun izanik ere ez. Indar andiegia zuten inguruan Saint-Cyrango Abadearen adiskide eta jarraitzaileek, eta Lafittek esan duenez, «jende xehea berotu zuten, Begoigneko gain hartarat trumilka igan zedin «fraile madarikatu» horien aizatzeke.», Eta, bein, or non datozen «makila eta sardez harmaturik, eta jesuista dohakabeeri jazarri, dena oihu eta harramantza. Lau lagunek (Gasteluzar eta beste irurek) behar ukan zituzten berehala lekuak hustu. Aita Gasteluzar oroitu zen kaperan zeukaten

Sakramendu sainduaz, eta nahi ukan zuen errespetuz eliza baterat ekarri. Gizon batzu, ordean, lotu zitzaizkon bultzaka eta tiraka, ostia zonbeit erortzerainokoan. Bessugue deithu apez baiones batek atera zuen herstura hortarik, hartu zion osti-ontzia eskuetarik, eta katedralerat ereman, jendea debotki kantuz jarraikitzen zitzaiola. Hori gerthatu zen 1657ko maiatzaren lauean. Jesuistek, etsiturik, utzi zuten Baiona, eta bai hiri hortan kokatzeko xedea» (Gure Herria, 1974, 9-10).

Gasteluzar euskalzale eta idazle

*Gasteluzar-ek agur esan behar izan zion Jesusen lagundia bere Euskalerrian sartzeko xedeari. Baiña Euskalerria berarekin darama eta euskaldunen-tzat lan egitea ez du utziko. Lumari eragingo dio eta euskerazko lana egingo du. Ez du munduko aldia amaitu nai, euskaldunen eskuetan bere oparitxoa utzi gabe. Euskaldun guztiak ditu, noski, gogoan; baiña itxasaldeko semea delarik, mariñelak gogoanago. Joanes Etxeberri bere erkideak bezala, euskaldunak ongitxo ezagutzen ditu, eta badaki bertsoekin «gustu hartuko dutela, guziz mariñel debotek. Hek prinzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitea.» Bertsotan erakatsiko dio euskaldunari kristautasuna. Eta, bidenabar, eliz-kantak euskaldundu nai lituzke, elizetako liturgia euskeraz kantaerazi. Elizan kantazale ikusi du bere erria, baiña latiñezko kantuen kantari. Mariñela batik bat. Mariñelok atsegin izaten omen zuten «itsasoan latinez elizako himnoen kantatzeaz». Eta Gasteluzarrek uste du «atsegin gehiago izanen dutela himno beren eskaraz errateaz». Beraz erabakia artua du: latiñezko kantuek berak euskerazko bertsotan jarri, latiñezkoen neurri berean euskera-
ra itzuli, doiñu berean kantatzeko; eta ori aski ez duela, beste kanta berri asko asmatuko ditu, doiñu jakinietan kantatzeko egokiak.*

Arrera ona izango duelakoan dago. Ortaz ez du zalantzarik. Poza eta arrotasuntxoa dario berari euskaldunek, bera il ondoan ere, gogoan izango dutela oroitzeaz: «Erranen baitute batzuek: bizi zenean oroitu zen bere herriaz, eta ez zitzaion ahantzi hiltzerakoan, bere señaileak emanik joan baita»

Egia katolikak

Gasteluzarrek bere erritar mariñelei eta euskaldun guztiei utziko dien oparia, berak izan dien maitasunaren ezaugarri eta oroigarri izango dutena auxeda: Egia katolikak liburua.

Bi aldetarik izango dute euskaldunek liburu au oroigarri. Or ematen die egilleak bere izena, nork eta nola maite izan dituen gogora dezaten. Eta or izango dute beren kristautasunaren oroigarria ere, jakin bear dituzten egiak eta bete bear dituzten legeak oroitaraziko dizkiena, kantuz ikasi, otoitztu, ausnartu eta bizi ditzaten.

Liburua, dituen gaiak adiarazten duten bezala, dena erlijiozkoa da. Norbaitek esan omen du (eta Enziklopedia andi batean, nonbait) Gasteluzar izan

delá jentillen musak eta jentillen gaiak euskal-olerkigintzan sartu dituen leen idazlea. Ori idatzi duenak, bear bada, Eskualdunen Loretegian edo, onako bertso ezagunok irakurri ditu, eta ez besterik:

*Urrun adi, Parnaseko
Musa zahar profanoa;
Eta zato zu, Zeruko
Musa berri dibinoa.*

Eta bertsook ere gaizki ulertu edo ez ditu ulertu batere. Bertso oiek ez die Parnaseko musei lagun etortzeko deirik egin; aldendu, urrun bialtzen ditu. Gasteluzarrek bere bertsoetarik kanpo utzi ditu musak eta mundukeri guztiak.

Ez; liburuak ongi erantzun dio bere azaleko titulu osoari. Kristau-gaiak, salbamenduari dagozkionak, besterik ez darabil. Kristau-bizitzaren gidari izan nai du euskaldunentzat. Bere jakinbearrak eta eginbideak argitzen eta erakasten dizkio kristauari; gogoeta-gaiak eta otoitzgaiak eskaintzen dizkio; Kristoren eta andre Mariaren bizitzak eta bitartekotasuna oroitarazi, santuen laguntzaz azken-elburura joaten lagundu, lana eta otoitza elkartzen ikas-erazi eta artara bultzatu.

Liburuak dituen zortzi parteak ortara jotzen dute. Irakurleak eskuetan du berau, eta ez du iñork xeetasun geiago eman bearrik. Eta geien-geiena bertso-tan ondua da. Prosazko zatirik ere badu, batik bat, leen partean: zazpi salmoak, barkamendu eskatzekoak alegia, eta bai erakaspen batzu eta otoitz bat edo beste. Prosaz daude beste parteetako letariñak eta beste otoitzen bat ere. Gaiñerako guztia bertso-tan. Bertso-tan kantatzen ditu Kristoren eta Andre Mariaren misterioak, Belenen asi eta Galbarioan zear, zeruratu arteraiño. Bertso-tan lagunduko dio kristaurari barkamenduko sakramentua artu eta Eukaristiara urbiltzen. Bertso-tan ustuko ditu, bai zerurakoen pozak, bai infernukoen oiñazeak, eta bai santuen zoriona. Bertso-tan azaltzen du, bertsozko galde-erantzunetan, kristau-ikasbide osoa. Santuetan ongi ageri du, Andre Mariaz eta S. Josez beste, zeintsuk dituen kutunen: bere Aita Iñazio, Xabier bere anaia, eta bere izeneko Bernardo.

Eta emen Lafittek egindako galdera datorkigu burura: ea gai oietarik, azi oietarik sor daitekentz, lora daitekentz poesiarik? Eta galdatzaile berarekin baietz erantzungo dugu, Gasteluzarrek badakiela gai oietarik poesirik sortzen eta loratzen. «Aitortuko dugu, dio Lafittek, didaktiko gisan azaltzen ari zai-kularik zer diren sakramenduak, edo meza nola entzun, ez gaituela hainbat kilikatzen, ez eta biziki inarosten. Baina ez dago hildo horietan murgildurik» (Gure Herria, 1974, 11) Liburuan ez da, ez, dena didaktiko tankerakoa. Ez urbiltzekorik ere.

Gairik erabillienetan, eskuztaztuenetan, badaki irudimenak eragiñik, lirikoaren egalak artzen eta oi ez bezalako ikuspegi berriak aurkitzen. Gutxien uste dugunean, erromantiko baten irudimen eta biotzondoaz piztutako bertso-txinpartez arritzen gaitu. Jesus Aurraren eta Andre Mariaren arteko biotz-ixurietan eman dizkigu olako distira batzu. Infernuko betikotasunak eta ango

damnatuen ezin-etsiak, desparaziñoak ere, ahapaldi inarrosgarriak iradoki dizkio. Infernua maitasunik ez den lekua dela baiña, Gasteluzarrek damnatuen biotzean ere maitasun-pindarrak sorrarazten dituela esan daiteke.

Aitzin-solas onetan ez diogu aurrea artu nai irakurlearen iritzinari. Bakoi-tzak neurtu beza, bere argiez baliaturik, olerkari onen balioa. Nola nai ere, edozeiñek naiko du gure literaturaren ikertzaileak zer iritzitako izan diren jakin, eta emen ipiñiko dizkiogu bat edo beste.

Asieran egin dugu F. Michel-en aipamena. Gazteluzarren poesia bikaintzat zeukan; bertsoa neurri onean egiña omen du eta Lapurdiko euskera ixurerraz eta apain omen dario.

Gure mendeko ikertzaileek, liburua ezagutu duteneko, Michel-en iritzia on egin dute. Lafittek XVIIgn mendeko gure poeten artean onenetakotzat dauka, Joanes Etxeberri baiño ixuri errazagokoa eta landuagoa; gaiñera, liri-koago, garbiago, ariñago, astuntasun gutxiagoko eta neurrian aberatsago aurkitzen du.

Mitxelenarentzat, Gasteluzar poeta txukun eta gozo-leuna dugu, eta gure artean neurri berrien asmatzaille agertu da, Oihenart bezala. Utzi dizkigun bertsoak erri xeea eskolatzeko egin bazituen ere, neurrien ugariz eta gaiñerako eder-jantziz, idazle ikasi eta kulturadunarenak omen ditu. Nonbait ere, bere liburutik Parnasoko musak aienatu baditu ere, olerkari au ez da Parnasotik igaro gabea, eta andik datozten aizeen bafadak sartu saizkio bere bertsoetara.

Bertso-neurriak

Bertso-neurrien aberastasuna aitortu dio Mitxelenak olerkari oni. Eta ortaz zerbait esatea baitezpadakoa dirudi.

Eta, leen-leenik, Gasteluzarrek berak aitortua gogora dezagun, baizik eta, bertso batzu mariñelek zekizkiten latiñezko kantuen neurrian onduak dituela. Eta egia da. Latiñezkoen neurrietan itzuli zituen euskerazko bertsoetara: Veni Creator, Verbum Supremum, Pange lingua, Sacris Solemniis, Lauda Sion, Ave maris stella, Dies irae, Quem terra pontus, eta santuen omenezko beste zenbait. Ez dira guztiok neurri berdiñez egiñak, alaere.

Ortik landa, latiñezkoen neurrizko bertsoez gain, beste bospasei neurri aurkituko dizkiogu, launakako bertsotan, puntukide bigarrena eta laugarrena dituela: 9/8, 9/8; 8/8, 8/8; 8/7, 8/7; 7/6, 7/6; 8/7, 9/8; 7/7, 7/7.

Bosnakako eta seinakako gutxi batzu ere baditu. Seinakako bat 7/8, 7/8, 7/7 silabaduna du, puntukide leenbizikoa irugarrenarekin, bigarrena laugarrenarekin eta azken biak elkarrekin direla:

*Ifernua da lekhu
Pena gustiez bethea,
Justiziaren laku
Eta kharrezko etxea:
Doloreen lekhu
Damnatuek deithua.*

Seinakakoa da urrengo au ere, azkenengo biek errepika egiten dutela:

*Kreatura damnatua,
Jainkoak ahantzia;
Zer da hire ifernua,
Zer dolore handia;
Erraguk, erraguk,
Zer pena sofritzen duk?*

*Edo beste errepika onekin: Hela, Hela, Hela,
Segi ez gaitzatzula.*

*Leengoa eta au, silabaz, ezberdiñak dira, ikusten denez.
Bosnakakoa da beste au, euskerazko bertsoetan gutxitan ikusi den tanke-
rakoa neurritz eta puntuz:*

*Ezta Haur hunen sua,
Itsua,
Baiña da dohatsua;
Argiak dardaratzen ditu,
Ni nahiz sutan formatu.*

*Leenbiziko irurak puntukide, baiña zazpi, iru eta zazpi silabadun; lauga-
rrena eta bosgarrena puntukide, baiña silabaz luzeago, 9 eta 8 silabadun.*

*Aize berriak ekarri zituen, bai, bere egunetarako Gazteluzarrek euskal-
olerkigintzara. Berri agertzen zen bera erromantiko tankerako olerkiekin;
berri, baita ere, arteraiño erabilli gabeko doiñu eta neurriekin. Damurik, ez
zuen jarraitzaillerik izan, ez zen aren inguruan eskolarik sortu. Berarekin
agortu zen iturria.*

*Erriarentzat erein zuen azia, Egia Katolikazko azia, eta erritar xeen es-
kuetan igatu eta orri-uldu zen aren liburua, erabillaren erabilliz, noski. Libu-
ruaren ale osorik ezin aurkituak ez ote du orixe esan nai? Eta erritarren oro-
menean iraun dute aren kanta batzuk gaur arte. Errian jaso zituen, esaterako,
Aita Donostiak Gazteluzarrek sortutako kanta batzu: Kreatura damnatua
(beste norbaitek ber-moldatua, baiña Gasteluzarrena), Kanta zagun gustiok
(Erraguzu, Maria), eta Gasteluzarrek S. Luis erregearen otoitza zelakotzat
eman ziguna: Banoa loaren hartzera.*

*Ez ote dugu or ikusten erriak jakin duela bere olerkariaren oparia esker-
tzen?*

Gasteluzar-en euskera

*Idazle onen euskera Lapurdikoa dela ukatzerik ez dago. Duen euskeratik
atera zuen Lafittek egillearen jatorria, lapurtarra izan bear zuelakoa. Eta La-*

purdiko euskal-literaturak izan zuen mende loretsukoa, ain zuzen. Lapurdin Ziburukoa da, gaiñera, ez Sarakoa. Lafittek berak esan zuenez, ba omendu Lapurdiz kanpoko kutsutxorik ere. Kutsu ori non eta zertan agerzen denik ez digu esan, eta gaurko euskalariiek emen dute ikerketa eta alderaketa berrien egiteko aukera, bakoitzak dituen argien eta jakin-miñaren arabera.

Guk ez dugu xeetasun geiegitan sartu nai, baiña ez digutu utziko zenbait puntu aipatu gabe, Batzuk, ain zuzen, orain eztabaidan edo argitu naitan dabilzanak dira. Goazen puntuz puntu.

1) *Gasteluzarrek ez daki ukhan erabiltzen, izan edo izatu beti: «Atsegin gehiago izanen dutela... eskaraz kantatzeaz»,—«Egun huntan izatu tut | zure ontasan berriak».—«Zerutik izan zuen | mezu dibinoa, | ez zuela izanen | agorren laidoa». Olaxe beti.*

2) *Bitik gorako zenbakiekin ez du iñoiz aditza singlarrera bialtzen: «Urriak 31 egun ditu. Haziillak 30 egun ditu». (Liburuak) «zazpi parte ditu». Berdiña zen Leizarraga zaarraren jokabidea. Mila zenbakiarekin ere, non-nai mugagagabekotzat erabillia izan den arren, pluralera jotzen du: «Milla pena tut sofritzen».—«Amu hunek milla herio|bethi egiten tuenak».—«Instant gutiez behar tiat/milla herio pairatu».*

3) *Aditzean, itanozko adizkietan, Leizarragaren, Etxepareren eta beste garai artako idazleen bidetik doa: aiz, aut, audala, adi, adilla, akit, ator, intzen, olaxe garbi garbi idazten ditu, H gabe. Letra au ez du sartzen adizki oiek baldintzazko aurre-izkia dutenean baizik: Bahaiz, bahintz. Bein, orraitio, arau ori autsiz, hoa jalki zaio; baina, bear bada, ez du araurik autsi, idazle batzuentzat Joan aditzak H ori noizik bein berea baitu. Oha idatzi zuen Leizarragak, eta onek urrengo silabara biali zuena, oha egiñez, Gasteluzarrek aurrera ekarri du, nonbait. Gaur askok egiten duten bezala, Gasteluzarrek ez zuen, noski, Etxepareren Jalgi adi ospetsua. Ha sartuz, iñolaz ere aldatuko, ez eta letra ori euskalki guztietako adizkietara sartuko, esandako aditz-formetan.*

4) *Inperatiboko adizkietan naasi xamar ikusten dugu bigarren persona-koetan: bein laburrago, bein luzeago. Forma labur asko jatorrak eta legezkoak dira, noski, luzexegoak ere berdin: Egik, egizu, egiozu, egigun; utzak, utzkik; adizak, adiezak; idekazu, idek ezazu, idekitzatzu; ikhus ezak, ikhusazu; pensazak, pensa ezak, eta abar. Baiña beste inperatibo askor id bat erantsi die aurrean: dezazu, detzatzu; har dezak; ikhus detzatzu; bilha deza-zu; juia dezak; urrun diezadazu, eta antzerakoak asko. D- ori subjuntiboko adizkietatik aldatu du inperatibora, onen formak alperrik ugalduz. Geroko idazleetan jarraitzaillerik izan duela esan bear.*

5) *Badu agintea edo borandatea adierazteko beste formarik ere, euskera zaurrean jatorri erabillirik; Dugun, dugula, duela, dutela, dela eta abar. Indikatiboko adizkiei-N edo La erantsirik sortuak dira: Dugun lauda, Gloria duela, zarela bedinkatua, dela bedinkatua, duzula gloria eta abar. Egia esan, nonnai dauzkagu olako adizkiak, inperatiboko pluralean: Goaz-en, dantzugu-n, dagigun (Gasteluzarrek Egigun ba du ere) gatoz-en, gabiltz-an.*

6) *Itanozko adizkietan, -n edo -la eransten zaienean, ez die azkeneko -k galerazten: Bethi dukela sofritzen. Leizarragak, -k ori kenduz, bethi duala sofritzen idatziko zuen. Leizarragak: «Dituan gauzak noren izanen dituk? Ez, ditukan gauzak. «Gehiago bekaturik eztagiala» (ez, eztagikala).*

7) *Futuroko adizkietan -nen bukatu bearrean, -ren ere egiten du: Jaren, izaren, emaren, erraren, eta ez, janen, izanen, emanen, erranen, bear zen bezala. Bertsoaren puntuak eskatzen zuelako egin du ori, noski, baiña beste askotan ez da puntuetan orren zeatza.*

8) *Bizkaiko formetara urbiltzen diren forma batzu ere erabilli ditu: ahal dagian, ahal dagiken, ahal dagidan, dagiket, daigun penitentzia...*

9) *Gusti esekin darabil, ez guzti. Esekin idazten ditu dituste, gaituste eta olako adizkiak; baita ere, Ez ukatzailea, adiskiekin bat egiñik doan askotan: Estu deusik.*

10) *Jainkoa bi eratara du: Jainko eta Jongoiko. Eta bein bertzo eta berro berean era bitxi samar ontara: Jainkoa Jongoiko deñio.*

11) *Azkenez, edizio onetan ezpaitugu liburuak asieran duen Ilhabetheen kontua edo egutegia sartzen, ona andik atera dezakegunaren laburpena. Illen izenak; urtharrilla, otsailla, martxoa, apirilla, maiatza, erearoa, uztailla, abuztua, buruilla, urria, haziilla (sic), abendoa. Beste-egun batzu: Trufania, Andre dena Maria Kandelaro, Andre Birjinaren Anonziacionea, Gurutze Sainduaren ediretea, Birjina Mariaren Konzepzionea, Birjina Mariaren zeruratzea, Birjina Maria Elhurretakoa, Birjina Mariaren sortzea, Eguberri. Santuen izenak: Jaun done Mikhele, Jaundoni Petri eta Paulo, Jaun done Jakobe, Jaundoni Estebe, Jaundoni Joanes apostolua, S. Andre apostolua, S. Simon eta S. Juda. Ageri denez, santu guztiak ez dira ez Jaun done, ez Jaundoni. Santuen izenak erderazkoen antzera daude, Piarres, Mikhele eta Leho izan ezik. Baiña apostolua ez da Piarres, Petri baizik. Hazilaren leenengoa eta bigarrenak onetara daude: Saindu gustien Besta eta Defuntu gustien Orhoitzapena. Illabete bakoitzaren buruko, zenbat egun dituen jartzen du, gero illargiak zenbat egun, eta egunak eta gabak zenbat ordu. Ona otsaillekoan diona: «Otsailak 28 egun ditu; ilhargiak, 29. Bisestez, ilhabetheak 29 egun, ilhargiak 30.; egunak 10 oren, gauak 14.»*

Oraingo edizioa

Orain irakurleari zenbait argitasun zor dizkiogu, edizio au nola prestatua den esateko. Jakiña, ez dela orain irureun urte atera zenaren kopia osozkoa. Beraz, zer kendu dugun, zer gaurkotu eta zer aldatu dugun esan bearrean gaude.

Zer kendu den, zer ber-argitaratzen ez dugun, erdi esanik gelditu da aurreko lerroetan: liburuaren gorputza egiten ez duen egutegia kanpoan utzi da. Orrez gaiñera, latin utsezko puska batzu ere bai: koruko errezoak asteko eta bururatzeke esan oi ziren latiñezko bi otoitz, asi-asieran, eta liburuaren gorputzean, Stabat Mater latiñezkoa, eta bertso-tartean dauden Ebanjelio-puska

gutxi batzuk, eta S. Bernard-en Missus est itzalditik artuak dauden itzak.

Zer gaurkotu dugun? Ortografia gaurko arau jakiñetara egokitu, iruzpaulau letretan. Orrek esan nai du, que-qui, eta gue-gui emen ke-ki, ge-gi egiñak daudela. -Mp eta -mb ere -np eta -nb biurtu dira, eta latin-kutsuzko -tia ere -zia edo -tzia egiñik gelditu da: penitentzia, paubrezia, eta ola. Beste letra zarren ortografiaren lekukotzat emen daude. Azkenez, esan dezagun, bi bokalen arteko S gure idazleak bikoiztu egiten duela: osso, aussartu, itsasso, ikhussi, ontassun, parabissu, issuri, naussi eta ola; emen S bakarra jarri dugu. Berdin egin dugu frantsesaren kutsuko F bikoitzarekin ere; F bakarra aurkituko da emen: ofensa, ofritu, sofritu.

Zer zuzendu dugun? Inprentako uts agirien batzu. Esaterako dagonea, dagoenaren orde, eta olakoren bat edo beste. Letraren bat itz berean bi eratara jarri duenean ere, berdintzen saiatu gara: promes, ez promez.

Orra esateko genuen guztia edizio oni buruz. Emen du orain euskaldun irakurleak Euskeraren lekuko berri au bere eskuetan. Ia illen artetik berbiztua bezala dator plazara. Ongi etorri zabala egin bear diogu. Laster dira irureun urte leenbiziko aldiz argitaratu zela. Bigarrena duen argitaraldi au izango al da Gazteluzarren izena gure artean ezagutuago egin dadin. Eta gaurko euskaldunok jakingo al dugu ark bere garaiko eta geroko euskaldunei eskaiñi zien eta eskaiñi zigun opari eder au eskertzen eta gaiñean dugun irugarren mendeurrenari merezi duen ospea ematen.

LINO AKESOLO

PERMISSION

De Monseigneur de Bayone.

Nous Gaspar de Priale, par la grace de Dieu et du Saint Siege Apostolique, Evesque de Bayonne.

Permettons au P. B. Gasteluçar de la Compagnie de JESUS, de faire imprimer par tel Imprimeur qu'il voudra un Livre qui a pour titre *Eguia Catholicac Salvamendu eternalaren Eguiteco necessario direnac*. Qui contient diverses pratiques de la devotion chrestienne; le tout ayant esté vü et aprouvé par deux theologiens.

Fait à Bayonne le 10. Mars. 1686.

PERMISSION

Je Jean Pierre Case-depaz Provincial de la Compagnie de JESUS en la Province de Guyenne. Permits a JEAN DESPARATZ, d'imprimer un livre intitulé *Eguia Catholicac Salvamendu Eternalaren Eguiteco necesario direnac*. Avec diverses Prieres tirées de l'Ecriture Sainte, et des Saints Peres, par le P.B. Gasteluçar de la mesme Compagnie et aprouvées par deux Theologiens. En foy de quoy j'ay signé la presente le premier d'Octobre 1786 (sic).

Jean Pierre Caseçdepaz.

Aprobationea

Irakurtu dut attentione handi bat-equin liburu bat, çoiñec baitu titulu-
tçat *Eguia Catholicac, Salvamendu Eternalaren Eguiteco Necesario direnac*,
Aita B. Gasteluçar JESUS-EN Compañiacoac composatua; çoiñetan ez
solament eztut deus idiren fedearen contra. Bañan bai Arima devot gustiak
verthutearen Bidean avantçatceco eta Jainkoaren amorio sainduan entrete-
nitceco necesario diren Moyañak. Hartaracotz jugeotu dut mereci duela,
Arguia ikhus deçan. Approbatione huni Pauen oxaillaren 27 eguiñari fede
emaitia-gatik eçarri diot hemen neure icena, 1686.

Aita Basilio Orçaiztar Capuchina Theologiaco Professora, eta Predica-
ria.

BERTRE (sic) APROBATIONEA

Nic, Jacobe d'Oyhenard JESUS-en Compañiaco Aitac ikuhsi tut eta
iracurtu *Eguia Catholicac, Salvamendu Eternalaren Eguiteco Necesario di-
renac*, B. Gasteluzar Compañia bereco Aitac Euscaraz Moldatiak; ezticit
idiren gauçaric gure fediarene contra, bañan bai Devocionora nehor erak-
harteco doctrina saindia; eta hala jugeotcen dut, Mereci diela imprima da-
din.

Agenen, Martchoaren 2.1686.

Aita Jacobe d'Oyhenard, JESUS-EN Compañiacoa.

VENI CREATOR SPIRITUS

Espiritu divinoa
On gustien ithurria,
Mundua çuc eguin duçu,
Jainko adoragarria.

Arren zato, garbitçatzu
Arimac eta gorphutçac,
Çure suez erretçatçu
Creatu tutçun bihotçac.

Qui paraclitus diceris

Gure jaun goço, eztia,
Dohain puchant cerucoa,
Aita, seme, jainco jaunak
Guri egorri jainkoa;

O su maitea, çuc tutçu
gure arimac erretcen,
çuc çure khar divinoez
Gure bihotçac goçatzen;

Tu septiformis munere.

Aitac, promes aberatsac
eracutsirik obretan,
jaquiñ da ceñ Puchant den
Çure zazpi dohaiñetan.

Çu Guiçonei egorririk,
Hequiñ hitçac tu formatu,
Eta çure Berri onac
mundu guciac entçun tu.

Accende lumen sensibus.

Egor dietçaquigutçu
çure arguiac lurrera,
Hec seguituric munduan
Segui çaitçagun cerura.

Prosa

Guida çaçu eta borthitç
lurrean guiçon itsua,
Ediren çaitçan Glorian
Bere chede dohatsua.

Hostem repellas longius

Arren favora gaitçatcu
orai gure egunean
Bicitçecotçat sainduqui
çurequin çure bakean.

Çu seguituco çaitugu;
urrun eçaçu etsaia,
infernuan honda çaçu
gustia galdu, hautsia.

Per te sciamus da Patrem

Erraçu nola den berdiñ
Semea Aitarequien;
Nola etçaren çu ere
bat baicen hec biequien.

Erakuts dietçagutçu
çure argui eternalac,
Saindu eguin arteraiño
egon gaitecen leialac.

Deo Patri sit Gloria

Trinitate divinoa,
Essentian bat çarena,
Mundua eta Cerua
Gobernatcen dituçuna;

JESUS, hillen pistçaillea,
Çaren Erregue Glorian
Spiritu sainduarequiñ
Çaren jaun mende handian.

Hala biz.

JESUS JAUN ERREGE

Bethi den eta bethi izanen den Gizon Jainkoari.

GLORIA

Zuretzat, ô Salbatzailea, gizon jainko adoragarria, verbo kreatu ezten eta inkarnatu dena, zure Aita Zerukoaren klartasuna, haren substantziaren figura eta haren Ontasunaren imajina; zuretzat begiratu tut zure benediziñoaren eta ene traillauren frutu hauk gustiak, ô Jesus! Nerori konsekratu natzaizunaz gerostik zure Konpafiñian, justu da konsekratu dietzaizudan ene Obrak.

Ithurriak bihurtzen dire bere itsasora, arraioak bere iguzkira. Gauza gustiak bere zentrorra. Zu zare gustien jaun handia. Mundura ethorri zara konseillu handiko Aingerua eta Nazioeen doktora bezala, gizon gustien argitzeco, salbatzeko, zurekien bat egiteko, eta hekien obrak noble errendatzeko. Zureganik ditugu argi eta indar gustiak, ezpaita posible nihork aipha ere dezan zure izena, eta ez egin obrarik mendreena zure laguntza eta zure grazia gabe. Injustu lizate, beraz, zureganik dudan gauza zuri ez itzultzea.

Hau oraiño. Nor da zu bezalakorik lurrean eta zeruan? Zureganik baitiare gaiñerako gustiak. Baiñan zure jainkotasuna Jainkoa da bere izatez; on eternala; on gustien itsasoa. Nori beraz zuri zerori baño hobeki eman ahal diotzoket ene obrak eta ene bihotza? Zuk eman baitarotazu izatea, eta bizia. Eta oraiño zuk agiñtzen gloria eta eternitatea.

Huna beraz ahuspez non naizen zure oiñetan, majestate adoragarria, ene den baño zureago den obraren presentatzera; har detzatzu zure inspirazioneen eta zure argien segidak bezala, zure ontasunari zor diotzadan ezagutzak. Esparantza dut obra hunen errezibitzeaz eztuzula izanen desplazarik, zuk munduan irakatsi duzun doktrina eta zure akzione dibinoak publikatzen tuenaz gerostik.

Arren, ô Jesus, anima zazu zure Espirituaz zuri konsekrazten darotzudan obra. Biztuko du su argi eta saindu bat irakurtzailleen espirituetan; argituko tu gure adimenduak, eta gure borondateak berotuko, zu segitzeagatik, Bidea baitzare; zu ezagutzeagatik, Egia baitzare; zure-kiñ bizitzeagatik, Bizitza eternala baitzare. Fiñean, zure graziaren moianez segituko tugu zure berthuteen trazak, eta kopiatuko zure akzione ederrak imajina biziak bezala gure gorhutzetan eta gure arimetan. Gauza gustietan izanen zare oraidanik gure ontasun gustia, bethi zureganat joan gaiten, zeïña izanen baitzare gure Bizitze dohatsua heldu den eternitate luzean.

PREFAZIOA

Espiritu Sainduak, errege zuhur baten eta Profeta handi baten ahotik, erakusten daroku zer diferentzia den presuna debotaren eta nagiaeren artean. Zeiñ hañitz balio duen debotak eta zeñ guti nagia. Izaia handiak kandela buxtanaren argiarekin konparatzen du nagia. Salomon zuhurak, iguzkiarekin debota. Gauza admiragarria eta Jainkoaren obra handia deitzen du Salomonek iguzkia, penatu eta gutitu gabe hedatzen baititu bere arraioak zeruetara eta elementa gustietara, ezta perilik ilhun dadin; eztu so-lament argitzen, bañan oraiño allegeratzen tu bere argiez jendeak, eta animaliak; erakusten koloreak eta edertasunak, eta munduan ageri diren gauzak egiten.

Borthitz asko dire debotak nekhatu gabe obra beren egiteko, diote Elizako Aitek: hauk daduzkatela zeruak eta elementak; haukiñgatik suak berotzen duela, iguzkiak argitzen; bekhatoreek haur diotela obligazionea bere hazkurriaz eta hartzen duten hatsaz.

Mundua kreatu ezpanu, ziotsan behin Salbatzailleak S. Teresari, orai hirregatik krea nezakeen. Nola azantzik gabe eta ixillik iguzkiak hedatzen baititu bere argiak, debotek ere ixillik eta azantzik gabe egiten tuste bere obrak, baita iguzkia baño gorago ere altxatzen; ezen denbora berean bethetzen tuste zerua, lurra eta infernua, Jainkoari ematen gloria, bozkarioa aingeruei, deabrueri izialdura, jende on gustiei benediziño partikularra.

Bañan, nagiek, dio S. Bernardek, kandela buxtanaren argia diduritela; hunek ezko gutti batez gantzutu ixtupatik du argia (konparaziño propioa baita, erakusteko zer diren presuna nagia, lurreko gauzetara eroriak, eta zer munduko ontasunak).

Kandela hunek hari baten moianez du argia, argi egiten duenean, akhabatzen da haria, flakoa du argia, ezta hedatzen hirur edo lau urrats baño urrunago, erien begietako baizen ezpaita ederra; haiñ gauza gutik daduka, non haizerik gutienak hil bailezake; fiñean, agorra da, kherik baizen ezpaitu egiten.

Gauza bera da munduko gloria; hari batek daduka; eztu indarrrik, ezta ederra, eta ez tute ikusten mundanoek baizen; haizea bezain laster iragaten da, khe guti bat baizen eztu utzten. Oraiño gehiago da bada, bera ezdeus egiten baita; agertzen hasten den bezain fite, kandela bezala galzen hasten baita, zeña argi egiten hasten denean, hasten baita bere argiaz konsumitzen. Ezta deus flakoagorik eta ez trunpagarriagorik, nola baita mundua; ezta itsuagorik eta ez dohakabeagorik, nola baita haren ondoan doana. Birtartean gehienek ez tute solament segitzen, bañan entzuten dute orakle balitz bezala, eta zerbitzatzen dute bere jainkoa balute bezala, hari plazer egiteagatik zathitzen dire, bertze esparanzarik ez tutea, trunpatuko direla baizen; lanean hausten dire egun gustiez eta hilzen; gero, fiñean, frogatzen dute tirano batekin iharduki dutela, trufatzen baita hekien lanaz, eta saririk eman gabe utzten baitutu. O ilusioneak, ô adimendu itsuak!

Profeta batek dio: Eraiten dute egun gustiez, eta sekulan ez deus bilzen, haiñitz jaten dute eta ez behin ere asetzen, bethi dute edaten eta bethi dire egarri, bilahala egozten dute zaku zilhatu batera eta zakuak galzera utzten. Berze batek dio, bere denbora amiarma sare egiten daramatela, haizeak botlatzen tuela, ulien baitzeko baizen ez tirela on hekien travailluak. Fiñean, kandela arroxinazkoarekiñ baño zerekiñ hobeki konpara daitezke? Arroxi-na bera berenez konsumitzen da, haiñitz azantz argitzen tuen presunei egin ondoan, ezpaitote kherik baizen egosten; haize gutti bat asko da haren iraungitzeko, eta eztu utzten hilzean khe urrin gaixto bat baizen.

Mundua ere argi itxura bat baizen ezta; eztiote fiñean kherik baizen bere jendeei utzten; hastean bozkario ariñ bat, ondoan tristezia pisu bat; behin atsegin guti bat, gero dolore handia; instant ariñ batez dohatsu, eternitate gustian dohakabe. Bai, ah nolako tristezia! On falso gutti batengatik gloria-ren eta Jainkoaren galzea! Nolako dolorea! Mundu ezdeusaren-gatik, infernuan erretzea! Nolako desparaziñoa! Bethi iraunen duen eternitate dohakabea gotea.

Jainkoak bertzela egiten du: lehenbizirik ematen du tristezia arina; gero bozkario bethea; behin dolore ttipia, ondoan atsegin handia; lurean pena laburra, eta zeruan gloria eternala. Othoiztu nahitut beraz debota eta nagia, liburu huntzaz baliatzeaz. Debota eginen da debotago; nagia atzartuko da; biek edirenen dute debozionea, eta hil ondoan, ontasun gustien itsasoa.

ABISUA

Jainkoa, gure errege bezala, bethi goizetik arratseraiño ungi egiten hari zaikunaz gerostik, justu da guk ere ohoratzeko, eta maitatzeko gure ezagutzak egin diozogun. Kreatu gaitu, nezesarioki haren begietan bizi behar dugu, eta irabaz detzakegu memento gustiez khoroa eternalak, baldiñ ungi egiten badugu gure egiñbidea. Bertze gauza gustiak eztire banagloriarik bai-zen; beraz, gure hartharik handiena behar da, leialtasun, ohore, eta amudio Jainkoarentzat.

Denbora hautan, hañitzek hañitz liburu eder argira eman tuste; ezta, bada, hau bertzeak baño ederragoa; bañan nola berze gauzetan bezala, debozisionean gustu diferenteak baitire, iduritu zait hañitz deboten artean, batzuek huntan gustu hartuko dutela, gustiz mariñel debotek; eta hek prinzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitera; erranen baitute batzuek, bizi zenean orhoitu zen bere herriaz, eta ez zitzaion ahantzi hiltzerakoan, bere señalleak emanik joan baita. Ezen nola plazer hartzen baitute itsasoan latiñez Elizako himnoen kantatzeaz, atsegin gehiago izanen dutela himno beren ezkaraz errateaz, aire berean ezkaraz ematen tut; eta gaiñerako bersuen airea komunzki gustiek badakite.

Zazpi parte ditu: 1) da giristiñoaren eginbidea; 2) Jesus Kristoren debozitionea; 3) Aldareko Sakramendu sainduarena; 4) Andredena Mariarena, 5) gizonaren lau fiñak; 6) Hañitz kondizionetako jendeentzat oraziñoak; 7) Salbamenduaren egiteko, eta Sakramenduen ongi errezipitzeko jakin behar den doktrina.

Batzuek hañitz oraziñoen errateko usantza dute, konsideratu gabe zer erraten duten. Ezta hori oraziñoen erratea, ez Jainkoari plazer egitea, bañan bai bere buruari atsegin egitea, eta usatu tuen oraziñoetako penetarik bere espirituaren libratzea. Hirur gauza bethi konsideratu behar liritezke: nor mintzo den, nori eta zertzaz. Gizona da mintzo dena, Jainkoari mintzo zaio, eta salbamenduaren egiteko handiaz mintzo zaio.

I.Partea

GIRISTINOAREN EGINBIDEA

GOIZEAN

Giristinoaren eginbidea

Jaikitzean, behar den mugan, nihorekin mintzatu gabe, Jainkoari ofritu behar zaio lehenbiziko pensamendua, amudioca, hitza eta obra. Ziñaturik bestitzean erran behar dire: *Pater, Ave, Credo, Salve, In manus, Angeli*. Hari zerbitzu egiteagatik jaiki behar da eta hari ofritu bihotza; bestitu ondoan ur bediñkatuaz ziñaturik, belhauriko imajina saindu baten aitziane, begiez ikhusten bazindu bezala Jainkoa, egiñen duzu propos ona.

Bortz puntu ditu: 1) *Jainkoaren adoratztea*; 2) *Eskerren ematea*; 3) *bekhatu-rik egin gabe bizitzeko resoluziñoaren hartzea*; 4) *Jainkoari ofritzea bere burua*; 5) *galdegitea ungi bizitzeko eta ungi hiltzeko grazia*.

1. Adoratzean orhoitu behar zare zeñ zaren ttipia, eta Jainkoa zeñ den handia; nola den bereganik, eta ez nihorenganik, bañan nola diren harenganik lurra, zerua, gizonak, aingeruak eta kreatura gustiak.

2. Eskerrak ematean, orhoit zaite bi grazia suerte egin darozkitzula, jeneralak eta partikularrak. Kreatu, konserbatu, Bere Odol preziatuaz erosi, santifikatu, egiazko Elizan eman, ifernutik beiratu zaitu, eta irabazi darotzu Parabisua: hauk grazia jeneralak dire, bertzei ere egin baitiotzate hunelako ondasunak. Bañan partikularrak, munduan egin darozkitzun faboreak, gorphutzean, ariman, eta hañitz bekhatutarik beiratu baitzaitu.

3. Resoluzioea egitean, orhoit zaite zure bekhatuek merezi dutela infernua: nolako tormenta! Galdu duzula parabisua, nolako afruntua! Iragan gaba azken gaba izan da hañitzentzat. Egun hau ere benturaz azken eguna izanen da zuretzat. Egizu beraz resoluzino fermu bat biziko zarela egun arratsean hil behar bazindu bezala, Jainkoari eztiozula egiñen desplazerik, bañan zerbitzatuko duzula ahalik saindukiena.

4. Ofritzean, eman behar diotzatzu arima, gorphutz, pensamendu, hitz, obra, egun, gau, bizitze, heriotze, ontasun guziak; arren, errebizi detzala oraidanik gauza hari konsekratuak bezala, eta plazer gehiago egiñen diozu, erraten badiozu, ofritzen diotzatzula JESUS Kristoren merezimenduekiñ.

5. Othoitz egitean, bi gauza galdegiñ bear diotzatzu: 1) bekhatuik egiñ gabe egun bizitzeko indarra; 2) haren amudioan hiltzeko grazia. Guziz JESUS Kristoren merezimenduez galdegiñ behar diozu, arren, eman dietzatzun grazia borthitzak.

Itzulirik elizaren partera, bihotzez adora zazu Aldareko Sakramendua. Salbatzaille maitea, kontent gabez behin gustientzat itzatu izateaz gurutzean, oraiño gau eta egun sakrifikatzen baitzare gure aldaretan! Hunenbat amudio duzunaz geroz gustientzat, othoizten zaitut, arren, ni bereziki maita nazazu.

Angelus Domini nuntiavit...

Jainkoak egiazki nahiz
mundu gustia salbatu,
aingeru Gabriel zioen
Mariari deputatu:

Hartuko zuela gorphutz bat
haren sabel sakratuan
Eta guretzat hillen zela
Gurutze odolstatuan.

Ecce ancilla Domini...

Gero Birjinak zuenean
Aingerua salutatu,
Eta Aitaren borondate
Dibinoa adoratu;

Huna, zioen ihardetsi,
Jainkoaren Neskatoa,
Kunpli bekit diozun gisa
Haren mandatu altoa.

Et Verbum Caro factum est...

Gabrielek entzun ondoan
Birjinaren baimendua,
Jainko Jaunak formatu zuen
JESUS-en gorphutz saindua.

Pontu berean haragiz zen
Jainko Semea beztitu,
Birjina zen pontu berean
JESUS-en Ama gerthatu.

Propos ona

Jainkoaren Presenzia

Jainko, zeïña bere izatez baita
Gloriosa eta guziz puxanta,
Poblu eta prinze gustien prinzea,
Ene Jainkoa Jauna, fiñ eta hastea;

Adoratzea

Aita eternal, Seme eta Berboa,
Espiritu, bien amudioa,
Belhaurikaturik humilki gorputza,
Adoratzetn zaitut, Jongoiko bakhoitza.

Eskerrak.

Zuk gaituzu kreatu, konserbatu,
Giristiño zuk egin, zuk hautatu,
Zuk bethi bethetzen ontasun handiez,
Esker darotzugu grazia gustiez.

Ofritzea

Zor natzaitu naizen bezalakoa,
Arren, beraz, har nazazu, Jainkoa,
Ene pensamendu, arima, bihotza,
Ene urrats, obra, hitz eta gorputza.

Resoluzioea

Biziko naiz egun, Jauna, sainduki,
bekhatuak utziko tut osoki,
Zure plazerean da ene plazera,
Pensamendu, solas, lan eta desira.

Othoitza

Adizazu, Jauna, ene othoitza,
lagun bekit zure esku borthitza,
Bizi nadin zure bake dibinoan,
bekhaturik gabe hil amudioan.

Birjina Mariari

Erregiña, Dohatsuen indarra,
Ene Ama, etsaiaren beldurra,
Bizian nazazu argi bi begiez,
Eta herioan sokorri graziez.

Aingeru Beirailleari

Aingerua, ene gida argia,
Egor azu urrun ene etsaia.
Konseilla nazazu; egiozu gerla,
Nik ikhus arteo Jainko eternala.

Jesus kristoren orazinoa

Gure Aita, zeïña baitzare zeruetan, sanktifika bedi zure izena; ethor be-
kigu zure erresuma; zeruan bezala lurrean ere egin bedi zure borondatea;
Iguzu egun gure eguneko ogia; barkha dietzaguzu gure faltak, guk barkha-
tzen diotzotegun bezala guri ofensatu gaituztenei; eta ez gaitzatzula utz
erortzera tentazionera, baiñan begira gaitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Aiñgeruaren salutazioea

Agur maria, graziaz bethea, Jauna zurekin da, benedikatua zare emazte
gustien gaiñetik, eta da benedikatua Jesus zure sabeleko fruitua.

Maria saindua, Jainkoaren Ama. othoitz egizu guretzat bekhatore ga-
xoentzat, orai eta gure heriotzeko orenean. Alabiz.

Apostoluen sinbola

Sinhesten dut Jainko Aita bothere guzia duenaren baithan, zeruaren eta luraren kretzaillean; eta Jesus Kristo haren Seme bakoitz gure Jaun handian, ziña konzebitu baita Spiritu Sainduaganik; sorthu Birjina Mariaganik; ziñak sofritu baitu Pontio Pilatusen azpian, gurutzefikatu baita, hil baita, eta ehortzi baita; ziña infernura jautsi baita, eta biztu hilletarik hirugarren egunean; ziña jarri baita Jainko Aita bothere guzia duenaren eskuinean; eta ziña ethorriko baita hillen eta bizien juiatzera. Sinhesten dut Spiritu Sainduan, Sainduen Komunionean, bekhatuen barkhamenduan, haragiaren resurrekzionean, eta bizitze eternalean. Halabiz.

Debozinoa mezaren entzuteko

Zeruko onez nahi baduk
Mundu huntan aberastu,
Sakrifizio dibinoa
Ungi behar duk aditu.

Aldareak dituk Jesusen
Thonba eta Gurutzea;
Meza, haren frogu sainduen
Deklaraziño tristea.

Orhoit adi mahain sakratu
Huntan dela Jesus bera;
Bere herio ederraren
Berak pintatu figura.

Beraz behar duk ohoratu
Jainko hillaren tronua,
Bethi ekharri bihotzean
Amudiozko dolua.

Orhoit, Gurutzeetan direla
Aldareak ganbiatzen,
Amudioak Jesus Jauna
Duela hemen ofritzen.

Athor, ene girstinoa,
Ahuspez adoratzera,
Athor Jainkoak deitzen auen
Lekhu sakratu huntara.

Hemen dik ematen Jesusek
Guretzat bere bihotza,
Eta dik halaber ofritzen
Odolarekiñ Gorphutza.

Ikhusak hire Jainkoaren
Heriotzeko tronua;
Bañan beirauk, sekulan ez utz,
Jainko hillaren dolua.

Mezan

Lau konsiderazione egiteko; hastetik ofrendaraiño, pensatu behar da Jainkoaren handitasuna.

Bere Aitari aldarean
Seme Jaun Jainko Gizonak
Ziotzak eman osoki
Zor zaizkon handitasunak.

Adoratzan dik, ofriturik
Gorphutz adoragarria;
Guk ere ofri diozgun
Jesus, gure Jaun handia.

Ofrendatik konsekrazioneraiño, Jainkoari eman behar zaizko eskerrak:

Semea misterio huntan
gure ziaikuk egiten;
eskerrak ziotzak Aitari
guregantikan ematen.

Aitak egiten ziarokuk
Ontasun paregabea;
Hanbat zioagu ematen
Emanik bere semea.

Konsekrazionetik komunioeraiño, galdegin behar zaio Jainkoari barkhamendua.

Sakrifizio saildu huntan
Jesus Seme Dibinoak
Ardiesten ziarozkiguk
Aitaren amudioak.

Misterioski sofriturik
Harengatik herioa,
Bihotza zio irabasten,
Billusten armez besoa.

Komunioetik fineraiño, Jainkoari galdegin behar zaio ungi bizitzeko eta ungi hiltzeko grazia.

Elizan aldareak dituk
Jainkoaren ithurriak;
Hautan dik isurtzen odola
Kanal egiñik zauriak.

Goazen beraz laster, hetarik
suillak bethez thiratzera:
gureak dituk ithurriak,
Ur hura ez utz galtzera.

Mezan egin behar diren lau birtuteak.

Fedea: Sinhetsi egin behar da Jesus Kristo egiazki dela Hostia sailduan. eta han eztuela ohore eta adorazione gutiago merezi, nola zeruan; beraz, gorphutzeko sensuak eta adimenduko argiak itsuturik, errazu:

Sinhesten dut hain egiazki
Zarela Jesus Hostian,
Nola baitzare dohatsuki
Parabisuko glorian.

Egia hunen frogatzeko
Ezarriko dut bizia,
Biziarekin isuriko
Gogotik odol guzia.

Humilitatea: Jainkoaren handitasuna eta zure ttipitasuna konsideraturik errazu:

Ni zer naiz bekhatu rik baizen?
Lurra da ene bihotza,
Ene arima fitz ariña,
Herrautsa ene gorphutza.

Bitartean Jainko handia,
eneganat heldu zare?
Nik nondik merezi othe dut,
Jauna, hunenbat ohore?

Xahutasuna: Dolu handi bat duzula zure bekhaturez, huna zer intenzione saildu behar duzun Mezaren entzuteko.

Ehortzen naiz hirur Presuna
Dibinoen ohoretan,
Gure Eliza sailduaren
Eta ene faboretan.

Jainko handia, huna non den
Nik dudan xede guztia:
Zuri eman nahi darotzut
Ahal dagidan gloria.

Amudioa: munduko amudioa eta amudio propioa utzirik, eta harturik Jainkoaren amudioa, errazu:

Ala nik izan hañitz suiet,
Jesus, zure maitatzeko!
Ala zuk hagitz ni maitatu,
Hunenbat on egiteko!

Jesus Jainkoa, eztut nahi
Amudiorik enetzat;
Erre nahi naiz amudioz
Bizi naizeño zuretzat!

Gorphutz saildua altxatzean

Ave, Verum Corpus...

Agur egiazko Gorphutza,
Birjinaganik sorthua,
Egiazki gizonengatik
Gurutzean itzatua:

Saihetsetik ilkhi zitzaitezun
Urarekien Odola,
Iguzu gure herioan
Zure guztu eternala,

Arren, urrikal gakizkitzu,
O ezitia, ô emea;
Gure Jesus, gizon Jainkoa,
Birjina Amaren semea,

Kalitza altxatzean

Ave, vere Sanguis Domini...

Agur Jesus Kristo Jaunaren
Odol adoragarria!
Gure gustien salbatzeko
Gurutzean isuria!

Arren, urrikal gakizkitzu
Iguzu zure grazia;
Laudatuko zaitugu bethi
Gure Jainko Jaun handia.

Sakramendu saildua altxatu ondoan aktak*Adora*

Ahuzpez adoratzeko zaitut,
 Jainko adoragarria,
 Pobluek eta erregeek
 Errege guziz handia.

Arren, barkha dietzadatu
 Hartu tuda ausartziak;
 Deliberatzen dut utztera
 Handiak eta ttipiak.

Esker

Egun huetan izatu tut
 Zure ontasun berriak;
 Jauna, eskerrak darozkitzut
 posible diren gustiak.

Oferi

Jaun ona, ofritzen darotzut
 Osoki ene bihotza,
 Pensamenduak, hitzak, obrak,
 Arima eta gorphutza...

Resoluzione

Aithortzen dut, ene denboran
 Egin dut hañitz bekhatu;
 O Jainkoa, hiltzeko nago,
 Zu baizaitut ofensatu.

Othoitz

Zure seme Jesusengatik,
 Aita, indazu grazia;
 Eta indazu hil-ondoan
 Zeruan zure gloria.

Hirur verthute teologalak*Fedea*

Sinhesten dut Jainko batean
 Hirur presuna direla,
 Bigarrena gizonengatik
 Gizon egin izan dela.

Esparantza

Jainko ona, zure baithan dut
 Eman ene esparantza;
 Zuk eman behar darotazu
 Gloriaren segurantza.

Karitatea

Maite zaitut osoki,
 Egiazko Jongoikoa,
 Ene bihotz, ene ontasun,
 Aita amudiozkoa.

**Zeruko erregiña handiari
othoitza**

O Birjiña Ama saindua,
Ezta oraiño aditu
zure haurretarik duela
Jainkoak abandonatu.

Esparantza handi hunekin
zuregana naiz ethortzen;
O Birjina Birjinen Ama,
Zu zaitut errekeritzen.

Hel zakizkit ikhus zaitzadan
Zeruan, Ama emea;
Hel zakizkit maite dezadan
Zeruan zure Semea.

**Joseph dohatsuari
othoitza**

Birjina Ama handiaren
Birjina espos garbia,
Haz-aitatzat hemen munduan
Jainko Jaunak berezia

Joseph, arren, lagun zakizkit
Zeruetako gorthean,
Hazi duzun haur ederraren
Palazio ederrean.

**Aingeru beirailleari
othoitza**

Jainkoaren aingeru saindu,
Ene kargua duzuna,
Bethi ene sustengatzeko
Armak eskuan zaudena;

Arren, lagun zakizkit egun
Eta lagun fineraño;
Segituko zaitut nik ere
Zeruko gloriaraiño.

Pater, Ave, Credo, Confiteor, Salve, In manus, Angele...

ZAZPI PSALMU PENITENTZIALAK

LETHARINA HANDIEKIN

Dabid eri handiak, bere faltagatik, othoitzten du Jainkoa senda dezan, eta entzuten da: Ez zaitezela orhoit, Jauna.

Psalmu 6

Jauna, ez nazazula har zure furian, eta ez nazazula gaztiga zure kolera-
ren denboran!

Urrikal nakizu, flako bainaiz, senda dietzadatu ene miñak, ezen ene
ezur guziak khiritu zaizkit, eta indarrak osoki beheratu.

Espantu handi batek sesitu darot ene arima; bizkitartean oraiño zenbat
denbora utziko nauzu ene lazerian?

Jauna, bihur zaite eneganat, eta libra diezadazu ene spiritua; salba naza-
zu zure ontasun handiaren izenean.

Ezen nor orhoituko da zutzaz sekulako dolorean, eta nork erranen tu
zure laudorioak thonban eta infernuan?

Flakaturik egotu naiz beherazpenez, isuriko tut gau guzietz nigarrak, eta
hetzaz bustiko dut ene ohea.

Ene begiek ezin sufritu zaituzte furian, nahasi izatu zaizkit, eta ezagu-
tzen dut ene etsaien artean hagitz zahartu naizela.

Urrun zakizkidate gaixo eta injustu guziak. Ezen Jainkoak entzun dik
ene nigarren oihua.

Jaunak entzun dik ene othoitza, errezibitu dik ene auhena.

Desohora eta nahaz beite ene etsai guziak, hagitz ahalka beite bere bek-
hatuez, eta fite bere buruak ezagut betzate.

Gloria duela Aitak eta Semeak eta Spiritu Sainduak. Dutela egun eta
bethi eta mendeen mendetan izatu duten gloria hastean eta eternitatean.

Psalmu 32

*Nathan profetak abertituz geroz David bere faltez, esagutzen du bekhato-
rea dela, eta aithortzen du bere barkhamendua eztuela bere indarraren fruitua,
bainan Jainkoaren graziarena.*

Beati quorum remissa sunt peccata...

Dohatsua da ziñari Jainkoak ezagutzen ezpaitiotza bere hobenak; ziñak
bihotz lano batekin zerbitatzen baitu Jainkoa, eta sekulako desterratu baiti-
tu bere spiritutik gezurra eta tronperiak. Nik zeren ezpaitut aithortu ene
bekhatua, sentitu tut ttipiturik ene indarrak, eta ene dolore minberek obli-
gatu naute oihu handien egitera.

Ezen zure eskua pisatu izan da gau eta egun ene gaiñean: halako mane-
raz non bekhatuak eta doloreak zaurthurik ene arima, zorionez itzuli bai-
naiz zuregana, ene lazeriarik handienaren denboran.

Berhala ezagut arazi darotzut ene bekhatua; xahuki erran darotzut eta eztut bilhatu estalkirik ene injustiziarentzat.

Dolorezko estatu huntan nagoela, Zuri ene falta erakutsi gabe, delibera-tu dut fiñean: frankoki kontestatuko diot Jainkoari; eta erran dudan bezain sarri, sentitu dut barkhatu darotazula ene bekhatua.

Niri eman darotazun bezalako barkhamendu bat izateagatik, ene gisa ethorriko dire zuregana justu guziak; entzun ahal detzaketzu muga pro-pioan, eta hekin kontra osoki koleran izanen etzaren denboran.

Beraz bertze jendeak pulunpatzean dolore suerte guzien dilubioan, zure itzalean gerizatu izanen dire justuak, eta eztute sufrutuko lazeriarik batere.

O Jainko, ene bozkarioa, ene inguruan dudan tribulazionean, ene ihezle-khua, begira nazazu persekutatzen eta kantoin guziatarik setiatzen nauten etsaiatarik.

Orazionean nagoenean, iduri zaut, Jauna, ihardesten darotazula: iraka-tsiko daroat hire bidea, ene begiak idukiko tiat hire gaiñean hire urratsak kontsideratzeko, eta hire altxatzeko erortzen aizenean.

O gizonak!, Ikasazue beraz Jainkoari obeditzen, egin ez zaitezten zamari sendo eta mando muthiri baten gisa.

Hauk ihez egiten ziotek zamaldunari, eta eztie nihor utzten bridaz eta amoxaz baizen gobernatzen.

Segur hañitz pena eta afliktziónek abisatzen die bekhatorea, Jaunaren-gana itzultzeaz; eta frogatzen tik haren miserkordiaren señalear, haren bai-than ematen duen bezain sarri esparanza.

Beraz, justuak alegera eta glorifika zaitezte haren baithan, ziñek baitu-zue arima garbia eta bihotz xuxena.

Gloria duela Aitak...

Psalmu 37

Dabidek eskribatzen tu adulterioan izatu zituen bere penak, bere eritasu-nak, bere etsaiek sofriarazi ziotzaten persekuzioeak, eta hetarik libratzeaz othoitz egiten dio Jainkoari.

Domine, ne in furore tuo...

O Jauna, ez nazazula har zure furian, eta ez nazazula gaztiga zure kole-raren denboran.

Jadanik zure fletxek egin darotzkidate xoil zauri handiak ene ariman, eta pisatu duzu zure eskua ene gaiñean.

Halako maneraz non zure kolerak ezpaitarot parterik sendo utzi ene gorphutzean; kexadura sarthu zait ezurretaraño eta ene arimako ahal gu-ziak nahasi zaizkit ene bekhatuen aitzíñean.

Helaz! Ene bekhatuek hondatu naute, buruaz gora ditut, eta zapatzen naute ezin altxa dezakedan karga pisu batek bezala.

Ene zauriak haiñ dire zaharrak, non hekien urriña eta busteltasuna es-trañioak baitire, laster asko erremedioa ekharri faltaz.

Haiñ lazeriatua egin naute, non kargaren azpian makhurtua bezala bai-naiz, eta langidurak eta tristeziak flakatua.

Sentitzen dut ene erraiñetan dolore borthitz bat; ni urrikari behar bi-dean, ene etsaiek trufatzen baitire nitzaz, eta benturaz baita sendoa parte xoil bat ene gorphutz gustian.

Guzia langitua eta guzia beheratua naiz, eta orai naizen estatuan, ene bihotzeko beherazpenak lehen dire orroak, ezen ez auhenak.

O Jauna, badakizu zer xede duten ene desirkundeek, eta zer penek hunela eragiten darozkidaten beherazpenak.

Nahasmenduak sesitu darot ene bihotza; uzten naute ene indarrek, eta osoki hilda ene nigar handiak isuririk.

Ene adiskide gustietarik eta ene ahaide gustietarik batzuek altxatu dire ene kontra, ene pena berretzeagatik.

Bertzek niaz osoki trufatu dire ez ni laguntzeagatik, ene etsaiek bortxa-zen nindutenean, eta bizia eraman nahi zarotaten denboran.

Dohakabe hek gaizki minzaten ziren nitzaz; pensatzen hari ziren ni trunpatu nahiz, eta niri kalte egin nahiz, eta gezurak erraten zarozkidaten ni galdu nahiz.

Bañan hekien trunperiak ez ezagutu iduri egiten nituen; hekien balsan gorra bezala nintzen, hekien induriak ez aditzeagatik, eta mutua bezala nin-zen, hekien kalumniei ez ihardezteagatik.

Oraiño irauten du denbora hark, eta erran ahal dezaket, egiñ naizela aditzeko beharrik eztuen presuna baten gisa.

Bañan zuk ihardetsiko diozute enetzat, Jauna, zure baithan eman baiti-tut ene esparanza gustiak, eta zuk entzunen duzu ene othoitzza, ene Jauna eta ene Jainkoa!

Guziz orhoit zaite humilki othoitz egiñ darotzudala, ene etsaiek ene gaiñean abantailarik ez izateaz.

Ezen den gutiena ikharatzen ikhusten nautenean, gaxto hek berehala su-perbio errendatzen dire ene kontra, eta ene lazeriaz gloriatzen dire.

Hala ere preparatua nago zure eskutik errezibitzera gogorren diren gaz-tigu gustiak; badakit merezi dudala ene bekhatuak emanen darotan pena guzia.

Nik ahal dagidana da haren konfesatzea, eta satisfatzeko moianen bil-hatzea.

Bizkitartean ene etsaiak kontent bizi dire; egiten dire borthitzagoak eta izigarriagoak; eta kausitzen dut egun gustiez berretzen direla nonbrea eta indarrean.

Ene ungi egiñen aldera, gaizki egiten darotate; bethetzen naute induriez eta solas gaxoz; eta niri ekhartzen darotaten herraren suietik handiena da, bethi segitu baitut berthutea, eta bakean bethi bizi izatu bainaiz mundu gu-ziarekiñ.

Bañan, Jauna, ez nazazula abandona, eta ez zaitezela urrun eneganik, ô ene Jainkoa!

Eta usantza duzunaz gerostik ene begiratzeko gaitz suerte gustietarik, laster egizu ene laguntzera.

Gloria duela Aitak...

Psalmu 50

Dabidek othoitz egiten dio Jainkoari barkha diotzon egiñ tuen adulterioa eta heriotzea.

Miserere mei, Deus...

O ene Jainkoa, urrikal nakizu zure miserikordia handiaren hedadura guzien araura.

Eta garbi diezadazu ene bekahatua zure ontasunaren indar extraordinarioez.

Grazia abundant baten beharra dut ene garbitzeko, eta ene bekhatuaren xahutzeko

Ezen ezagutzen dut zein handia den, bethi baitut ene begien aitzinean, eta bethi sentitzen baititut haren erantzukiak.

Zure aitzinean egin dut ene falta eta xoilki zure kontra bekhatu egin dut; bañan, Jauna, barkha diezadazu, zu zure promesetan leial kausitzeagatik, eta kontra mintzatuko diren guziak gezurtarazitzeagatik.

Egia da, hagitz ofensatu zaitut. Bañan ez natzaitzu bada urrikalduko? Ene sortze dohakabearen segida denaz gerostik ene falta. Badakizu bekhatuan konzebitu izan naizela, eta falta miserable hunen notharekin baizen ene amak ez nauela mundurat eman.

O ene Jainkoa, barkhatu behar darotazu segur, begiratu baitut behti zure legea eta maite duzun doktrinaren fermutasuna, eta hutsak eginagatik, sustengatu baitut erakutsi darotazun zuhurtziaren siñhestea.

Beraz, Jauna, Zerorek garbi nazazu hisopoaz; ez naiz solament xahutua izanen, bañan egiñen naiz elhurra baño xuriagoa.

Ene bekhatua barkhatu darotazun bezain sarri, betheko naiz bozkarioz, eta hartuko ditut indarrak, ziñak orai baititu beheratuak.

Bihurtzatu zure begiak, ez ikhusteagatik gehiago ene faltak eta ene bekhatu gustiak garbitzatu.

Egin zaite ene baithan bihotz guziz garbi baten kreatzaillea; berri zazu ene ariman barna justiziaren eta saindutasunaren spiritua.

Ez nazazula urrun zure prezentiatik eta ez diezadazula khen zure spiritu saindua.

Bihur diezadazu ene Salbatzaillearen esperanza bethi izatu dudana, eta ene bekhatuak eraman darotan boztarioa, eta borthitz nazazu zure spirituaz, ziña baita spiritu guzien prinzea.

Egiñen darotazun grazia hunen ordaiñetan, gaxtoei irakastsiko diotet zure lege saildua; ene hitzek eta exenpluek erakharriko tuste bekhatoreak zuregana, eta egiñen dute penitentzia.

O Jainkoa, ene Jainkoa, ziñagatik esparanza baitut ene salbamendua, khen diezadazu ene lagunaren odola isurtzean egin dudan bekhatua; eta boztuko da ene mihia zure justiziaren mirakulluak publikatzeaz.

Baldin, ô ene Jainkoa, zerorek idekitzen baitutzu ene ezpaiñak, ene mihiak erranen tu lekhu guzietan zure laudorioak...

Ezen, helaz! nahi izan bazintu sakrifizioak, eta uste izan banu hostiek apazegatuko zintuztela, ofrituko narozkitzun, eta betheko nituen zure alda-re gustiak; bañan badakik eztuzula holokaustarik nahi.

Zuk galdegiten duzun sakrifizio baxarra dela spiritu penitent bat tristeziak flakatua, eta eztuzula sekulan errefusatzen bihotz doloreak zahurtua eta egiazki humiliatua.

Halaber, Jauna, ene bekhatuak debekatu gabe, arren ungi trata zazu Sioneko zure populua, zerorek kontinuatatzu, eta konserbatzatu Jerusalemeko murrailak.

Akhabatzen direnean, maitatuko duzu justiziaren egiazko sakrifizioa, eta eztitutzu gaitzetsiko zure aldareen gainean emanen diren ofrendak eta holokaustak.

Psalmu 101

Dabid doloreak langitua sokorri eske dagoka Jainkoari; othoitz egiten dio erreparatzeaz Jerusalemeko Hiri urratua, eta berriz egiteaz Khaldeek erre zuten tenplua.

Domine, exaudi orationem...

O Jauna, entzun ezazu ene othoitzza, eta ethor bedi zuregana ene auhenaren oihua.

Ez dezazula eneganik itzul zure bisaia, eta presta diezadazu zure beharria ene aflikzionatearen egunean; zuregana ethortzen naizen denbora guzian faborez laster errezibi nazazu.

Egun dut beharrik handiena, ikhusten baitut khea bezala doazela ene egunak, eta ene hezurak idortu zaizkidala, suan iragan izatu balire bezala.

Ene bihotza doloreak flakaturik, sekatu zait belhar iguzkian idortuaren gisa; eta haiñ da handia ene aflikzioea, non ene biziaren sustengatzeko, ahantzarazi baitarot ene ogiaren jatara.

Ene beheraspenak eta ene auhenak halako fazoinez mehatu naute, non ene hezurak lothurik baitaudez ene larruari.

Ene tristeziak ihez eragiñ arazitzen baitarot gizonen konpainsietarik; egiñ nau eremuan baizen plazerik estuen Pelikaonaren gisa, bilharazitzen darozkit ilhunbeak, eta etxe zaharren zilhoetan estaltzen den huntza bezala.

Iragan tut ene gabak milla khexamenduekiñ, eta tristetu naiz, bere laguna galdu duen eliza-xoriaren gisa.

Egun guzietz ene etsaiek egiten zarozkidaten milla erreportxu, eta enetzat laudoriorik baizen etzutela iduri egiten zarotatenek berek banderizak egiñ tuste ene galtzeko.

Eta hala ene doloreak haiñ gustu gutirekiñ janarazitzen zarotan ene ogia, non iduritzen baititzaitan hautsa zela, eta nahasten nuen ene nigarrekin ene edaria.

Huna nola nintzen zure azpian zapatua; ezen prosperitatera altxatu ondoan, hautsi nauzu lurraren kontra, eta badidurizu ez nauzula hunen gora altxatu lasterrago behera etxatxeko baizen.

Halako suertez non ene egunak iragan baitire itzalen gisa, zeñak zenbatenez beheratzenago baita iguzkia, hunbatenez baitire handiagoak; eta egiñ izatu naiz bero handiak ihartu duten belhar bat bezala.

Beraz, xoilki ezta zu baizen, Jauna, eternitate gustian fermu dena, eta zu xoilla zare, zeñaren laudorioa hedatzen baita mende gustietara eta denboran guttitzen ezpaita.

Dudarik gabe altxatuko zare, Jauna, urrikalduko zaitzu Sion, eta segur denbora da; ezen hunen lazeriak hartara dire, non galdu behar baitu, egiten ezpadiozu miserikordia.

Oraño zure zerbitzari leialek matie tuste hunen kalteak, eztute ikhusten doluz baizen hunen desolazionea.

Baldin, Jauna ethortzen bazare hiri saindu hunen errespetatzera, nazio-ne guziak zure izen sainduaren eta zure handitasunaren beldur izanen dire, eta lurreko errege guziek ohore eta errespetu ekharriko diote zure majestateari.

Zuk eman ditutzu Sionen lehenbiziko zimenduak: ezta bada zure ohorea? Hunen erreparatzen erakuts dezazun zure gloria justua?

Ah! Huna nola Jaunak kontsideratu duen bere zerbitzari humillen othoizta, eta eztitu laidatu hekieñ auhenak.

Haiñ da handia guk hari zor diogun obligazionea, non gauza hauk eskribatu behar izan baitire ethorkizuneko mendeetan: eta Jainkoak kreatu duen populuak jakitean mirakulu hauk, eman beharko baitiotza laudorio eternalak Jaunari.

Ezen zeruetarik, non egiten baitu bere egoitza, beheratu tu begiak lurre-ra.

Entzun tu gathiboen auhenak eta libratu tu hiltzera kondenatu zirenak.

Sioneko hirian egin daitezen haren izenaren eta haren handitasunaren tronpetak, eta bethi publika detzaten haren laudoriak Jerusalemen.

Hauk kunplutuko tuste Jaunak biltzen tuenean populu guziak, eta deitzen tuenean errege guziak hari zerbitzu errendatzera.

Bañan noiz arribatuko dire gauza hauk? Iduritzen zaut hauk fite ikhusi nahiz: Populu hura heldu zaiola Jainkoari erraten dioela: Jauna, erakuts diezadazu oraiño zenbat egun dudan bizitzeko, ez othe naiz haiñ dohatsu

izanen, non ikhusiko baitut erreparaturik Jerusalem?

Oraño ez nazazula deit zuregana, eta ez dezazula hauts ene bizia bere egunen erdian; badakit zuk zerorek xoilki tutzula mende guziak baño urthe luzeagoak.

Zuk hastean fundatu duzu lurra eta zure eskuen obrak dire zeruak.

Bañan, eta zeruak eta lurra galduko dire, eta zu zerori egonen zare gambiatu gabe.

Galtzeko perillos dire hala nola bestimenta, hañitz denboraz erabillirik ethentzen direnak; altaratuko eta gambiatuko dire, kapa zahar ezin balia daiteken bat bezala. Bañan zu gauza bera zare, Jauna, eztire sekulan akhabatuko zure urtheak.

Beraz esperanza dugu, noizbait egonen direla zure zerbitzarien haurrak erreparatuko duzun Jerusalemeko hirian; ezarriko tutzula hekien ondokoak mende gustietan.

Gloria duela...

Psalmu 128

Dabidek galdegiten dio Jainkoari bere bekhatuen barkhamendua, eta konsolatzen da Salbatzaillearen esparantzán.

De profundis clamavi...

Jauna, oihuz egon natzaitzu ene lazerien hondaleze beheretik; Jauna, entzun ezazu ene oihua.

Beude idekirik zure beharriak ene othoitz humilaren entzuteko.

Helaz, Jauna, baldiñ tratatzen bagaitutzu gure falten araura, nork sefrituko tu zure justiziaren aspretasunak?

Bañan badakit zure miseriak handiaz baliatzen zarela, eta hartu dut, zure promesak direla kausa, zure baithan esparantza.

Zure hitzari begiratuko dio ene arimak, barkhatuko diozutela penitentzia egiten dutenei, eta zure ontasunean eman dut ene konfiantza guzia.

Izraelek goizetik arratseraño esparanza du Jauna baithan.

Ezen Jauna bethea da miseriak eta hark ematen tu grazia abundantak.

Beraz hark berak erosiko du Izrael, eta libratuko bere bekhatu gustietarik.

Gloria duela Aitak...

Psalmu 142

Dabidek konfesatzen du bere bekhatuaren pena bat zuela Absalom bere semearengatik zuen persekuzioea.

Domine exaudi orationem...

Jauna, entzun ezazu ene othoitza, eta favorez errezihi zazu ene demanda humilla; adi nazazu zure justiziaren eta zure promes leialen araura.

Ez zaitezela sar jujamenduan zure zerbitzariarekiñ, ezen ezta lurrean gizon bizirik justu kausi ahal daitekenik zure begien aitzeñean.

Beraz lagun zakizkit, Jauna, ene bizia eraman nahiz ondotik baitarrait etsaia, eta jadanik lurrerat egotzirik, haiñ miserable egiñ nau, non galtzeko pontuan bainago.

Obligatu nau eremuen eta leze ilhunen bilhatzera, non iduritzen baitzait aspaldi hil direnak bezala ehortzirik nagoela; horra zerk eman darozkidan hersturak, eta nahasmendu posible diren handienak ene ariman.

Bañan hautan ene konsolatzeagatik gogoan iragan tut lehen egiñ izan zintuen espantuak bere perilletarik libratzeagatik gure aita aitzinekoak, konsideratu tut zure obrak.

Altxatu tut zureganat ene eskuak, eta ene arima agertu da zure begien aitzinean zure haiñ behar handian, nola baita lur xukatu eta idortu bat uria-
ren beharreen.

Jauna, laster egizu ene laguntzera; ezen flakatzera doat ene spiritua.

Eztezazula itzul eneganik zure bisaia, nahi ezpaduzu egiñ nadiñ hobirat doazenak bezalakoa.

Egidazu grazia bihotzean senti detzadan argiaren puntan zure ontasuna-
ren fruituak, zure baithan eman dudanz gerostik ene esparanza.

Irakatz diezadazu zer bide iduki behar dudan, ezen altxatu dut zuregana ene arima.

Jauna, libra nazazu ene etsaietarik; zuregana xoilki ihez egiñ dut; irakatz diezadazu nola egiñ behar dudan zure borondatea, zu baitzare ene Jainkoa.

Zure Spiritu Sainduak berak ontasun guzien ithurritat gidatuko nau bide xuxenean. Jauna, konserbatuko darotazu bizia, ez ene merezimen-
duengatik, bañan zure gloriaren izenagatik.

Zure justiziaz atheratuko duzu tribulazionetik ene arima, eta galduko tutzu ene etsaiak, erreputazionean emategatik zure miseriordia.

Galaraziko tutzu, diot, ene arima aflijitzen duten gustiak, ni bainaiz zure zerbitzaria.

Gloria duela...

Ez zaitezela orhoit, Jauna, gure faltez, eta ez gure ahaideen faltez ere; eta ez dezazula har bengantzarik gure bekhatuez.

Letharina handiak

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, adi gaitzatzu.
 Jesus-Kristo, entzun gaitzatzu.
 Zeruko Aita, zeïña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
 Semea, munduaren Salbatzaillea, zeïña baitzare Jankoa, urrikal gakizkitzu.
 Spiritu Saindua, zeïña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
 Trinite Saindua, zeïña baitzare Jainko bakoitz bat, urrikal gakizkitzu.
 Maria Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Jainkoaren Ama Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Birjinen Birjina Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Mikael Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Gabriel Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Rafael Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Aingeru eta Arkanjelu Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Spiritu Dohatsuen ordena sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Joannes Baptista Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Patriarka Sainduak eta Profeta Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Piarres Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Paule Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Andreas Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Jakobe Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Joannes Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Thomas Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Jakobe Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Filipe Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Bartholome Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Mathieu Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Simon Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Tadee Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Matias Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Bernabe Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Lukas Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Mark Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Apostulu Sainduak eta Ebanjelista Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Jaunaren Diszipulu Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Inozent Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Estebe Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Laurens Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Binzens Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Fabien Saindua eta Sebastien Saindua, othoitz egizue guretzat.
 Joannes Saindua eta Paule Saindua, othoitz egizue guretzat.
 Jerbais Saindua eta Protais Saindua, othoitz egizue guretzat.
 Martir Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Silbestre Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Gregorio Saindua, othoitz egizu guretzat.

Ambrosio Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Agustin Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Hieronimo Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Martin Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Nikolas Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Pontife Sainduak eta konfesor Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Doktor Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Antonio Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Benoist Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Bernard Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Domingo Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Franses Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Iñazio Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Franses Xabier Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Apez Sainduak eta Lebita Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Fraide Sainduak eta eremita Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Maria Magdalena Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Agata Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Luzia Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Zezilia Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Kathaliña Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Anastasia Saindua, othoitz egizu guretzat.
 Birjiña Sainduak eta alhargun Sainduak, othoitz egizue guretzat.
 Jainkoaren Saindu eta Santak, ararteko egiñ zakizkigute.
 O Jainkoa, fabora gaitzatzu, entzun gaitzatzu, Jauna.
 Jauna, begira gaitzatzu gaitz gustietarik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Bekhatu gustietarik, delibra gaitzatzu, jauna.
 Zure koleratik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Heriotze supitu eta ustegabekotik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Deabruaren enboskadetarik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Kolera, herra eta borondate gaxto gustietarik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Fornikaziñoaren espiritutik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Ihortziriatic eta elementatik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Heriotze sekulakotik, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Inkarnazionearen misterioaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure ethortzeaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure sortzeaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Bathaio eta zure Barur Sainduaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Gurutzeaz eta zure Pasioneaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure heriotzeaz eta zure sepulturaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Resurrezione Sainduaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Aszensione admirableaz, delibra gaitzatzu, Jauna.
 Zure Spiritu Saindu konsolatzaillearen ethortzeaz, delibra gaitzatzu,
 Jauna.

Jujamenduaren egunean, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Bekhatoreak gu izanagatik, entzun gaitzatu, Jauna, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu guri barkhatzeaz, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu guri miserikordia egiteaz, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu gure gidatzeaz egiazko penitentziara, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu gobernatzeaz eta konserbatzeaz gure Eliza Saindua, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu zure Religione Sainduan konserbatzeaz zure Potife handiena eta elizan diren Hierarkiko Ordena gustiak, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu humiliatzeaz Elizako etsai gustiak, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu emateaz bakea eta konkordia egiazko bat Errege eta Printze giristiñoen artean, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu emateaz bakea eta unioea populu giristiño gustiei, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu gure borthitzeaz eta gure konserbatzeaz zure zerbitzu sainduan, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu gure ungi-egilleei ontasun eternalen emateaz, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu begiratzeaz gure, eta gure anaien, gure hurkoen, eta gure ungiegileen arimak sekulako damnazionetik, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu guri emateaz eta guri konserbatzeaz lurreko fruituak, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu emateaz hil diren fidel gustiei errepausu eternala, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Othoizten zaitugu aditzeaz gure othoitzak, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 O Jainkoaren Semea, entzun gaitzatu, plazer baduzu.
 Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, barkha diezadazu, Jauna.
 Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, entzun gaitzatu, Jauna.
 Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, urrikal gakizkitzu.
 Jesus-Kristo, adi gaitzatu.
 Jesus-Kristo, entzun gaitzatu.
 Jauna, urrikal gakizkitzu.
 Jesus-Kristo, urrikal gatizkitzu.
 Jauna, urrikal gakizkitzu.
Pater Noster, osoki.

Psalmu 69

O Jauna, zato ene laguntzera, Jauna, laster egizu ene sokorritzera.

Bethe beite ahalkeriaz niri bizia eraman nahiz dabiltzanak.

Eta niri gaitz desiratzen darotaten gustiak ahalkaturik desohora beite bere xede gustietan.

Ene desgraziez alegera direnak bihur beite desohorearekin.

Eta atzitik zure bilha dabiltzanak ediren bezate zure baithan bere bozkarioaren materia; eta zu, bere salbamenduaren Egillea bezala, maite zaitustenek, erran bezate bethi glorifika dadilla bethi Jauna.

Nik behintzat aithortzen dut, paubre eta miserable naizela; O jainkoa, lagun zakizkit.

Zu zare ene laguntzaillea eta ene libratzaillea; ez dezazula gehiago luza ene sokorritzera.

V. Ene Jainkoa, salbatzatu zure zerbitzariak.

R. Zure baitan esparanza dutenak.

V. Egiñ zaitte guretzat dorre borthitz, eta ungi goarnitu bat bezala.

R. Gure kontra altxatzen direnen kontra.

V. Etsaiek eztuen abantailarik batere gure gainean.

R. Eta etsaiaren semeak eztuen indarrrik guri deus bidegabe egiteko.

V. Jauna, ez gaitzatzula trata gure bekhatuen arabera.

R. Eta eztietazagutzula errenda gure bekhatuek merezi tustenak.

V. Othoitz egigun N. gure Aita Sainduarentzat.

R. Jaunak konserba dezala, eman diozola bizitze luze bat; lurrean egiñ dezala dohatsu, eta ez dezala abandona haren etsaiaren furiara.

V. Othoitz egigun gure ungi egilleentzat.

R. Jauna, zure izenaren ohoretan plazer bazinote eman sari bizitze eterna gure ungi egilleei. Halabiz.

V. Othoitz egigun defuntu fidelentzat.

R. Jauna, emozute errepausu eternal bat, eta argi egiozute sekulako argiaz.

V. Errepausa beite bakean.

R. Halabiz.

V. Othoiz egigun kanpoan diren gure anaientzat.

R. Ene Jainkoa, salbatzatu zure baithan esparanza duten zure zerbitzariak.

V. Jauna, egor diozute zure santuariotik fabore borthitz bat.

R. Eta Sionetik laguntza bat.

V. Jauna, entzun dezazu ene othoitz eta ene oihua hel bedi zure baitaraño.

Othoiz egigun

O Jainkoa, zeñaren naturaleza baita miserikordiaren egitea eta barkhatzea, errezi zazu gure othoizta, eta hauts betza zure ontasun handiak bekhatu gateak, zeñek lothurik baitaduzka gure eta zure zerbitzarien ari-mak.

Gauza beraren gainean, othoizta

Jauna, entzun detzatzu zuregana heldu diren presunen othoiz humillak, eta zuri konfesatzen zaizkitzun gustiei, barkha diotzozute bekhatuak; errezi bederen dezagun gure hutsen barkhamendua, eta egiazko bake baten ontasuna.

Bere bekhatuaren barkhazinoaren galdegiteko, othoizta

Jauna, emeki usatu duzun bezala egiguzu fabore, senti detzagun zure miserikordiaren obrak; libra gaitzatzu gure bekhatu gustietarik, eta hek egitean merezi izan ditugun penetarik.

Gauza beraren gainean, othoizta

O Jainkoa, bekhatuez ofensatzen eta penitentziaz aphazegatzen zarena; begitarte onez errezi bitzatzu zure aintzinean zure populu ahuspez dagoenaren othoiztak, eta bihurtzatzu zure koleraren azoteak, gure faltek gure gainera thiratu dituztenak.

Aita Sainduarentzat, othoizta

Jainko guziz puxanta eta eternala, urrikal bekizu N. zure zerbitzari gure Aita Saindua eta zure ontasunaz gida zazu salbamendu eternalaren bidean; zure faborez desira dezan zuk plazer duzuna, eta konpli dezan bere indar guziez.

Erregerentzat, othoizta

Jainko guziz puxanta, othoiztzen zaitugu N. zure zerbitzari gure erregek, zeñak zure miserikordiaz hartu baitu erresuma hunen gobernua, halaber errezi dezan berthute guzien abundantzia, errege giristiño bati dagozkan maneran poseditzen tuela, garait detzan bizioen mustroak, egiñ dadin bere etsaien biktorios, eta egun batez ethor dadiñ zureganat, zeña baitzare Bide, Egia eta Bizitzea.

Bakhearentzat, othoitza

O Jainkoa, desira sailduen eta konseillu onen prinsipioa, zeinagatik baitire obra justu gustiak: eman diozozute zure zerbitzariei munduak ezin eman diozoten bake hura, gure bihotzak eztaite izan zure manuetarat bai-zen emanak, eta diren, etsaik gabe, gure denborak zure faborez bakezkoak.

Xahutasunaren galdegiteko, othoitza

Jauna, erretzatu gure bihotzak, eta gure erraiñak Spiritu Sailduaren su sakratuaz, zerbitza zaitzagun gure gorphutzen kastitateaz, eta plazer egiñ diezazugun gure arimen xahutasunaz.

Defuntuentzat, othoitza

O Jainkoa, fidel gustien kreatora, emozute zure zerbitzarien arimek bere bekhatu gustien barkhamendua, ardiets dezatengatik gure orazione humillen moianez bethi desiratu duten grazia.

Obra on baten hasteko, othoitza

Jauna, othoitz egiten darotzugu, aitzinatzatu zure inspirazionez gure akzione gustiak, eta zure graziaren berthutez gidatzatu, zureganik bere prinsipiotik bezala ilkhi daiten gure othoitz eta gure obra gustiak, eta bihur daiten zureganat bere xede bakhoitzera bezala.

Defuntuentzat eta bizientzat, othoitza

Jainko guziz puxanta, eta eternala, zeina baitzare bizien eta hillen Jaun Soberanoa, eta zeinak aitzinetik ezagaturik hekien fedea, eta hekien obra onak, zuretarik izanen diren gustiei egiten baitio zure miserikordia; humilki othoitz egiten darotzugu zientzat ere deliberatu baitugu orazioneen erratera edo oraino biziak badire hemen munduan hil behar den haragian; edo gorphuzetarik ilkhiak badire, jadanik errezibituak bertze munduan, ararteko emanik saildu gustiak, ardiets dezaten zure ontasunaganik bere bekhatuen barkhamendua, Jesus-Kristo Jaunaren berthutez, zeina bizi eta Jaun baita zurekin Spiritu Sailduaren batasunean. Halabiz.

V. Jaun guziz puxantak eta guziz onak entzun gaitzala.

R. Halabiz.

V. Eta fidelen arimek Jainkoaren miserikordiaz errepausua dutela ba-kean.

R. Halabiz.

EGUNEKO EGINBIDEA

Elizatik ilkhi ondoan, obrarik prinzipalena hasi baño lehen, begiak zerueta altxaturik eta zeñaturik, errozu Jainkoari, hari plazer egiñ nahiz, obraren egitera zoazela, maite duzula bihotz gustiaz, harengatik bizi eta trailla duzula nahi duzula.

Lana akhabatzean, errazu Elizarekiñ: Gloria duela Aitak eta Semeak eta Spiritu Sainduak; hala dutela egun eta bethi mendeen mendeetan, has-tean eta eternitatean izatu duten bezala. Halabiz.

Tentazioneen denboran orhoit zaite, Jainkoa zure juje bezala begien aitzinean duzula, begira dagotzula, haren plazerak hagitz direla handi-goak, ezen ez bekhatuaren atsegiñak; zeruko gloriak hagitz merezi duela mespresa detzatzun bekhatuaren on labur ezdeusak; parabisua galarazitzen darotzula eta irabaz arazitzen ifernua.

Badin faltarik egiten baduzu, zure bekhatuak ezaguturik, barkhamendu eskatuko zaizko Jainkoari, damu egiazkoa duzula hari egiñ diozun des-plazeraz, zeren guziz ona den eta egiazko amudioa ekhartzen diozun; delibera-tuko duzu sekulan ez duzula bertzerik egiñen, eta konfesatuko tutzula laster egiñ tutzun gustiak.

Mahaiñean sartzean, errazu *Benedicite*, benedika detzala zure janha-riak, haren zerbitzuan bizi nahiz, haukiñ hartzera zoazela; jaikitzean, Jainkoari emanen diotzatzu eskerrak hartu tutzun janhariez eta galdegiñen dio-zu hetzaz ungi baliatzeko grazia... *Agimus tibi gratias*. Zerukotz enplegatu behar da denbora, eta posible diren ontasun gustiak egiñ, ezen zerere erai-ten baitu gizonak bizian, hura bera bilduko du herioan, dio Apostoluak.

ARRATSEKO EGINBIDEA

Oratoriora erretiratu ondoan, pensa zazu aitzinean duzula Jainkoa; be-gira dagotzula ea noiz errendatuko diozun zure kontua; ur benedikatua-z ziñatuko zare, eta imajina saindu edo Gurutze baten aitzinean belhauriko egiñen duzu etsamena.

Adora

Adoratzen zaitut humilki
Zerueta Jainkoa,
Aita, Seme, Spiritu Saindu,
Ene Jaun egiazkoa.

Zu ere adoratzen zaitut,
Salbatzailea, hostian,
Gizonen eta aingeruen
Jaun Erregea glorian.

Esker

Zordun natzaitzu hañitz onez
Egundaiñotik egiñez,
Bañan beregainki natzaitzu
Egun berriitu dohaiñez.

Jauna, ematen darozkitzut
Ene eskerrak munduan,
Baita emanen ere bethi
Sainduen balsan zeruan.

Galdegiñ

Ene Jauna, ene Jainkoa,
Ene Iguzki handia,
Zure argi saindutik dute
Gure arimek argia.

Galdez nagotzu, Jauna, argi
Bekhatuen bilhatzeko;
Arren, beraz argi nazazu
Bihotzaren xahutzeko.

Etsamena

Ikhus ezak, ene arima,
Zer bekhatu egiñ duken,
Eta halaber zer ontasun
Egiñ behar utzi duken.

Hartarakotz konsideratzak
Ikhusi tuzken presunak,
Pensamenduak, hitzak, obrak,
Leku izan aizenak.

Dolore

O Jainkoa, nigarrez nago
Zu ofensatu baitzaitut,
Ene dolore handia da
Damu egiñ baitarotzut.

Barkhamendu eske nagotzu
Ene bekhatuengatik;
Dezplazer dut, eta dezplazer
Zure dezplazeragatik.

Resoluzione

Deliberatzen dut fermuki
Ez bertzerik egiteko;
Eta egin tudan gustiak
Osoki konfesatzeko.

Jkhus dezazu Gurutzean
Enetzat zure Semea,
Eta barkha diezadazu,
Zeruke Aita emea.

Reflekziona

Zenbat ediren izan dire
Goizean hillik ohean!
Bekhatuetan joan badire,
Erretzen daude ifernuan.

Beraz zein peril handietan
jartzen da gauaz presuna,
Bekhatuez dolurik gabe
Lo egitera doana.

Abisu

Eziñ egin badezakezu
Zure konfesioea,

Asaia zaite egitera
Zure kontrizioea.

O Jainkoa, nigarrez nago...

Bekhatuen konfesioea

Confiteor Deo Omnipotenti...

Konfesatzen natzaio Jainko bothere guzia duenari, Maria dohatsu bethi Birjinari, Mikael Arkanjelu Sainduari, Joannes Baptista Sainduari, Apostoluei, Piarres Sainduari eta Paule Sainduari, Saindu guztiei, hagitz bekhatu egiñ dudala pensamenduez, hitzez eta obraz: erraten dut ene falta, eta ene falta hagitz handia. Hartarakotz errekeritzen dut Maria dohatsu bethi Birjina, Mikael Arkanjelu Saindua, Joannes Baptista Saindua, Apostoluak, Piarres Saindua eta Paule Saindua, Saindu guztiak, eta zu, ene aita, othoitz egi-teaz enetzat gure Jaun eta Jainkoari.

Misereatur nostri...

Jainko bothere guzia duenak digula bere miseriakordia, eta guri barhatu-rik gure bekhatuak, guida gaitzala bititze eternalera. Halabiz.

Indulgentiam, absolutionem...

Jainko bothere guzia duenak, eta guziz onak digula bere grazia eta gure bekhatu gustien barkhamendua. Halabiz.

In manus tuas, Domine...

Zuk ditutzu, Jauna, munduan
Gure arimak kreatu,
Eta hautan zure figura
Mirakuilluzki pintatu.

Enea zure eskuetan
Osoki dut gomendatzen.
Ah! Nik despitatu figura
Berriz bazindu pintatzen!

Pater noster, Ave Maria, Credo. Salve Regina, Angele Dei,...

Oraziñoak eta ezamena egiñ ondoan, othoitztu behar duzu Andre dena Maria, Josef Saindua, Aingeru Beiraillea, Patroin Saindua, etc... Gero eliza-rik hurbilenera itzulirik, adoratuko duzu Aldareko Sakramendu Saindua. Lehen egiñ zen haragi gure arimen hazteko; pausatzen dago kustodian, glorian gu pausarazi nahiz. Ah! Nori ez zaio bihotza bolatuko harengana, hari eman beharrez onore, esker, eta amudio! Errazu: «ô Jesus, indazu zure be-

nediziñoa», eta ziñaturik ohean sartzean: «zure izenean dela, Jainkoa, indazu ungi hilzeko grazia»; edo errazu S. Luis Errege Franziaikoaren othoitza:

Banoa loaren hartzera,
Jesus, zure izenean;
Gau eta egun beira nazazu
Ene etsaien artean.

Jauna, zuk odol dibinoaz
Erosi nauzu munduan;
Arren, errezihi nazazu
Hil eta ondoan zeruan.

Loak hartzean

Loak niri darostanean
Zarratzen ene begiak,
Zureak ene beiratzeko
Iduk tzatzu idekiak.

Pausatzen zarenaz gerostik,
Jesus, ene bihotzean.
Egidazu othoi grazia
Ni pausa nadiñ zurean.

Loa herioaren imajina denaz gerostik, orhoitu behar gare uste dugun baño lehenago hillen garela. Oren haren ondoan ezta izanen berze orenik guretzat; eztakigu noiz izanen den oren hura. Bitartean oren hura segurki izanen da; dagigun beraz orai zer ere nahi bagiñduke egiñ izan bagindu orduan. Ah! Itsutasunaren handia! Gure eternitateko egitekoan ez pensatzea! Eternitatea! Nork daki hi zer aizen, zeñ aizen luzea!

Elizan sartzean

Sarthuko naiz zure elizan
Humilki adoratzeko

Eta zure izen saindua
Sainduekin laudatzeko.

II. Partea

JESUS KRISTOREN DEBOZIOINEA

**JESUS-KRISTO GIZON ETA JAINKO
SALBATZAILLEAREN
NOELAK**

Inkarnazionea

Urrun adi, Parnaseko
Musa zahar profanoa,
Eta zato, zeruko
Musa berri dibinoa.

Errazu, zeruko musa,
Nola erdi den Birjina,
Nola duen Jainko Haurrak
Izatu lehen eguna.

Jesus-Kristo gure Jauna
Ekhar bezate bihotzek,
Ithurriek ur saindua,
Fruitu bizia haritzek.

Errazu nola egin den
Gizon zeruko Jainkoa,
Eta nola Jainko egiñ
Gizon gu bezalakoa.

Adio, Febus, hire etxe,
Hire itsaso gustia,
Ez zarete asko hilzeko
Ene egarri handia.

Nola Dabiden kastatik
Gizon egiñ den munduan
Egundaiñotik Jongoiko
Izatu zena zeruan.

Misterioa

Orai da lurra xanjatzen
Zeruko parabisuan:
Zeruak egiñ presenta
Orai agertzen munduan.

Establian da estali
Zeruko tresor gustia:
Jende gaxoak dakusa
Bere Egille handia.

Hurbildu zaik, ò gizona,
 Jangoikoa salbatzeko,
 Ofensatu duken Jauna,
 Hire hutsen barkhatzeko.

Iainko lehen izatua
 Orai ere duk Jainkoa,
 Orai den bezala bethi
 Iainko bethierekoa

Hau duk Aita Handiaren
 Seme bethi izan dena,
 Hau ihortzirien nausi
 Eta bigarren presuna.

Zuek bezala haragi
 Lehen ez zena izatu,
 Haragiaz bestiturik
 Zuen balsan duk kausitu.

Gizon gisa, gizona duk
 Gizonaren fazoiñean,
 Eta dik heian bizia
 Irabazten jornalean.

Ez ziaiok Jainko huni
 Pisu humanitatea,
 Ez ziaiok Gizon huni
 Pisu dibinitatea.

Estalia duk kanpotik
 Gizonaren haragiaz:
 Hire odol, hire forma,
 Hire egite gustiaz.

Eta nola iguzki bat
 Aurkhitzen baita zeruan,
 Orobat Salbatzaillerik
 Eztuk bat baizen munduan.

Nola baita bi natura,
 Baitik halaber bi izen;
 Bañan eztituk izen hek
 Izen dibino bat baizen.

Lurrean kreatu dena
 Lurrez gizon lurrekoa,
 Hura bera duk zeruan
 Zeruetako Jainkoa.

Ohoratzen dik gloriak
 Bere lagun lur paubrea,
 Eta parte eternalak
 Kreatu duen parte.

Jainko Jauna haragiaz
 Zia gok gerizaturik,
 Majestatea zia gok
 Han berean estalirik.

Jesus-Kristo Haurri salutazionea

Haurtxoa, zure sortzeaz
 Mundu gustia da bozten;
 Zure sehaskari diot
 Agur humilla egiten.

Oren onez zor zaitêla
 Gure mundu ederrean;
 Esklabo gaude gustiok,
 Haurra, zure beharrean.

Zuk mendekatuko tutzu
Gizon gustien etsaiak,
Gustiei zuk idekiko
Gloriako ithurriak.

Jainkoak eta gizonak
Kargu diferentak tuste;
Bere eskuan hartatik
Elkharri ematen darozte.

Zuk behar duzu konplitu
Gustien pagamendua,
Zuk obratu behar duzu
Gustien salbamendua.

Lurrerat zare fiñean
Promes bezala ethorzen,
Eta duzu egun huntan
Lege zaharra berritzen.

Jainko zare, kalma zazu
Jainko Aitaren furia;
Gizon zare, paira zazu
Merezi dugun zauria.

Hagitz da argiagoa
Zure legeko itzala,
Ezen ez bertze legeko
Iguzki argi zabala.

Galdegiten du Jainkoak
Jainko baten balioa;
Galdegiten Gurutzeak
Gizonaren herioa.

Egun hau aspaldi zuten
Gure Aitek desiratu;
Fedeak urrundik zuen
Denbora hau kontenplatu.

Gizonak tu pazientki
Bere penak sofrituko,
Eta Jainkoak gizona
Penetan faboratuko.

Zuk egotzi behar tutzu
Ifernuko portaleak;
Zuk su handian hondatu
Leze beltzeko sugeak.

Herio kruelak behin
Hillen du gizon mortala;
Gero hillen du Jainkoak
Herio itsu kruela.

Boztu da zu ikhusirik
Bethleemengo Hiria
Jesen zigorra zare zu,
Zu lehoiña, zu zuzia.

Jaun handiak du orduan
Kobratuko ontasuna,
Odolezko herioan
Galdu aberastasuna.

Jakoben izarra zare,
Birjina baten Semea,
Dabiden odol nobletik
Ethorri den Erregea.

Errege zaitu humilki
Siongo alabak deitzen;
Eta zare aspaldiko
Lekhukoekiñ agertzen.

Figura
Lege Zaharrekoak

Mendirat Izaak Haurrak
Egur-zama altxatzean,
Markatu zuen ziñela
Itzatuko Gurutzean.

Haur ona, Amak ez zaitu
Munduan eman argira,
Bertze hurrek bere haurrak
Ematen tusten gisara.

Egiptun ziren etxeak
Odolez seinalatuak,
Zure odolaren ziren
Figura odolstatuak.

Eztu esposik Mariak
Egundaino ezagutu,
Spiritu Sainduak baizen
Ez zaitu nihork formatu.

Hañitz ofrenda zaizkitzu
Palestinan konsekratu,
Mundu herri zabalean
Hañitz hostia ofritu.

Aita duzu, Ama gabe,
Zeruetako glorian;
Ama duzu, aita gabe,
Lurreko erromerian.

Bañan bethi zu zintusten
Hostia hek figuratzen,
Nola iguzki argia
Itzalak baitu markatzen.

Birjina on baten ganik,
Haur hobeare zate sortzen;
Ene hobenak ditutzu,
Jainko garbia, garbitzen.

Sartzen zare aldarerat,
Zu zara Aphez Nausia,
Zu jende goxo gustien
Othoitz entzule handia.

Bake dugu, bake huntzaz
Zu ere zare gozatzen;
Bañan zure bakean da
Gure bakea kausitzen.

Ezarri zuen Moïsek
Masta gaiñean sugea;
Heriotik libratzeko
Asko zen hura ikhustea.

Gure gerlak ixil daude,
Bertzeak dire altxatzen;
Zeru-lurrek bake dute,
Ifernua da khexatzen.

Izatu zen hura ere,
Jauna, zure seiñallea,
Zu ethorriko ziñela
Biziaren emaillea.

Espantuaren handia!
Zerua duzu kitatu,
Hartu lurra eta zate
Establian ostatatu.

Zure itzala bezala
Iragan zen aitzinean,
Noizbait emanen ziñela
Gure bizia Habeen.

Zeruak bada darotzu
Fortuna han preparatu!
Aingeruen gloria du
Bestien heian trukatu!

Bertzela tratatzen gaitu
Munduan eskastasunak,
Agintzen baitarozkigu
Zeruko handitasunak.

Aitari manera huntan
Diozu plazer egiten;
Eta bidea gizona
Gloriarat erakusten;

Kitatu behar direla
Handien palazioak,
Nahi baitugu merezi
Palazio dibinoak.

Jesus Haur sortu berriari

Othoitzza

Ah Jesus, ene anaia!
Anaia hoben gabea,
Ikhus-azu zure anaia,
Anaia bekhatorea.

Eztuzu ahalke behar
Ene haragi paubreak!
Eztuzu behar damurik
Nitzaz dolu izateaz.

Nahi dut bihotz gustiaz
Izan zurea osoki;
Ni urrikari izateaz
Eztakizula urriki;

Esku altxatzen tudanak,
Mintzatzen zaitzun mihia,
Makhurtzen tudan belhaunak,
Fiñean gorphutz gustia;

Ohora nazazu, othoi,
Aitaren begitarteaz,
Zure odola fabora
Anaiaren entzuteaz.

Eztire solamente bertze
Gizonen bezalakoak,
Bañan dire bereziki,
Jesus, zure odolekoak.

Zure bizitze berriak
Nau munduan salbatuko,
Eta ekhartzen ditutzun
Bozkarioek boztuko.

Misterio bera

Noeletan den bezala explikatua.

Kanta zagun guziok
Ahalik gorena,
Lauda zagun Maria,
Andre handiena.

Zerutik izan zuen
Mezu dibinoa,
Ez zuela izanen
Agorren laidoa.

Izena eman zitzaion
Birjina Maria;
Hañitz erregetarik
Zuen ethorkia.

Gure salbamenduaz
Errazu, Maria,
Nork ekharri zarotzun
Zerutik berria.

Gabriel Aingeruak
Etxean sarthurik,
Jainkoari zeruan
Gu urrikaldurik.

Zer aita Eternalak
zuen gaztiatu?
Gabriel Aingeruak
Zertaz zen mintzatu?

Salutatzen zaitugu,
Birjina Maria,
Grazia da zurekin
Eta Jaun handia.

Zein lekhotan zinauden,
Maria, orduan?
Gabriel Aingeruak
Zu salutatzean?.

Galilean nengoen
Herri ederrean,
Ene gelan bakharrik
Debozioanean.

Gabriel Aingeruak
Zu salutaturik,
Erran izan zarotzun
Deus bertze berririk?

Konzebituko duzu,
Maria, sailduki,
Seme izanen duzu
Jainkoa segurki.

Erraguzu, Maria,
Zure izenean
Zuk zer erran ziñoen
Hauk entzun ondoan?

Nola daite possible
Inkarnaziñoa?
Semetzat nuke Aita,
Ene Jongoikoa?

Maria, othe ziñen
Garabik trublatsu
Fazoiñ huntan Gabriel
Zenean mintzatu?

Bai, ezpainuen nahi
Sekulan ezkondu,
Eta ez Birjinaren
Abantailla galdu.

Aingeruak zer erran
Zarotzun, Maria,
Ikhususirik ziñela
Trublatsu guzia?

Eztuzula beldurrik,
Birjina ederra;
Izanen da Spiritu
Sainduaren obra.

Maria, Aingerua
Sinhestsi zinduen?
Eta ser erreputa
Itzuli ziñoen?

Zeruetako jauna
Dela Adoratu,
Haren borondatea
Osoki konplitu.

Ilhabetheen muga
Iragan ondoan,
Sorthu zen zureganik
Jainkoa munduan?

Bai, sorthu zen munduan
Fruitu dibinoa
Gustien salbatzeko
Zeruko Jainkoa.

Erraguzu, Maria,
Haren sorlekhuia
Ala zen palazio
Ala gastelua?

Establi hautsi bat zen,
Establi ttipia,
Surik, atherik gabe
Lekhu idekia.

Erraguzu, Maria,
Haurra zer egin zen?
Munduan izan zeño,
Zer gizon izan zen?

Nor ethorri zitzaizun
Agur egitera?
Buryesik agertu zen
Bezten ematera?

Gizon eta Jainko zen,
Justua bizian,
Eta halaber justu
Hil izan zenean.

Ez gizon, ez emazte
Ez zen presentatu,
Esklabo baten gisa
Gintusten kitatu.

Erraguzu, Maria,
Handitu ondoan,
Ea guziek zuten
Maitatu munduan?

Ez zen bada izatu
Ez laboraririk?
Eta ez zen hurbildu
Ez merkataririk?

Bai, maite izan zuten,
Bañan ez juduek,
Koleraz, inbidiaz,
Herraz itsutuek.

Utzi izan gintusten
Jende hek guziek,
Ez gintusten ikhusi
Hain gutti handiek.

Bethi izatu ziren
Jende hek herratsu,
Jesus lurrean zeño
Bethi koleratsu?.

Erraguzu, Maria,
Izan zen arzaiñik
Eta mendietara
Dabillan gizonik?

Bai, bethi izan zuten
Haiñ herra mortala,
Non sofritu baitzuen
Gurutze kruela.

Hek bere presentekin
Gintusten ikhusi,
Hekien bihotz onak
Gintuen onetsi.

Hitz gutiz laburtzeko,
Errazu, Maria:
Gurutzean itzatu
Zuten Jaun handia?

Erraguzu, Maria,
Bazen erregerik,
Zure Seme Jainkoa
Ikhusi zuenik?

Ah bai! itzatu zuten
Jainkoa Habean,
Gaizki akusatirik,
Ohoiñen artean.

Hirur errege zuhur
Ethorri ziraden,
Zeñek bere presentez
Ohoratu zuten.

Erraguzu, Maria,
Ea urrun ziñen,
Ala hurbil Semea
Ikhusi zinduen?

Haren aldean nintzen
Ungi flakatua.
Hilla nirudiela,
Guzia urthua.

Arren, Andre handia.,
Othoizten zaitugu,
Semearen tronuan
Lagun zakizkigu,

Jujatzean mundua
Azken egunean
Eman gaitzan onekiñ
Bere eskuñean.

Halabiz.

Jainkoa gizon egin da
munduaren salbatzeagatik

Zeruko ihortzirien
Jaunaren ohe ttipia,
Gloriako Erregeren
Sehaska miragarria!

Bestitzeko eztu deusik
Gustien bestitzailleak,
Eztu ontasunik nahi
On gustien emailleak.

Manjatera, ikhustean
Zure humilitatea,
Ezin suporta dezaket
Munduko banitatea.

Prinzeen Jauna zelarik,
Munduaren Erregea,
Ez zuen bada izatu
Erregeen ohorea.

Higuñtzen zaizkit plazerak,
Urre, ohore, szeptroak,
Erresuma, handitasun,
Tronuak eta koroak.

Etzen gozatu Haurtto hau
Balsamo urrin gozoez,
Ezta berregiñdu ere
Handien ponpa ederrez.

Establian huna non den
Zeruko majestatea,
Haur paubretto baten gisa.
Egiñik bera paubrea.

Ez zuten hunen etxea
Urreriek bistatu,
Ez diamantek, ez perlek,
Ez zilharrek distiatu.

Jainkoa dago esklabo
Troxetan amarraturik,
Gustien salbatzaillea
Belhar gaiñean jarririk.

Haurra bera zen beretzat
Izarra eta argia,
Bera bere Klartasuna,
Bera iguzki gustia.

Haurrak sala huntan ditu
Bere nigarrak isurtzen;
Bi bestiek dute hemen
Hatsez Aurttoa berotzen.

Jesus Kreatzaille Jauna,
Gustien Jainko handia,
Bizitze hobe denaren
Sekulako iguzkia.

Aita guziz puxantaren
Klartasun infinitua,
Joan den eternitatean
Bethi berdin izatua.

Zuk handik zinduen lehen
Itsasoa gobernatzan,
Handik beiratzan mundua,
Ifernua gastigatzen.

Aitak ikhusi ondoan
Bere izate handia,
Ikhusi zaitu ilkhitzen
Bere argitik argia.

Ah sorthe miragarria!
Hau berak zuen hautatu.
Harritzeko paubrezia!
Berak zuen hau maitatu.

Bere baithan ikhusi da
Bere Seme bardinean,
Nola baita presuna bat
Ezagutzen miraillean.

Munduan zuen gizona
Bere moldera formatu,
Animalia gustien
Erregetzat deklaratu.

Arraza guziz handia,
Jainko Aitaren Semea,
Etxe ongarriz bethean
Usatu gabe prinzea.

Bañan Jainkoaren kontra
Jarririk gizon salbaia,
Dohaiñekin galdu zuen
Jainkoaren iduria.

Non duzu joan den mendean
Izatu dignitatea?
Non Aitarekiñ glorian
Izatu majestatea?

Bekhatuez kargaturik
Bazegoen kolpatua,
Bai egonen ere bethi
Zerutik desterratua.

Non koroa eternala,
Erresuma dohatsua?
Non tronu hanbat Aingeruz
Glorian inguratua?

Bañan Jainkoak harturik
Gorphutz guk bezalakoa,
Salbatu nahiz gizona,
Gizon egiñ zen Jainkoa!

Jesusen errenkurak establian

Bekhatuen zepoetan
Esklabo giñaudenean,
Jainkoa egiñik gizon
Sorthu zen leze batean.

Arrobak, ene sorthea
Zuek duzue sentitu;
Bi begiez ikhusirik
Zuek zarete argitu.

Hiñ eztiki izatu zen
Haren bihotza mintzatu,
Non hango harri arrokak
Izan baitziren mobitu.

Bustirik ene nigarrez
Izan zarete beratuz,
Ene auhenak entzunik,
Zuek zarete ernetu.

Hunelako espantuen
Bethi ere egiteko
Badiat bada ontasun
Eta bothererik asko.

O gizonak, ala zuek
Entzunen oihu aspreak!
Hauk senti ene bihotza,
Senti ene doloreak!

Nik nigarrak egitean,
Urak tutzue isurtzen,
Gure bien uretarik
Ithurri bat duk ilkhitzen.

Gozonek eztie senti,
Eztie deusik ikhusten!
Ez aditzen deusik ere,
Eta ez nigar egiten!

Ur hauk tuk ene suspirez
Bere lekhuak xukatzen;
Gero berriz ithurri hau
Gure nigarrez bethetzen.

Badidurite arrokek
Direla haragizkoak,
Eta halaber gizonak
Direla arrokazkoak.

Establia

Leze ilhun dohatsua!
Jauregi paregabea!
Jainkoak hire baithan dik
Hautatu bere etxea.

Eztuk oraiño aditu
Jesus Jainko Haur ttipiak
Lekhu huntan dituela
Isurtzen bere graziak?

Eztuk hi bezalakorik,
Gustien aiz gainekoa,
Hire barnean eman dik
Amudioak Jainkoa.

Beirauk, ez hemen erakuts
Hire rigorostasunak,
Ez Haur honen kontra egotz
Sasoinen krueltasunak.

Bai, Jainkoa hor ziaogok
Auhenez eta nigarrez,
Hireganat ethorririk
Gu konsolatu beharrez.

Elhur hotza, urrun adi
Hemendik mendietara;
Hoa han eta landetan
Hire telen hedatzera.

Negua, baldinba hunat
Ez aiz ausartzen sartzera,
Edo hire bertze lagun
Elementen ekhartzera.

Bide luze zabaletan
hedatzak hire gogara,
Etxe theilla gustietan
Egotz nahi bezain gora.

Bañan, begirauk, ez uki
Hemengo lekhu ederra,
Hek gabe asko xuri tuk
Ama eta bere Haurra.

Berriz

Elizarik sailduena
Jainkoaren establia,
Jesusek sorthu ondoan
Bere nigarrez bustia.

Posible da ikhus zetzan
Hunen bisaian nigarrak
Eta begiak zaduzkan
Harria bezain gogorrak?

Nigar egiñez gerostik
Jainkoak hemen dolorez,
Justu duk isur detzadan
Orain enek bihotzez.

Haurtxoa, egia bada
Gure plazer itsusiek
Eman darozkitzutela
Dolore aspre horiek,

Heian zuen bezain sarri
Jesus ikhusi argiak,
Negu hotz eta kruelak
Galdu ziotzan graziak.

Nola da posible gauden
Lili eta lorepean,
Zu sortzen zaren denboran
Lasto eta belharpean?

Amak salutatzen du Jesus bere haurra

Zeruko Errege puxanta,
Amaren sabel saildutik
Agertu senean munduan
Gorphutz batez bestiturik;

Eta barkha diezadazu
Hartzen dudan ausartzia;
Ene amudio handiak
Ematen darot kuraia.

Hala nola altxatzen baita
Itsasotik iguzkia,
Huna Amak nola zioen
Iduki solas ezta:

Bañan, ô Haur maitagarria,
Zure amaren besoek
Benturaz eztute balio
Hanbat nola establiek.

Fiñean begietan zaitut,
Amaren seme maitea;
Utzi duzu ene gorphutza,
Preso ziñauden etxea.

Nola deithuko othe zaitut,
Jainko Aitaren Semea?
Ala zarela erranen dut
Dohatsu dohakabea?

Izatu duzu ilhunpean
Karzel ttipitto batentzat
Zuk behar ziñduen lekhua
Aldare eta tenplutzat.

Jainko guziz puxanta zare
Zeruetako glorian;
Haur paubre baten gisa zare
Bethlémengo establian.

Arren, Jauna, sofri nazazu
Zuk eman libertatean
Pausa zaitzadan, ene Haurra,
Amaren bulhar gaiñean.

O Jauna, Prinze dohatsua,
Ene Jongoiko Handia,
Bañan Haurra, ô Haur flakoa,
Eta ene Haur ttipia:

Zer plazer zinduke? Sehaska?
Ala plazer aldarea?
Aita deithuko zaitut,
Ala deithuko Semea?

Zure miñen sosegatzeko
Ohoratzen tut, Maitea,
Zure flakotasuna behin,
Gero zure botherea.

Irakatz diozozu, othoi,
Amari eginbidea;
Nigarrez zer galdetzen duzu,
Insensu ala eznea?

Egiazki zure ama naiz,
Baita neskatoa ere;
Beraz zor darotzut bihotza,
Eta zor beraz ohore.

Ama extasian dago

Haurraren begietan

Leze sakratua! Prinze
Berriaren Jauregia!
Sahaskan datza etzanik
Haur bat adoragarria!

Orai duzu erakusten
Establi ilhun hunetan
Zer trukada egin duzun
Munduaren faboretan.

Heldu zaiku gloriatik
Eguberri egunean,
Gu beharrez bisitatu
Munduaren ilhunpean.

Eman baituzu Jainko bat
Haurtxo baten gorputzean,
Eta haur baten gorputz bat
Jainko baten izatean.

Lezea, orai utzazu
Zure izen usatua;
har zazu bertze izen bat,
Deithuko zare zerua.

Andrea, zeri zagozka
Haurtxo horren aitzinean?
Zer hor kontenplaten duzu
Sehaska horren barnean?

Gustiok aithortzen dugu,
O Salbatzaille maitea,
Bisaian dakharkezula
Zeruko majestatea.

Ithurriak xirripa du
Humildurik adoratzen,
Su ederrak bere kharra
Amudioz ohoratzen.

Zure grazia ederrak
Arraiak ditu egozten,
Eta ez itzal, ez traza
Figurarik erakusten.

Iguzkiak du ikhusten
Bere arrai dibinoa,
Pintadoreak miratzen
Thiratu duen lerroa.

Iguzkia baño tutzu
Bi begiak argiago,
Arrosalilia baño
Kolorea ederrago.

Plazer baitu obrariak
Bere obra ikhustez,
Haritzak bere fruitua
Atsegin kontenplatzeaz.

Mintzo da Ama bere Haur
Berbo dibinoarekin,
Prinzipioa juntatzen
Bere ondorearekiñ.

Ama Birjinak
maitatzen du bere haurra

Ah Jesus, amudioak
Lezean zaitu estaltzen!
Ene Haur Jainko maitea,
Arrokan zaitu pausatzen!

Beraz sortzen denaz geroz
Bere ardien erdian,
Justu duk, duen etxea
Hekiñ gisa establian.

Amudio dibinoa,
Hau da bada botherea!
Hemen baituk erakusten
Jainko bat zerugabea.

Ene bihotz dibinoa,
Zokholu hori utzazu,
Lasto gaiñean sobera
Denbora ematen duzu.

Errege batek ez izan
Bere eskuan szeptrorik!
Eta ez prinzeak ere
Egoteko Jauregirik.

Niri iduri zaitana
Iduritzen balitzaizu,
Zure Amaren bulharra
Errepiratzat har-zazu.

Palazioa duzu hau?
O zeruko Erregea!
Ardien heian baituzuz
Zeruan duzun gorthea!

Huntan zure koloreez,
Arrosa pintatuetan
Alha bethi zaudezela
Egonen zare dostetan.

Non da zure noblezia,
Nola asto unhatua?
Eta lagunik ez tuen
Idi bakhoitz flakatua?

Izanen dire lore hauk
Amudiozko fruituak;
Guziak tu freskatuko
Zeruko Espirituak.

Huna zer den sekretua,
Adizak, adiskidea:
Jesus Haurra duk artzaiña,
Eta oraiño Prinzea!

Ene bihotza dukezu
Baratze preziatua,
Ene begien nigarrez
Baratze ihinstatua.

Prinze eta artzaiñ hunek
Eragiñen dik etxea,
Behin jauregia heiaz,
Gero lezeaz gorthea.

Nausi beraz egin zaite,
Zeruko Bildots maitea;
Egin ene bihotzean
Nausi, Jainko Haur emea.

Gehiago duk hau bada,
Espantu miragarria!
Errege Artzaiñ hau baita
Zeruko bildots xuria.

Zu gabe ezta ederra,
Zuk behar duzu edertu,
Edo edertzen ezpada,
Zuk behar duzu eztitu.

Ah, bai, ezperen, ô Haurra,
Indazu, othoi, grazia,
Zure gisa xuri dadin
Ene arima guzia.

Amak bere haurrari Noelak

Geldi zaitetze Norteko
Haize hotz, aize aspreak!
Utzkitzue zuen bruma,
Bruma elhurrez betheak.

Mundu kreatu berritik
Zoazte mundu zaharrera,
Zoazte hemendik ihesi
Furien garraiatzera.

Jainkoa hemen diagu,
Urrun zaitetze hemendik;
Haur hunen hats dibinoa
Asko diagu haizerik.

Zuek ere hedoi belzak
Jaustera preparatzean,
Aphur bat egon zaitetze
Erori gabe airean.

Zertako tugu hedoiak,
Eta zertako uriak?
Asko tugu salbatzeko,
Jainkoa, zure begiak.

Bañan, Haurra, beiratzatzu
Isuri gabe nigarrak;
Nigarrek ilhuntzen tuste
Begien argi ederrak.

Aithortzen dut, egia da,
O Jesus, ene Semea,
Bihotz gustia dudala
Zure nigarrez bethea.

Zuk franko tutzu zeruan
Plazer uholde handiak,
Eztuste bada balio
Zure begien uriak.

Aingeruek adoratzen dute Haurra

Zeruko Aingeru ederrak
Airea ebak-azue;
Xizmisten gisa bolaturik
Hunat laster egizue.

Guk on gehiago diagu
Gure establi paubrean,
Ezen ez zuek, aingeruek,
Zuen zeruko gorthean.

Hemen hari duk Jainko Haur bat
Gerla eztien egiten,
Bere sehaskan dagoela
Triunfa dik eramaten.

Arma gabeko beso batek
Etsai murrak hautsirik,
Ifernua dik alarmatu,
Guzia iharrosirik.

Laudatzeko, ô Aingeruak,
Gerlari bat haiñ eztia,
Errazue Jaun egiñ dela
Jesus haurraren grazia.

Oraíño berriz errazue
Jainko idola falsoak
Hari direla preparatzen
Ohoiñen gisa zilhoak.

Hekien dibinitateak
Il-hurrenak daudezela,
Jesus ttipiaren sehaskan
Ehorstera doazela.

Eztuzue bada ikhusten
Airean gora argiak
Zeiñ klarki duten distiatzen
Eta zeñ diren eztiak?

Horra nola hedatzen duten
Jaunko Haur hunen gloria,
Gustiek die publikatzen
Hunen magnifizenzia.

O argiak! Argi ederrak!
Jesus Haurraren argiak!
Haur hunekiñ sortzen zareten
Argi espantagarriak!

Helas, hau zer mirakuillu da!
Elhurra bezañ hotzetik
Distiatzen baitute kharrek
Haurtxo hunen sehaskatik

Jesusek eta Eguberrik
Egun berri dohatsuak,
Sehaska batean tutzue
Zeuen sortzeko lekhuak!

Aingeruek erraten dute

zergatik gizon egin den Jainkoa.

Hau da, hau ganbiamendu
Ederra eta berria!
Mirakuilluzko sekretu,
Espantu harrigarria!

Biek elgar aditurik,
Lehenik amudioak,
Gero Jainko Haur beraren
Indar handi dibinoak.

Sartzen tu zero gustiak
Heia ttipitto batean
Eta Jainko Immensoa
Manyateraren barnean.

Oraiño bada diaguk
Gehiago admiratzen,
Jongoiko puxant hau baita
Miseriaz ohoratzen.

Aingeruak, nork egiñ du
Establi batez zerua?
Eta manyatera batez
Nork Jainko baten tronua?

Lakhetzenago ziaio
Birjinaren bulharretan,
Ezen ez Aingeruekin
Gure plazer handietan.

Amudioak egiñ dik
Lurrean heiaz zerua,
Eta Jainko erregeak
Belharrez bere thronua.

Zeruko glorian diren
Ontasunak tik kitatzen;
Eztuk leheneko ponpan
Espantagarri agertzen.

Heian ziatzak troxetan
Izarren kreatzaillea,
Lurrean haur formaturik
Elementen Egillea.

Gerizatzen tik argiak
Heiaren ilhun barnean,
Hala nola iguzkiak
Bere arraiak, sartzean.

Hedoietarik hunek tik
Ihortziriak lantzaten,
Xizmisten argi gustiak
Hunek ilhunpean biltzen.

Aingeruak, errazue:
Zer othe du desiratzen?
Lurreko ontasun hautan
Zer koroa du bilhatzen?

Jainkoa nork haur egiñ du,
Errazue, Aingeruak?
Ez othe amudioak,
Ala Haur hunen eskuak?

Guzien Jauna delarik
Utzi-tik guziak,
Xoilki irabazi nahiz
Gizonen bihotz ttipiak.

**Arzaiñek adoratzten dute
Haurra**

Arzaiñak, zatozte fite,
Zatozte heia huntara,
Arrokan barna hemen den
Jainkoa adoratzera.

Neskatxa arzaiñ debotak,
Hunat laster egizue,
Bildots berri dibino bat
Kontenplatuko duzue.

Hurbildu denaz gerostik
Ikhus-agun elkarrekiñ;
Zuekiñ gu joanen gaituk,
Zatozte zuek gurekiñ.

Zuen ardi eta bildots
Gustiak utz detzatzue,
Zerutik jautsi Bildots bat
Adoratuko duzue.

Bildots pulit bat hemen duk
Eta bildots zerukoa,
Heiak ezpaitu oraiño
Ikhusi hunelakoa.

Bañan hunen gurutzea
Emazue gerrietan;
Harzazue hunen ille
Dibinoa eskuetan.

Erakusten tik bisain
Espantu miragarriak,
Klarki baitire ageri
Bildurik zeru gustiak.

Ille hau xoilki duzue
Irunen zuen landetan,
Zuen mendi, zuen haran
Eta haritz itzaletan.

Hedoi eder baten gisa
Dik bere begitartea,
Begiek ez ikhusteko
Hunen dibinitatea.

Ardatzak eragitzue
Itzeez irutekotzat,
Bañan irunen den tela
Izanen dela hunentzat.

Nor ezta establi huntan
Guzia espantatuko!
Eta nor ez, ikhustean,
Amudioz flakatuko!

Ederra behar diñ telak,
Ungi beraz egizue,
Hartzaz arropa berriak
Gero egiñ detzazue.

Nihon ere izan ezten
Eksenplu bat dik ematen,
Emanik bere bihotza,
Gurea dik galdegiten.

Erhiak asai huntan
Erabiliko tutzue;
Hargatik bethi eztia
Pena izanen duzue.

Egiñ dik establi batez
Parabisuko gloria,
Eta gizon Jainko batez
Bildots adoragarria.

Emazue khilloetan
Hunen grazia linhotzat;
Eta hunen Gurutzea
Zuen gerritan khillotzat.

Erregeek ekhartzen tuste presentak

Hirur Errege handiek
Egiten dute presenta:
Urre, Mirra, insensua,
Jainko Haurraren tributa.

Tresor hau eztu balio
Amerika dohatsuak
Eta deus eztu hau baño
Ederragorik munduak.

Mirrak du siñifikatzen
Gizon dela gu bezala.
Jainko dela insensuak,
Urreak errege dela.

Badakit segur hau dela
Presentik aberatsena:
Present eder, present handi,
Present mañifikoena.

Arren, gure ezagutzak,
O Jesus, ikhus detzatzu,
Bihotz berritu tugunak
Beraz errezibitzatu.

Bihotz baten izateaz
Errege zare aithortzen,
Eta mundu ttipi batez
Jongoikotzat adoratzen.

Herodes

Jesus Haurraren etsaia.

Doidoa, Jesus Jainkoa,
Munduan zare agertzen
Eta Herodes kruelak
Kruelki zaitu tratatzen.

Ah, zer diot? Itzul zaitte,
Gustien Salbataillea,
Joan da mundutik Herodes
Jainkoaren hiltzaillea.

Gerla egiñ nahi badu
Tiranoak beregatik,
Haur maitea, zoaz zerura
Haren lurra kitaturik.

Munduak Zu ikhustean,
Galdua salbatzen dela,
Bozturik erranen baitu
Salbatzaille zaituela.

Edo berze zenbait herri
Munduan bilha dezazu;
Ohorez joaten zarela,
Gerla egiñ diozozu.

Hartzen tutzun afruntuez
Ohore duzu izanen;
Zure trublek, zure gerlek
Bakea dute emanen.

Nahi baduzu Ejiptu,
Egiazko Jongoikoa?
Handik khasatuko duzu
Hango idolo falsoa.

Egiten tutzun nigarrez
Hagitz gare konsolatzen:
Zu Habeen itzatzeaz
Zerura gare altxatzen.

Bekhatorearen amudioa*Jesus Kristo Salbatzaillearentzat.*

Jainko puxanta, haur sorthua,
Zerutik zare ethortzen,
Gure miñekiñ ditutzu
Zure plazerak trukutzen.

Sehaskan diren belharrez
Eragiñ detzatzu fletxak;
Hobeki egiñen tutzu
Ene baithan zure brexak.

Ikhusi tudan ondoan
Sufritu tutzun zauriak,
Hala nik hagitz sentitu
Zure dolore handiak!

Eta bihotz hau oraiño
Hobekiago zaurtzeko,
Zuk pena duzun bezanbat
Amudio dut biztuko.

Ezen nola ezpaititut
Zure nigarrak xukatu,
Zuk amudio bezanbat
Dolore dut nik sentitu.

Jadanik bihotzean dut
Brexera eder bat sentitzen,
Fletxa gori batek darot
Zeruko suaz erretzen.

Jongoiko kreatorailea,
Manyateran zauntzan Jauna,
Neguaren hotz kruela
Hanbat pairatzen duzuna:

Bai, kontent naiz, orai baitut
Nahi nuen on handia;
Galtzeak darot egiten
Dohatsu bihotz guzia.

Isurzatzu beraz, Jesus,
Zeure begien nigarrak;
Bethi ere erretzeko
Izanen tut zure kharrak.

Gizon gustien amudioa*Jesus Haurrarentzat.*

Jendeak, laster egizue.
Ageri duk estalia
Manyateran belhar gainean
Zeruko Jainko handia.

Gau argi saindu huntan
Ungi zuek egiteko,
Hil behar zarete ahalkez,
Amudioz ez hiltzeko.

Jainkoa duk eta gizona;
Adoratzeraz joan gaiten,
Amudioz bethe gau huntan
Amudioz erre gaiten.

Arma gabe bere eskuaz
Harritu dik ifernua,
Deabruak ikharan ezarri,
Amudioan mundua.

Hain duk ezitia non bihotzak
Baititu bereganatzen,
Eta bortxatu gabe nihor
Printze baita ezagutzen.

Ala hunek begi argiak!
Zerua die illhuntzen
Distiadura dibinoez
Eguna die estaltzen.

Argi eta ithurri dituk,
nigar baitute egiten
Eta nigarrekin batean
Amudioa erakusten.

Estatu huntan Jesus Haurrak
Gu hobeki beretzeko,
Fletxak belharrez egiten tik
Gure bihotzen zaurtzeko.

Ematen die amudio
Bihotzaren erretzeko,
Eta die nigar egiten
Arimaren garbitzeko.

Bere sehaskan gehiago
Ziarokuk erakusten,
Amudioaren tronua
Sehaskaz baitu egiten.

Begietarik sasoiñ hotzak
Nigar zioz eragiten;
Eta bisaiaren gainean
Nigarrek horma egiten.

Ala hik beraz behar baituk
Fortuna hagitz dulzea!
Sentitzen baduk bihotzean
Hunen begien kolpea.

Bañan Eguberri egunak,
Egun berri zerukoak,
Hormatik sortzen ikhusten tik
Amudio karrezkoak.

Egun eder dohatsu huntan
Hik nobleki egiteko,
Hil behar uke tristeziatz,
amudioz ez hiltzeko.

Gizonak bere sehaskara
Deitzen tik Aingeruekiñ
Eta bere troxak trukutzen
Amudiozko soke-ekiñ.

Bethi beraz maita dezagun,
Maita gure herioan,
Har dezagun pena gozo hau
Gure bizitze osoan.

Debotak erakusten dio amudio Jesus Haurrari

Ah, Jesus, Gizon Jainkoa!
Jesus ene Erregea!
Ene amudio eder,
Saindu gustien xedea!

Salbatzaille sortzen dena,
Sortzen gure salbatzeko,
Indazu zure grazia,
Zuregatican hiltzeko.

Zure heian den lastoak
Darot bihotza zathitzen;
Zure begien nigarrek
Ene arima erretzen.

Halako graziak tutzu
Isurtzen zure lezean,
Non ezpaitzait deus gloria
Establi hunen aldean.

Jesus Jainko Haurraren amudioa gizonarentzat

Jesus Jongoiko Haurrak
Indarrak
Daduzkat suz hartuak.
Ene bihotza nagi du
Zeruko kharrez xixpildu,

Ezta Haur hunen sua,
Itsua,
Bañan da dohatsua;
Argiak dardatzen ditu
Ni nahiz sutan formatu.

Jadanik nau zesitu,
Goritu,
Gustia nau beretu;
Eztu kontra deusik ere,
Egiñ da ene errege.

Khar hunek erretzean,
Munduan,
Ematen nau zeruan,
Ene bihotzean barna
Ematen baitu Jaun ona.

Eztire hunen fletxak
Khamutsak,
Bañan hagitz zorrotzak;
Hau da ene Jaun puxanta,
Eta ni hunen sujeta.

Hau izatuz gerostik
Zerutik,
urrundu naiz mundutik;
Hau da ene nagusia,
Ni hunen zerbitzaria.

Ezin asez egun, gau,
Brasa hau,
Osorik erretzen nau.
Utzi behar dut mundua,
Ardiesteko zerua.

Nik dukedan gloria
Guzia,
Da dolore handia;
Hunek hunela plazer du
Ni nahiz kharrez xixpildu.

Jesus Kristo gure Jaunaren Pasionekeo instrumentak

Ala zuek, instrumentak,
Baitzarete kruelak!
Hauk dire bada Jainkoari
Egiñ behar zaizkon gerlak?

Zathikatu diozue
Jaun onari gorphutza.
Bederen baziñarotate
Zathitzen niri bihotza!

Azoteak

Azoteak, prest zarete
Jesusen zehatzera,
Eta gaxtagiñ esklaboen
Dohatsu errendatzera.

Hautsiko othe duzue
Jainkoaren gorphutza?
Hausten baziñarozkidate
Gorphutza eta bihotza!

Harroiña

Jesus Jauna, billuzirik
Zintusten azotatu,
Gure gaiñera behar zuen
Agoazer horrek etxatu.

Isur-araz detzatzue,
O dolore ederrak,
Jesusen odolarekiñ
Bederen ene nigarrak!

Seska

Hau othe da Jesusentzat
Szeptro egiñ berria?
Kanabera du eskuan,
Kanabera trufagarria.

Seska, othoi, garait-zazu
Erregeen gloriak,
Garait Zesar eta Pompe
Handien indar gustiak.

Arropak

Hauk othe dire Jesusi
Tresna egiñ berriak,
Arropa ilhun, odolstatu,
Hauts kolore nahasiak!

Ah, Jesus doloratua!
Maite ditut doloreak.
Ekharri nahi ditut bethi,
Jauna, zure koloreak.

Koroo

Elhorri zama zorrotza,
Beraz hik ohorea
Bekhoki huntan ezarri duk
Eta hik desohorea.

Jainko Errege batentzat
Ah, zer buruko girla!
Koroo batez egiteko,
Ah, zer tromenta kruela!

Bisaia

Hil-frogutako figura!
Edertasun tristea!
Kolore joan hurren ilhunak!
Ezdeustu majestatea!

Amudioak zintusten
Bere plumez pintatu,
Oxala bada bazintuste
Ene ariman formatu!

Itzeak

Itzeak, itze kruelak!
Gizonarentzat eztiak!
Bañan Gizon Jainko batentzat
Itze lastimagarriak!

Bortz athe egiñ zintusten
Hunen gorputz sainduan,
Guri hobeki zabaltzeko
Atheak hunen zeruan.

Lantza

Zeren ondoan enbillan,
Lantza kruel zorrotza,
Hire furian kolpatzean
Jesusi bere bihotza?

Kolpea, kolpe latza!
Hil baten kolpatzea!
Eta bihotz dibino baten
Afruntuz afruntatzea!

Gurutzea

Gizon Jainko hil denaren
Ohe kruel dulzea!
Errege Jaun baten tronua,
O Jesusen gurutzea!

Akhabatzak hunen penak,
Kontenta zak herioa,
Herioa kontentaturik,
Kontenta amudioa.

Gathabutea

Gathabute aberatsa!
Ikhusten tuk dolutan
Nola dauden Aingeruak
Hire saihets gustietan.

Hire baitham eman zien
Jaunak bere gorputza;
Hor barna ehorsten bahu
Harekiñ ene bihotza!

Instrumenta gustiak

Sokak, kanabera, lantza,
Arropak, arantzeak,
Harroiña, burdiña, gathe,
Gurutze eta itzeak:

Ah, kruelak! Utzazue
Ene salbatzaillea!
Ni tromenta nazazue,
Jainkoaren hiltzaillea!

Jesus-Kristo Jaunaren Pasioneko Historia

Ēguneko eta gaueko 24 orenetan partitua, Ebanjelio Sainduetarik athe-ratua, egunaren eta gabaren iragateko, haren orhoitzapen sainduaren ize-nean, eta jakiteko zer afekziona eta zer berthute praktikatu behar den oren hetan.

1. Orena. *Kontrizioea*

Tristetu zait herioraiño
Ene arima handia.
Jainkoak baizen ez daduka
Hagoan ene bizia.

2. Orena. *Jainkoaren nahira
erremetitzea*

Gorphutzetik isuri zuen
Lurreraíño izerdia.
Isuri, helas! gorphutzetik
Odol izerdi handia!

3. Orena. *Jainkoa gehiago estimatzea
ezen ez bertze gauza gustiak.*

Ah, Judas, hunela saltzen duk
Jainkoaren Seme Jauna!
Saltzen baituk musu egiñik
Gizonik den hobereña!

4. Orena. *Sofritzeko desira.*

Soldaduek harturik Jesus
Sokez dute amarratu;
Ana Pontife gaxtoaren
Etxera dute gidatu.

5. Orena. *Espantua.*

Zerbitzarietarik batek,
O Jesus Ene Jainkoa!
Kruelki ezarri darotzu
Bisain mazelakoa.

6. Orena. *Konpasioea*

Hañitz lekhuko falso dire
Jesusen kontra altxatzen;
Falsoki Kaifas falsoak
Erran falsoak aditzen.

7. Orena. *Jainkoaren baithan
esparantza*

Mokanes batez diotsate
Bere begiak itsutu,
Eta kruelki zafardakoz
Bere bisaia urratu.

8. Orena. *Justizia dibinoaren
beldurtasuna.*

Argi alban gidatzen dute
Konziliora lothurik:
Gorphutza eta bi eskuak
Burdinez amarraturik.

9. Orena. *Inozentzia ezagutuaren atsegiña*

Pilatus gobernadorea
Bakharrik zaio mintzatzen;
Gero diotsa: Hunen baithan
Eztut faltarik kausitzen.

10. Orena. *Jentilei Athea idekia*

Herodes Erregerengana
Pilatussek du manatu
Eta dire oren berean
Etsai handiak baketu.

11. Orena. *Justifikazionea*

Herodesek trufak egiñik
Erho gisa du bestitzen;
Pilatus presidenta gana
Xuriz bestirik egortzen.

12. Orena. *Ohorearen mesprezioa*

Orduan Pilatussek Jesus
Bere gaiñki zuen hartu;
Gero burreuek haren salan
Billuzirik azotatu.

Bertze hamabi orenak

1. Orena. *Espantua*

Zerbitzarietarik batek,
O Jesus ene Jainkoa,
Bisaian ezarri zarotzun
Kruelki zafardakoa.

2. Orena. *Konpasioenea.*

Hañitz lekhuko falso dire
Jesusen kontra altxatzen,
Eta hekiñ erran falsoak
Kaifas etsaiak aditzen.

3. Orena. *Jainkoaren esparantza.*

Mokanes batez diotsate
Bere begiak estaltzen
Eta zafardako batez
Bere bisaia uspeltzen.

4. Orena. *Justizia dibinoaren izialdura.*

Argi alban gidatzen dute
Konziliora lothurik,
Gorputza eta bi eskuak
Gatheetz amarraturik.

5. Orena. *Inozentzia ezagutuaren atsegiña.*

Pilatus gobernadorea
Bakharrik zaio mintzatzen;
Gero diotsa: Hunen baithan
Eztut faltarik kausitzen.

6. Orena. *Athea jentilei idekia*

Errege Herodesengana
Pilatussek du egortzen,
Eta oren berean dire
Elkharrekien baketzen.

7. Orena. *Justifikazionea*

Trufaturik du Herodesek
Athorra xuriz bestitzen;
Eta Pilatusengana du
Fazoiñ berean egortzen.

8. Orena. *Plazeren mortifikazionea.*

Orduan Jesus Pilatussek
Bere gaiñki zuen hartu;
Gero bere pretorioan
Billuzirik azotatu.

9. Orena. *Ohorearen mesprezioa.*

Juduek arantze-elhorriz
Zioten egiñ koroa,
Eta arantzezko koroaz
Koroatu Jongoikoa.

11. Orena. *Borondate propioaren kizatzea.*

Munduaren Salbatzaillea
Hurbiltzen da gurutzeraz;
Sorbalden gaiñean hartzen du
Altxatzen Kalbariora.

10. Orena. *Leialtasunaren promesa*

Huna bada non den gizona;
Emazue gurutzean.
Jesus utzten du Pilatusek
Jendeen borondatean.

12. Orena. *Adorazionea*

Populuak Kalbariora
Direnean arribatu,
Burreuek dute, ah kruelak!
Habeen Jesus itzatu!

S. Benoisten othoitza.

Jesus-Kristo ene Jauna, othoi, zure zauri sakratuez zaurt diezadazu ene arima, eta ase zure odol sainduaz; bethi lekhu gustietan zu ikhus zaitzadan gurutzatua, eta ikhusiko tudan gauza gustiak ikhus detzadan zure odolaz gorrituak; xoilki zure bilha nabillala; sekulan zure zauririk baizen ikhus ez dezadan; eztudan bertze konsolazionerik, zurekien zaurthurik izatea baizen; den ene pasione guzia zure Gurutzearen oiñetan belhauriko egotea; eta ene bihotza eztadiñ sekulan pausa zure baithan baizen, zeïña baitzare hunen amudio gustien xedea.

Jesus Gurutzearen gaiñean

Jendeak, ikhus nazazue
Nolatan azken fiñean
Zuengatik hiltzera noan
Gurutzearen gaiñean.

Eztarot dolurik batere
Gurutzeko herioak,
Herio saindu hau baitarot
Ematen amudioak.

Ez zuen indarrrik izanen
Ene baithan herioak,
Bizia baldin ezpalarot
Eraman amudioak.

Ikhustean nola sofritu
Dudan ene herioa,
Zer herstura, zer agonia,
Nolako martirioa!

Galdu behar dut instant huntan
Ene egun sakratua,
Eta zuengatik pairatu
Dolore infinitua.

Ezperen erranen duzue:
Jainkoak bizi zenean
Maitatu ezpalu gizona,
Eztzen hillen gurutzean.

Bañan ikhasi dituzue
Jainkoaren doloreak!
Helas, begira, ez errenda
Pena hauk fruitu gabeak!

Eztuzue ahalke behar
Jainkoaren segitzeaz,
Jainkoak amudioari
Plazer du obeditzeaz.

Beraz isurtzen dudanean
Ene odola zuentzat,
Bederen isur ezazue
Ordaiñez nigar enetzat.

Langiturik hiltzen naizela
Ikhusten nauzuenean,
Etsai tropela handi batek
Landatu zuen habean,

Guziz puxanta naizelarik
Eta Jainko dibinoa,
Ikhusazue nola zaitan
Jaun egiñ amudioa.

Errazue eztela eder
Bizitzea plazerean,
Hiltzen denaz geroz Jainkoa
Gurutzearen gaiñean.

Amudioz hiltzen da Jesus

Ah, gu gare bekhatoarak
Eta Jesu da punitzen?
Jesus, zure amudioak
Gugatik zaitu itzaten.

Bañan nik maitatu nitien
Eta hekiñ liberatzeko,
Liberatu Jesus tiranoei
Hekiñ penen sofritzeko.

Justua aiz, amudioa,
Hobendunei barkhartzeko?
Eta presuna inozenta
Gurutzen punitzeko?

Ezperen duk ene legea
Amudiozki emana,
Inozenta baita punitzen
Salbatzeko hobenduna.

Egia duk; galtzen zioat
Inozentari bizia.
Salbatu nahiz hobendunak,
Eta hei eman gloria.

Ah, bai! Zuen Salbatzailleak
Zuen penak tik sofritzen!
Bere gaiñera zioak Aitak
Bere kolera kargatzen!

Bekhatuak zitien egiñ
Ene etsaien esklabo,
Merezi baitzitusten penak
Bethi sutan erretzeko.

Jainkoak zuei darotzue
Ematen bere grazia,
Eta bere Seme Jaunari
Errendatzen justizia.

Ezperen duk ene legea
Amudiozki egiña,
Inozenta baita punitzen,
Salbatzeko gaxtagiña.

EBANJELIOKO HITZ HAUKIEN GAIÑEAN:*Jesus inclinato capite emisit spiritum.*

Mundu-herri gustiarentzat
Salbatzaillea hiltzean,
Haren gana haren tromentan
Herioa hurbiltzean,

Kruelak fite entzun zuen
Eta fite obeditu;
Oi, bada, gor, kruel, itsuak,
Izan ezpalu aditu!

Hagitz izan zen bere baithan
Espantatua gerthatu!
Eta gibelat zuen laster
Bere eskua thiratu;

Kolpe harrigarri xoil batez
Galdu zuen iguzkia,
Eta natura ikharetan
Galtzeko utzi gustia.

Burreuak eziñ izan zuen
Ausartziarikan asko,
Ofizioa Nausiari
Gurutzean egiteko.

Gustiak zeuden langiturik
Airean eta lurean,
Hala nola izatu balitz
Mundua azken fiñean!

Jesusek bere aitzinērat
Beheratzean burua,
Burreu krue eta gorrari
Egiñ zioen kheifua:

Antsiarik gabe zegoen
Solament bekhatorea,
Hunentzat hiltzen zelarikan
Gustien Salbatzaillea.

Ez ziozola konsidera
Nausitasun dibinoa,
Bañan ziozola ausarki
Konpli sakrifizioa.

Ingrata! Bihotza zuela
Zidurien harrizkoa,
Eta harriek ziduriten
Zutela haragizkoa!

Madalena*Salbatzaille Jaunaren gorphutz hillaren aitzinean langitua*

Jesus ona eta puxanta!
Gure arimen argia!
Zuk hiltzean hiltzen duzu
Izarrekiñ iguzkia.

Bekhoki ederra! Maite dut
Furiak egiñ Kolpea!
Argi gustien sorlekhuian
Ezarri du gau tritea!

Bañan galtzen duzunean zuk
Edertasun dibinoa,
Galduko othe dut nik ere,
Oh Jesus, amudioa?

Zer dakusat zure bisaian?
Herio miragarria?
Ala ezperen ageri da
Amudio hilgarria?
Zorthe gaitz...

Zorthe gaitz! Gurutze! Herio!
Ah, hau duk ene Jainkoa!
Zergatik eztuzue hartzen
Enplegu eztiagoa?

Gorphutz hilla, lehen arima
Haiñ ederraren egoitza!
Ala hik hagitz baitarotak
Orain flakatzen bihotza!

Pitzten dituk zeruko suak
 Hire odol hormatuan,
 Eta sortzen amudioa
 Hire thonba sakratuan.
 Zorthe gaitz...

Utz betza ezperen itzeak
 Zaurtzera ene gorphutza,
 Utz lantza eta arantzeak
 Zaurtzera ene bihotza.
 Zorthe gaitz...

Amudioak nahi badu
 Jesus ezten ene Prinze,
 Eta baldin diñe ezpada
 Izatekotzat Errege,

Bitartean zuek, mendiak,
 Zuek, landa, eremua,
 Ikhasazue nola naizen
 Amudioak zaurthua.

Haren odolaz gorriturik
 Zuek, ithurri ederrak,
 Eramatzue munduz mundu
 Zeuekiñ ene nigarrak.
 Zorthe gaitz...

Gurutzearen aitzinean bekhatoarea

Ene desira, ene botu
 Gustien xede eztia,
 Gizon handi, Jongoiko ttipi
 Bañan adoragarria!

Heldu zare gure mundura
 Zure eternitatetik,
 Zure penez gu salbatzeko
 Sekulako heriotik.

Jesus! Gizon eta Aingeru
 Gustien bihotz maitea,
 Gauza egiñ diren gustien
 Artean paregabea!

Helas! Posible da penetan
 Jainko baten ikhustea?
 Eta bekhatore gizona
 Dolorez ez egotea?

Helas! Posible da zu, Jauna,
 Gurutzean ikhustea!
 Ikhustea tromenta hautan
 Eta ez zu maitatzea?

Ah, hai Jesus! Badidurizu
 Gustietan Jaun borthitza,
 Bañan harrigarria duzu
 Guretzat duzun bihotza.

Jainkoa zare eta Jainko
 Gorphutz gabe izatua;
 Ordean egun guregatik
 Haragiaz bestitua.

Kausitzen dugu zure baithan
 Eztia garratzarekiñ
 Eta halaber adoratzen
 Gizona Jainkoarekiñ.

Mirakuillu handiagoa
 Oraino duzu obratzen;
 Gizon gustien salbatzeko
 Jainko bat baituzu galtzen.

Jesusen pasione sailduko orenak

Iklusak Jesus, hire Jauna,
Bere othoitzten egiten,
Izertidan nola dagoen,
Nola den oihuz egoten.

O berroa, berro kruela!
Gizonen egiñ koroa!
Egiñ akit su dibinoen
Amudiozko berroa.

Jainko hunen konsolatzeke
Hunen pena handietan,
Behar duk izan debot, saildu,
Aingeru, hire obretan.

Nona

Gurutzea bere soñean,
Ziok segi dezagula;
Hil eta bizi Gurutzean
Gustiok behar dugula.

Prima

Jadanik preso hartu die
Judeuk Jesus Jaun ona;
Gurutzera ziaramatek
Hutsik eztuen gizona.

Jesus Jauna denaz gerostik
Gurutzean gurutzatu,
Derragun dela Gurutzean
Gure gloria finkatu.

Bethi ere, ene arima,
Behar duk Jesus segitu,
Behar haiz haren amudioz
Sekulakotz amarratu.

Bezperak

Iklusak martirio huntan
Tromenta den nolakoa!
Oihuz, othoitzez dagoela,
Mundutik joan duk Jainkoa.

Tierza

Dugun guztiok herioan
Urrikari Jesus Jauna,
Bil dezagun hark zaiñetarik
Hustu duen ontasuna.

Beraz hagitz senti dezagun
Hunen dolore handia;
Jesusekin egigun othoitz
Eta sofri agonia.

Ez diozogula zathika
Burreuen gisa gorputza,
Eta ez bethe desplazerez
Ingraten gisa bihotza.

Konpletak

Jesusen frogu handietan,
Halako aparailuan,
Egik nigar: estali uben
Zerua haren doluan.

Sexta

Buruan duen diadema
Niri ziaitak mintzatzen,
Nola nauen adimenduan,
Bihotzez nola maitatzen.

Utzi ziteen Jainko hilla
Bere thonban ehortzirik;
Ah, baldin bizitzen bagiñe
Harekien estalirik!

Aktak pasione sainduaren ohoretan*Fedea*

Huna fedea irakasten
Darokun misterioa:
Jesus Jaunak penen teatra
Zuela Kalbarioa.

Hil izan dela sinhesten dut
Gurutzean inmortal,
Eta hiltzean Gurutzean
Gustien Jaun egin zela.

Adoratzea

Guregatik hilarazi du
Amudioak Jainkoa,
Desohorezko urkhabeen
Prinze zeruetakoa.

Gizon galduen salbatzeko,
Hil da Jainko Jauna bera;
Goazen, ene bihotza, goazen,
Dugun Jainkoa adora.

Eskerrak

Jesus ona, ahuspez ditut
Zure penak adoratzen;
Zure odola zaiñetarik
Enetzat duzu isurtzen.

Ah, zu nola tratatu ziñen!
Nola ninduzun maitatu!
Hil izan ziñen amudioz,
Gizona nahiz salbatu.

Ofrenda

Zenbat on egiñ darotazu!
Eman nolako bihotza!
Beraz zer bihotz zor darotzut,
Eta zenbat ezagutza!

Obihotza, bizi behar duk
Jainkoaren maitatzeko,
Eta bethi harekiñ bizi
Gurutzea ekhartzeko.

Resoluzioea

Bekhatua, ah bekhatua,
Burreu gaixki egillea!
Izan aiz, fiñean, izan aiz
Jainkoaren hiltzaillea.

O Jesus, eztut segituko
Zu hil zaituen furia,
Bañan bilhatuko dut bethi
Hark joan darotzun bizia.

Othoitza

Jauna, irabazi zinduen
Herioan biktoria;
Othoi, iguzu zuk merezi
Grazia eta gloria.

Sor bedi zure heriotik
Gure bizitzetasuna,
Eta sor zure penetarik
Gure dohatsutasuna.

Esparantza

Habe handian hil zenean
Gizon eta Jainko zena,
Satisfatu zen justizia
Jainko bizi denarena.

Jesusen penek darotate
Erosi ene gloria;
Fons handi huntan finkatzen dut
Ene fidantza gustia.

Amudioa

Ala zure amudioak
Ni hagitz bainau maitatu!
Salbatu behar nauelakotz
Zu galdu izan baitzaitu.

O Jesus ona, hiltzen zare
Enegatik Gurutzean:
Maite zaitut; ah, bizi zaite,
Othoi, ene bihotzean.

Imitazionea

Adi zagun Jesus Jaunaren
Zuhurtzia dibinoa;
Gurutzea ekharrak, dio,
Irabazteko koroa.

Gurutze huni lot akio,
Lot huni hire desirak;
Egiñ adi hunen partale,
Nahi badituk plazerak.

Estimua

Konsiderazak, O arima,
Jesusen heriotzea,
Hunen arantza, hunen itze,
Lantza eta Gurutzea.

Orduan bada jakiñen duk
Zer den hire balioa,
Nolakoa Jainkoak zuen
Hiretzat amudioa.

Humilitatea

Egia othe da ala ez?
Maite zaitudala, Jauna;
Badakit, bekhatorea naiz,
Posible den gaxtoena:

Badakit zure ontasunen
Eta dohainen gloria:
Bada zuk ere badakizu
Zer den ene malezia.

Bekhatoreak madarikatzen du bekhatua

Pentsatzean Jesus hil dela
Enegatik Gurutzean,
Nik nola deus pentsa dezaket
Haren kontra bihotzean?

Nola nik mespresa dezaket
Isuri duen odola?
Xortatxo batek balio du
Erresuma eternala.

Zuk hanbat pairatu ondoan,
Jesus, zure gorphutzean,
Egiñen othe narotzuke
Urkhabea bihotzean?

Andre dena Mariari othoitzza

Zeruetako Erregiña,
Birjina Ama enea:
Kalbarioan gora zinduen
Segitu zure Semea.

Ah, han Gurutzean zinduen
itzaturik kontenplatu
Eta doloreak zarotzun
Zure bihotza flakatu.

Othoiztzen zaitut, Seme Jaunak
Sofritu heriotzeaz,
Heriotzeko perilletan,
Arren, ez ni kitatzeaz.

Aingeru gustiei othoitzza

Ez othe nauzue entzuten,
Aingeru baketiarrak:
Bada Jesus hil zen denboran
Egiñ zintusten nigarrak.

Haren dolu handia ere
Hartu zinduten zeruan;
Ez othe tutzue entzunen
Ene othoitzak munduan?

Othoiztzen zaitustet humilki
Jesusen heriotzeaz,
Heriotzeko orenean,
Arren, ni faboratzeaz.

Bazko denboran*O filii et filiae*

O Girstiño tristea,
Biztu da Jesus maitea,
Alleluia, alleluia,
Alleluia, alleluia.

Larunbat alba goizean
Piarresekiñ batean
Joannes hilharrirat zen joan.
Alleluia...

Joan zen Madalena ere,
Joan zen Maria Salome,
Eta Maria Jakobe.
Dugun lauda, dugun lauda,
Dugun lauda, dugun lauda.

Emazteak hurbiltzean,
Aingeruek zuten erran
Jesus zela Galilean.
Dugun lauda...

Thonbaren aitzineraño
Piarres saindua baño
Joan zen Joannes lasterrago.
Dugun lauda...

Jesus ediren zenean
Apostoluen artean,
«Duzuen bake» ziotsan.
Alleluia...

Diszipuluak entzunik
Nausia zela bizirik,
Egotu zen dudaturik.
Dugun lauda...

Tomas, zioen Nausiak,
Ikhuskik ene zauriak,
Eta utz duda guziak.
Dugun lauda...

Jesus ikhusi ondoan,
 Diszipuluak ziotzan:
 Ene Jaun, ene Jainkoa!
 Alleluia...

Dohatsua duk presuna
 Ni ikhusi ez nauena,
 Eta sinhetsi duena.
 Alleluia...

Jesus dela bedinkatu,
 Laudatu eta maitatu:
 Dela bethi ohoratu.
 Dugun lauda...

Demogun esker debotki,
 Bethi ohore humilki,
 Eta gloria handizki.
 Dugun lauda, dugun lauda.
 Dugun lauda, dugun lauda.

Jesus-Kristo gure Salbatzaille Jaunaren besta-buruak

Abendoa

Zerua, isur diezaguk
 Gure arimen ihintza:
 Ikhi zaite hedoiatarik,
 Gure Kapitain borthitza.

Lurra, idekak bihotzetik
 Hire ontasan joria;
 Munduari emanen diok
 Salbatzaille Jaun handia.

Natibitatea

Zure ethortze dohatsuak,
 Salbatzaille dibinoa,
 Ekhartzen diote bihotzei
 Zeruko bozkarioa.

Ala guk bihotz dohatsuak!
 Baldin zure manyatera
 Egiten bada gure hutsen
 Ehortzeko sepultura.

Zirkunzisionea

Hasten zare, Salbatzaillea,
 Gure zaurien sendatzen;
 Hargatik duzu zaiñetarik
 Zure odola isurtzen.

Huna, urthe berria ere,
 Berriz da hasten berritzen;
 Haurra, has zaite zure penez
 Gure bihotzen zeuretzen.

Trufania

Hirur Prinze humillen balsan,
 O gustien Erregea,
 Ofritzen darotzut humilki
 Nik zuri zor ohorea.

Othoitzak ditut inzensutzat,
 Pena gustiak mirratzat,
 Eta gustiz zuretzat dudan
 Amudioa, urretzat.

Anunziazionea

Eguna, hire dohatsua!
 Lurrera Jainko Handia
 Zerutik jausten baita egun,
 Utzirik bere gloria.

Amudio dibinoak dik
 Gure gaiña jautsarazi
 Eta munduan sekulakotz
 Jainkoa gizon formarazi.

Ortzirale Saindua

Egun Saindu triste huntan
Guretzat egun onean,
Salbatzaillea hil izan da
Gurutzearen gainean.

Amudiozki sofritu du
Guk sofritu behar penak,
Guri nahiz komunikatu
Gloriako ontasunak.

Bazko

Jesusek Bazko egunean
Erakusten du gloria:
Hilrik herioa, egun du
Irabazi biktoria.

Eternitate dohatsuko
Iguzki bethi argia!
Zure arraiez egun duzu
Argitzen egun berria.

Aszensionea

Hautsi tutzu gure etsaiak,
Jesus gerlari noblea,
Eta bazoaz gloriara,
Gloriako Erregea.

Ah, zer gorthe ederrarekiñ
Joaten zare bolaturik!
Noiz zaituzte gure bihotzek
Segituko saindaturik?

Pentekoste

Aitaren eta Semearen
Amudiozko Presuna:
Huna, heldu da konplitzera
Misterio nobleena.

Behiñ suzko mihi argiez
Erre nahi tu gorphutzak,
Gero zeruko su sainduez
Nahi tu erre bihotzak.

Trinitatea

Aita eta Spiritu Saindu,
Seme adoragarria!
Eztire Jainko Jaun bat baizen,
Gauzaren miragarria!

Hirur Presuna dibinoak
Dirade Trinitatea,
Eta hirurek berek, bera
Dute dibinitatea.

Besta berri

Ohora zagun misterio
Eziñ erran daitekena;
Prepara diozogun ponpa
Posible den ederrena.

Zato, Sakramendu handia,
Egun gloriuz bethean;
Ceuretzatu gure bihotzak
Triunfa handiengan.

Jesusen izen sainduaren letharinak

JAUNA,urrikal gakizkitzu.
JESUS-KRISTO, urrikal gakizkitzu.
JAUNA, urrikal gakizkitzu.
JESUS-KRISTO, urrikal gakizkitzu.

Zeruko Aita, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
Semea, munduaren Salbatzaillea, zeña baitzare Jainkoa, urrikal...

Spiritu Saindua, zeïña baitzare Jainkoa, urrikal...
 Trinitate Saindua, zeïña baitzare Jainkoa, urrikal...
 Jesus, Jainko biziaren Semea, urrikal...
 Jesus, argi eternalaren Argia, urrikal...
 Jesus, gloriako Erregea, urrikal...
 Jesus, justiziaren Iguzkia, urrikal...
 Jesus, Birjiña Mariaren Semea, urrikal...
 Jesus, admiragarria, urrikal...
 Jesus, heldu den mendearen Aita, urrikal...
 Jesus, konseillu handiko Aingerua, urrikal...
 Jesus, gustiz puxanta, urrikal...
 Jesus, gustiz pazienta, urrikal...
 Jesus, gustiz obediencia, urrikal...
 Jesus, emea eta bildots humilla, urrikal...
 Jesus, kastitatearen maitatzaillea, urrikal...
 Jesus, gure maitatzaillea, urrikal...
 Jesus, bakearen Jainkoa, urrikal...
 Jesus, Bizitzearen Prinzipioa, urrikal...
 Jesus, berthuteen eksenplua, urrikal...
 Jesus, arimen zeloa duzuna, urrikal...
 Jesus, gure Jainkoa, urrikal...
 Jesus, gure ihezlekhua, urrikal...
 Jesus, paubreen Aita, urrikal...
 Jesus, fidelen tresora, urrikal...
 Jesus, Arzain ona, urrikal...
 Jesus, egiazko Argia, urrikal...
 Jesus, Zuhurtzia eternala, urrikal...
 Jesus, ontasun infinitoa, urrikal...
 Jesus, gure Bidea eta gure Bizitzea, urrikal...
 Jesus, Aingeruen Bozkaria, urrikal...
 Jesus, Apostoluen Nausia, urrikal...
 Jesus, Ebanjelisten Doktora, urrikal...
 Jesus, Martiren botherea, urrikal...
 Jesus, Kofesoren Argia, urrikal...
 Jesus, Birjinen xahutasuna, urrikal...
 Jesus, Saindu gustien Koroa, urrikal...
 Fabora gaitzatu, barkha diezaguzu, Jauna
 Fabora gaitzatu, barkha diezaguzu, Jesus
 Fabora gaitzatu, entzun gaitzatu, Jesus.
 Jesus, begira gaitzatu gaitz gustietarik. Begira gaitzatu, Jesus.
 Behkatu gustietarik, begira gaitzatu, Jesus.
 Zure koleratik, begira gaitzatu...
 Heriotze supitu eta ustekabekotik, begira...
 Deabruen enboskadetarik, begira...

Fornikaziñoaren espiritutik, begira...
 Sekulako heriotzetik, begira...
 Zure inspiraziñoen kitatzetik, begira...
 Zure Inkarnazioneko misterioaz, begira...
 Zure sortzeaz, begira...
 Zure haurtasunaz, begira...
 Zure bizitze guziz dibinoaz, begira...
 Zure trabailluaz, begira...
 Zure Agoniaz eta zure Pasioneaz, begira...
 Zure Gurutzeaz eta zure Utzteaz, begira...
 Zure Hersturaz, begira...
 Zure Heriotzeaz eta zure Sepulturaz, begira...
 Zure Reurrekzionaaz, begira...
 Zure Aszensioneaz, begira...
 Zure Bozkarioez, begira...
 Zure Gloriaz, begira...

Jainkoaren bildotsa, zeñak khentzen baitutzu munduko bekhatuak,
barkha diezaguzu, Jesus.

Jainkoaren bildotsa, zeñak khentzen baitutzu munduko bekhatuak,
entzun gaitzatzu, Jesus.

Jainkoaren bildotsa, zeñak khentzen baitutzu munduko bekhatuak,
urrikal gakizkitzu, Jesus.

Jesus, adi gaitzatzu,
Jesus, entzun gaitzatzu.

Othoitz egigun

Jesus-Kristo gure Jauna, zeñak erran baituzu: «Galdegizue eta errezi-bituko duzue, bilha zazue eta edirenen duzue, pusa zazue eta idekiko zaitzue»: othoitzten zaitugu galdegiten darotzugunei emateaz zure amudio guziz dibinoaren fruitua, gure bihotzaz, gure aho eta obra guziez maita zaitzagun, eta zure laudorioen erratetik sekulan ixil ez gaiten.

Fabora gaitzatzu izatekotzat zure Humanitate, Dibinitate berarekiñ bat egiñ denaren beldurtasuna, eta halaber amudio bethierekoa; ezpaitutzu zure gobernutik sekulan utzten zure amudioaren fermutasunean hartzen tutzuna: zeña bizi eta Jainko Jaun baitzare Aita eta Spiritu Sainduarekiñ mende gustien hedadura luzean. Halabiz.

III. Partea
KONFESIONEA ETA ALDAREKO
SAKRAMENDU SAINDUA

PENITENTZIA SAINDUA: konfesioea

Hirur parte ditu Sakramendu Saindu hunek: 1) Kontrizioea; 2) Konfesioea, eta 3) Satisfakzioea. Kontrizioea da urrikitzea, zeren displazer egiñ diogun Jainkoari bekhatez; guziz ona eta guziz maitagarria delarik. Konfesioea da, absolbitzeko autoritate duen aphezari sekretuan bere bekhatu gustiez akusatzea. Satisfakzioea da bekhatoeari ordenatzen zaion penitentiaren konplitea.

Konfesioean klarki erran behar dire bekhatu gustiak, bat ere estali gabe. Satisfakzioean, osoki konplitu behar da penitentzia. Hautzaz biez eztugu deus erranen, errexak baitire. Bañan bai doloreaz.

Bi dolore suerte dire: atrizioea eta kontrizioea. Kontrizioea perfekta da, emaiten baitu arima Jainkoaren grazian; atrizioea inperfekta da, ezpaitu ematen arima grazian, sakramenduaz kanpoan. Kontrizioea duenak damu du Jainkoaren amorekatik, eta hari eman dioen displazera dela kausa; atrizioea duenak damu du bere amorekatik, eta zeren galdu duen paradisua, edo merezi ifernua.

Dolore hautzaz baliatzeko, behar da izan resoluzioe fermu bat, sekulan ez egiteko bertze bekhaturik gehiago. Bertzela, Jainkoaz trufatzea eta sakrilejio egitea lizate. Ikhuskigun eksenpluak nola egiten den atrizioea, eta nola kontrizioea; bañan lehenbizirik ikhus-agun Jainkoaren kolera bekhatoearen kontra, bekhatusa dela kausa.

Justizia dibinoa koleran

Justuak dirade, justuak,
Jauna, zure sententziak;
Gu urrikari izateaz
Ala zuk plazer handiak!

Bañan gaxtoegi izan naiz,
Niri orai barkhatzeko;
Zure justizia justua
Hagitz leiteke zaurthuko.

Egia da, ô Jongoikoa,
Ene bekhatu handiak
Merezi du ene gaiñean
Egotz-tzatzun su gustiak.

Zure ohoreaz doatzu
Ni ez hartzeaz zeruan,
Galdez dagotzu justizia
Noiz naiteken infernuan.

Hunen nahia kunpli zazu
Justua denaz gerostik;
Sumin zaite ene nigarrez
Zuretzat izanagatik.

Eraġutskitzu ene kontra
Tromenta harrigarriak,
Ene gaiñera lantzatzatu
Zerutik ihortziriak.

Gerla gerlari egiozu,
Orai da, beraz, denbora;
Armak hartatzu, kolerari
Erakutsozu kolera.

Adoratzen tut humilki
Ni punitzen nauzunean.
Damnatzean haiñ ungi zare,
Jainko, nola salbatzean.

Bañan pena dut, ez ttipia,
Zureganik jakiteko;
Aithortzen darotzut, eztakit
Nola nauzun punituko.

Non pausatuko darotazu
Zerutik ihortziria?
Estali nau zure Semeak
Bere odolaz gustia.

Beraz nahi banauzu
Zure koleran punitu,
Lehenbizirik behar duzu
Zure Semea kolpatu.

Dialoga bekhatorearen eta justuaren artean

B. Egiñ da resoluziñoa,
Utziko dut bekhatua;
Penitentzia egiñen dut,
Obedituko zerua.

J. Deliberaziño ilhuna!
Esparantza lastozkoa?
Noiz izanen dela uste duk
Hire azken mementoa?

B. Nigar egiten duenari
Barkhatzen dio Jainkoak;
Bertzela eztire promes hauk
Haren promes dibinoak.

J. Nigarrek ungi egiteko,
harzak egungo eguna,
Ezpaitio Jainkoak promes
Nihori biharamuna.

- B. Egiñ behar denaz gerostik
Nahi dut ungi pensatu,
Denbora astiro harturik,
Ungi nahi dut konplitu.
- J. Erhoa, halako gloria
Hik uste parabisuan?
Eta bitartean utzten duk
Benturaren hirriskuan?
- B. Utziko dut oso osoki
Bekhatuaren bidea,
Eta segituko dut gero
Berthutearen xedea.
- J. Fazoñ huntan penitentzia
Bethi urruntzen dukela,
Eztuken denboran uste duk
Saindu egiñen aizela?
- B. Plazer ilhaunek darotate
Bihotz gustia xarmatzen,
Hautarik eziñ apartatuz
Hunela naiz amarratzen.
- J. Urrun adi lehenbailehen
Eta horien lekuan,
Jainkoa nausi egiñen zaik
Hire bihotz dohatsuan!
- B. Nola usantza gaitzek tusten
Flakatzen gure indarrak!
Zerk desegiñ othe detzake
Haukien gathe gogorrak?
- J. Ene ondikoa! Ondiko
Posible den handiena;
Inposible da utz dezadan
Ene gathibotasuna!
- B. O Salbatzaille Jauna, zato,
Zato ene laguntzera.
Gustien salbatzaille ona,
Zato ene libratzera!
- J. Halako mendi itsusian
Mendi tromentez bethean
Amudioak hil zintuen
Itzaturik Gurutzean.
- B. Higuñaraz dietzadatzu
Munduko xarma emeak,
Eta porroka bihotzean
Bekhatuaren gatheak.
- J. Zuk, Jauna, zuk xarmatzen nauzu
Zeruko xarma puxantez;
Hautsiko tut fiñean sokak
Ifernuaren despitez.
- B. Eztire deus enetzat orai
Ene plazerak munduan,
Bethikotz egiñ zaizkit Jesus
Nausi ene bihotzean.
- J. Mundua, ô mundu itsua!
O handitasun ezdeusak!
Sensuen atsegiñ ilhunak,
O Aberastasun eskasak!
- B. Bazoazte arinkiago
Ezen ez xirripan ura;
Nola beraz zaitutet zuek
Maitatu hanbat denbora!
- J. Bañan zu aspaldion zaren
On eder eta berria!
Nola hunen berant darotzut
Eman arima gustia!
- B. Nik zure kharrez behar nuen
Erre ene egunetan;
Ezperen maitatuko zaitut
Gaiñerako denboretan.
- J. Su sainduak errerik, utzkik
Munduko sendimenduak,
Eta hartzak doluz zaarthurik
Zeruko mobimenduak.

B. Ah, bai utzten tut bekhatuak,
O Jesus orai beretik,
Hautsten tut sokak, egonen naiz
Doluz bethi zuregatik.

J. Horra jadanik segitzen dik
Gloriak hire dolua,
Hire gatheak desegiñik
Ematen darok zerua.

B. Emok dolore sailduari
Hire bizitze gustia;
Hire nigarrek hillen die
Ifernuko khar handia.

Bekhatoreak kitatzen du bekhatua

Ingratki ofensatu zaitut
O Jainko guziz maitea.
Damu dut; ikhus-azu, Aita,
Ikhus ene dolorea.

Milla eta milla herio
Lehen ditut sofrituko
Ezen ez deusik zure kontra
Behin ere pensatuko.

Entzun nazazu zuregatik
Auhenez nola nagoen.
Entzun ene bihotz humillak
Nola desira zaituen.

Sekulakotz utzten dut beraz
Ene usantza gaxtoa,
Zu bethi-ere maitatzeko,
Zeruetako Jainkoa.

Gogotik nigar egiñen dut,
Egiñen penitenzia,
Eta utziko sekulakotz
Bizitze gaxto guzia.

Maitatu nauzu bethi-ere,
O Trinitate handia!
Zure maitatzen enplagatu
Nahi dut bihotz gustia.

Atrizionea

Nola egin behar den

Majestate izigarria!
Gustien juje justua!
Ikharaz nago zuregatik,
Doloreak harrtua!

Helas! Bai ifernuko kharrak
Gustia nau arraillatzen;
Arima galtzeko beldurrez,
Nigarretan nau hondatzen.

Dolu dut ene bekhatuez,
Transitzen nau ifernuak;
Ifernurat egortzen tuen
Ihortziria soiñuak.

Bekhatuek hunela naute
Parabisutik urrundu,
Eta ifernuko tromenta
Handietara hurbildu.

Kontrizioea*Nola egin behar den*

Nigarrez nago ikhususirik
Ene falten beltztasuna,
Eta ikhususirik halaber,
Aita, zure ontasuna.

Egia da, tarrantatu dut
Zure kolera justua;
Zure besoa armatu dut,
O juje ofensatua!

Hala ere hau ezta pena
Ene pena handiena,
Bañan bai zeren zu zaitudan
Tristetu, ene Jaun ona.

Bertzea

Ikhus azu, zeruko Aita,
Ene dolore handia.
Bai, zu zerori egiñ zare
Ene miñen ithurria.

Ene kontra kolera zaitte,
Puni nadin gehiago;
Biziko da ene arima
Geroago sailduago.

Edo dadilla bethi bizi
Egiazko beldurrean;
Edo ezperen hil dadilla
Orai duen dolorean.

Bertzea

Jainko handia, ageri da
Zeiñ hagitz nauzun maitatu,
Anbat milla pena baituzu
Eneगतिकान hautatu.

Aita, nik zuri amudio
Behar bidean bihurtu,
Zenbat milla egiñ darotzut
Desplazer eta afruntu!

Bertzea

Kalma zazu, Jaun ona, kalma
Zure kolera justua.
Erdiratzen naiz aditzeaz
Nik merezi gaztigua.

Zureganik urrundu banau
Bekhatu dohakabeak,
Bederen hurbiltzen banindu
Bihotzeko doloreak!

Bertzea

Eztut, Jauna, eztut bihotzik
Begien idekizeko;
Gutiago dut, bada, Aita,
Zuregana altxatxeko.

Merezi ditut zure suak,
Ni naiz hobendun handia.
Ah, nik frogatu behar nuke
Zure kolera gustia.

Hil behar dut, eziñ nagoke
Zeren zaitudan tristetu!
Ez naiz Jainkoaren semea,
Zure kontra naiz altxatu.

Ah, nolako pena nik duduan
Ene baithan pensatzean,
Hanbat pekhatu detzadala
Egiñ zure aitzinean!

Kontrizioea anplekiago deklaratu

*Gurutzearen aitziñeanbekhatorea
dolorez eta amudioz zaurthua*

Gizonen eta aingeruan
Errege eta Jainkoa,
Posible diren on gustien
Itsaso egiazkoa!

Ah, Jesus, indaitzu, beraz,
Dolore, herra handiak,
Munduan diren bekhatuek
Merezi tusten gustiak.

Zu zara gustien Prinzea
Eta zu Majestatea,
Gure bihotzen gozatzeko,
Zu on guziz kapablea.

Ah, segur, Jauna ez lizate
Zure ungi maitatzea
Egun oroz egiten diren
Hobenez ez tristetzea.

Arren, egiñ diezadazu
Nahi zinduken bihotz bat,
Zuregatan sofritzeko
Zuk plazer duzun bezanbat.

O gure amudio maite,
Gure on, gure gloria,
Majestate infinitua,
Jainko adoragarria:

Oraiño desiratzen nuke
Nuen ene dolorea,
Zeren zu tristetu zaitudan,
Ah, Jainko guziz maitea!

Ez othe ninzate sekulan
Haiñ dohatsu gerthaturen,
Non bekhatuen khasatzeko
Bizia bainuke emaren!

Bethi desplazer nahi nuke
Zuri egiñ desplazerez;
Eta tristezia osoa
Zuri eman tristeziez.

Segur egiazki darotzut,
Ene jauna, deklaraten,
Belhauriko eta bihotzez
Aitziñean prometatzen.

Nahi nuke bethi pairatu
Bihotzean agonia,
Eta dolorez akhabatu
Ene bizitze guzia.

Baldin banitu milla bizi
Lehen nituzke emaren
Ezen zu arinki ere
Sekulan ofensaturen.

Ezpazindu zerurik ere
Zure adiskideentzat
Eta ifernurik ezpalitz
Bekhatore etsaentzat;

Beraz prometatzen darotzut
Ahalaren egiteko,
Zure moianez huts gustiak
Ditudala kitatuko.

Hala ere sofritu bethi
Nahi nuke zuregatik,
Bethi sofritu, Jauna zuri
Plazer egiteagatik.

Fabore hunen galdetzeko,
Lagundu nauzu graziaz:
Lagun zakizkit konplitzeko
Behar den indar guziaz.

Badakit eztuzula nahi
Bekhatorea hil dadiñ;
Bañan utz dezan bekhatua
Eta ungi bizi dadiñ;

Promes darotzut gehiago
Konfesatuko naizela,
Aphezari falta gustiak
Erranen diotzadala.

Helas, Jauna! Helas Jainkoa!
Bihotzez ditut hartuko
Ordenatuko tutzun penak,
Amudioz konplitzeko.

Izanen da ene plazera
Ethorriko den denboran,
Biziko bainaiz, zuri egiñ
Desplazerez desplazeran.

Besarkatuko tut posible
Diren dolore gustiak:
Inposible direnak ere
Izanen zaizkit ttipiak.

Ah bai! Zu nahi zaitut, Jesus,
Hartu ene eksenplutzat;
Zure miñ eta doloreak
Ene gustien mirailtzat.

Egiñ zauzkitzun afruntuak
Emanen tut bihotzean,
Hil eta bizi egoteko
Zurekien Gurutzean.

Bekhatoreak hartu nahi du bizitze ona

Eztarot dolorerik baizen
Ene bihotzak ematen,
Eta ez ene bi begiek
Nigarrik baizen egiten.

Bañan trabatu izan zuen
Bidean horma gogorrak,
Urean ziren holatx pillez
Egiñik gathe amarrak.

Jauna, haiñ tromenta kruelak
Naute bethi erdiratzen!
Arren, beraz lagun zakizkit
Haukien aphazegatzen.

Beira zegokan iguzkia,
Bere tronuan jarririk,
Eta kexatu izatu zen
Ura preso ikhusirik.

Egiñagatik ene hutsez
Munduko auhen tristeak,
Zuk baizen nihork eztetzake
Senda ene doloreak.

Horma hotza (suan bezala)
Arraien klartasunean,
Berotu eta urtu zuen,
Libro largatu bidean.

Ezen hanbat miñ sofriturik
Bethi nago doloretan,
Nahasten baizen ez naiz bethi
Bethi pairatu ondoan.

Bihotza hala zihoatan
Xirripa ziduriela,
Zeruko itsaso handia
Atzeman behar zuela.

Laster zihoan xirripa bat
Itsasoaren aldera,
Bere jaidurak baitzaraman
Bere zentro propiora;

Bañan, ah, ene bihotzari
Trabatu nahiz kursua,
Bekhatuak (negu kruelak)
Hil zioen bere sua.

Urrundu zen Jainkoaganik
Galdurik bide saildua,
Hotzak trenkaturik zegoen
Ezin kausituz zerua.

Itzuliko darozkidatzu
Bi ithurri ederretan,
Zuregana nabigatzeko
Bi itsaso sailduetan.

Salbatzaille Jauna, zu zare
Gure arimen argia,
Zu ethortzen zare mundura,
Munduaren iguzkia.

Izanen da zure odola
Gure itsaso gorria;
Han barrena dut hondatuko
Ene bihotz egarria.

Arren, idekitzatzu beraz
Zure bi begi eztiak,
Eta sendatuko ditutzu
Ene dolore gustiak.

Alferrik zaizkit mariñelak
Laguntzera ethorriko;
Ithoko nauen elementa
Milletan dut laudatuko.

Bekhatuak hotztu bihotz hau
Erdira diezadazu;
Idorrak ditut bi begiak,
Urtan ganbia detzatzu.

Izanen da ene untzia
Ur huntan zure habea,
Ene belak zuk zure thonban
Izatu hil-mihisea;

Pillotutzat zure grazia,
Zure gloria haizetzat,
Ama izar, Jainkoa tresor,
Bien Semea portutzat.

Bekhatorea manyateraren eta gurutzearen erdian

Nahi baduk ungi maitatu
Jesusen lege dulzea,
Maitazak haren manyatera
eta maita Gurutzeara.

Arima, beraz nahi baduk
Bizi sosegu handian,
Beirauk ez ilkhi, ago bethi
Hekien bien erdian.

Manyateran irakasten dik
Jesusen inozentzia;
Gurutzearan dik predikatzen
Jesusen penitentzia.

Amudioak hire penak
Darozkik ganbiatuko,
Eta dolore dibinoak
Milla xarmez xarmatuko.

Jesu-Kristok abisu ematen dio penitentari

Sekulan ezakela segi
Bekhatuen gutizia,
Karitatea begirazak,
Ez gal nik emon grazia.

Arrazoiña dukek orduan
Osoki hire nausia,
Eta arrazoiñaren nausi
Zeruko Jainko Handia.

Egik beraz ahal dagiken
Obra saindu tenporala,
Eta bethi konplituko duk
Nik nahi dudan bezala.

Xoil tuk hagitz preziatuki
Mementoak enplegatzen,
Noiz ere baita zeruetan
Oraziñoa agertzen.

Penitentak

Zure plazera da, ô Jauna,
Gizonak duen gloria;
Hori da bada mundu huntan
Nik nahi dudan gustia.

Jainkoari altxa diozok
Hire bihotza obretan,
Mahaiñean, etxean, landan,
Eta lekhu guzietan.

Hori da orai eta bethi
Desira dudan desira,
Ea noiz konplituko dudan,
Jainkoa, zure plazera.

Bethi ere ofri diozok
Gorphutza eta gogoia;
Hiretzat dukek ontasuna,
Harentzat bozkarioa.

Jainkoak

Bethi hartuko duk denbora
Othoitz onen egiteko;
Othoitzak behar darok eman
Hire denbora eskuko.

Fiñean hire obrak dituk
Fletxen gisa bolatuko,
Eta ziotek Jainkoari
Bere bihotza zaurthuko.

Bertze abisua

Nahi baduk hire miñentzat
Erremedio ezta,
Athor hunat; errezibi zak
Debotki Eukakristia.

Hire ogia denaz gero,
Egik hire janharia;
Emanen dik hire ariman
Bizitze miragarria.

Orduan darok garbituko
Haragi hunek gorphutza;
Baita hunen odolak ere
Eder egiñen bihotza.

Preparazionea sakramendu sainduaren errezibitzeko.**Aldareko Eukaristia dibinoa, Gure jaunaren obra.***Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joan, 13.*

Amudio dibinoaren
Espantu miragarria!
parabisua da lurrean,
Gau ilhunean argia.

Eztik egiñen gehiago
Lurraren kontra gerlarik,
Bethi ere egonen dituk
Elkharrekiñ baketurik.

O amudio! O bothere?
Ala zuk indar handia!
Hostian barna eman duzu
Ihortzirien Nausia!

O Jaun! O Prinze! O Errege!
O biktorios noblea!
Aldarean estali duzu
Jainko bat paregabea.

Hurbil zaitezte, beraz, jende
Munduan diren gustiak,
Zuek Prinze maiteganik
Hartzeko lege eztiak.

Zuek ere zatozte hunat,
Arima xahu maiteak;
Baratze eder gustietan
Bil detzatzue loreak.

Zoazkigute urrun, nigarrak,
Eta urrun tristezia;
Zerua utzirik ziagok
Bere kolera guzia.

Behar duzue koroatu
Amudiozko hostia,
Zuen janhari egin baita
Ihortzirien Nausia.

O Amudio! o bothere!
Zer da zu bezalakoa?
Hostian barnan eman duzu
Zeruetako Jainkoa!

Salbatzaileak gizonei ematen diote jatera bere gorputza

Huna, erran izatu zuen,
Ene gorputz sakratua,
Zuentzat eta hañitzentzat
Amudioz zathitua.

Ihardets biozo giristiñoak

Eskuan bihotza harturik,
O Jesus, Huna ogia,
Zuretzat eta zuregatik
Osoki doluz zaurthua.

**Sakramendu sailduaren gainean
Saint Tomas doktoraren prosa:**

Lauda, Sion, Salvatorem

Eliza, zure artzaiña,
Salbatzaille kapitaiña
Lauda zazu handizki.

Eskuak eztu ukitzen,
Begiek ez ezagutzen,
Fedea da argia.

Egiñ-agatik nahia
Laudatzeko Jaun handia,
Ez daikezu osoki.

Akzident diferentetan
Eta ez substanzietan
Dago tresor handia.

Zure kanten materia
Har zazu ogi bizia,
Banketik gozoena.

Odola da kalitzean,
Gorphutza ogi ordean,
Banatan Jaun handia.

Hau zuenean sakratu,
Bera izan zen ofritu.
Dohañik handiena.

Ezta gorphutza zathitzen,
Odola ezta partitzen,
Bañan daude osorik.

Altxa zazu gora boza
Eta zaite ungi goza
Ogi hunen laudatzen.

Millei zaie zerbitzatzen,
Batek haiñbertze du hartzen,
Deus ez gutiagorik.

Lehen eman ontasunak
Hemen ditu Jesus Jaunak
Orai berriz berritzen.

Ogi bera dute onek
Eta bera hobendunek
Mahaiñ berean hartzen.

Hemen Errege berriak
Bazko zahar joan gustiak
Berrietan trukatzten.

Bañan onek bizitzea,
Gaxtoek heriotzea
Diferentki kausitzen.

Itzal hutsa du egiak,
Gau ilhuna iguzkiak
Ondotikan segitzen.

Hostia denean hausten,
Oso da Jesus egoten
Parte ttipiñean.

Manatzen du Jesus Jaunak
Afaritan eman onak
Ofrenda diotzogun.

Figurak dire ukitzen,
Gauzak ez tire guttitzen
Bere estatu barnean.

Bere gorphutz sakratua
Eta odol peziatua
Konsekra diotzogun.

Hau da haurren janharia,
Hau Aingeruen ogia,
Eta ez ozarrena.

Odol saildu, du erraten,
Arnoa dela egiten,
Gorphutz saildu ogia.

Isaak hau zen gurutzatu,
Bildots hau sakrifikatu,
Hau da Kristauen manna.

Ah, ogi egiazkoa!
Artzaiñ amudiokoa!
Har gaitzatzu grazian.

O Jainko puxant zarena,
Gustiak dakizkitzuna,
zaren gure koroa.

Arren, iguzu indarra,
Zure bisaia ederra,
Ikhusteko glorian.

Zaren zeruko gorthean,
Zure mahaiñ ederrean
Gure bozkarioa.

Halabiz.

Mahain saindura ethorri baño lehen konsiderazionea

Grazia hau zer grazia da,
Helas, gure Jainko Jauna!
Zureganik hartzen baitugu
Hunelako ontasuna.

Zer du xixari ezdeus batek
Bere baithan, zer grazia?
Merezitzeko zureganik
hau bezalako gloria?

Xixari txarrei daroezu
Kreatu mundu handia,
eta diozute bazkatzat
Eman zure haragia.

Ogi bat zaio aitziañera
Ohorezki zerbitzatzan,
Zeiña aingeru bati ere
Ezpaiztaio presentatzan.

Zure amudio sainduak
Hau zuenean pensatu,
Nork ahal zukèn egundaiño
Bihotzean desiratu?

Manatzen nauzu jan dezadan
Aldarean den Jainkoa,
Zure formara formatzeko
Ene arima flakoa.

Hala hau delarik, gaitutzu
Herioaz mehatxatzen,
Ezpagare banket dibino
Bizi huntara ethortzen.

Goazen, beraz, gure arimek
Hemen die janharia,
Jainko Jaunak berak emanik
Jainko baten haragia.

Mahain sainduaren aitziañean deboziora

Fedea

Siñhesten dut, Jesus Jainkoa,
Zure haragi garbia
Aldarean egin duzula
Zure haurren janharia.

Erran duzu, beraz hala da,
Ezen egia zara zu;
Zure Gorphutza estalirik
Mahaiñ huntan utzi duzu.

Jauna, adoratzan dut beraz
Zure Gorphutza hostian,
Eta zure odol saindua
Arnoaren idurian.

Hau zuten lehen Erregek,
Artzaiñek hau adoratu;
Lasto gaiñean hau etzan zen,
Hau Gurutzean itzatu.

Desira

Bildots Jauna, zure odolaz
Egiñ duzu ithurria,
Falta gustiez xahutzeko
Gure mundu itsusia.

Ah, beraz zato, garbi zazu,
Jesus Jainko Jaun ederra,
Garbi zazu odol hunetan
Ene arima beharra...

Humilitatea

Enegana, othoi, ez hurbil
Ez naiz ni diñe, ô Jauna!
Handirik bada mundu huntan,
Helas, ni naiz hobenduna.

Asko duzu zuk manatzea,
Asko hitz bat erratea;
Berehala ethorriko zait
Ene ontasun maitea.

Othoitza

Jauna, zerorrek darotazu
Tresor handi hau partitzen.
Ah, ene bihotza bazindu
Zure graziez bethetzen!

Eder nazazu amudioz,
Banintz bezala urrea;
Egidazu zure dohaiñez
Bihotzean aldarea.

Dolorezko errespetua

Dolorez eta errespetuz
Urthuko naiz zuregatik;
Egiñen tut nigar handiak
Ene bekhatuengatik.

Bai, nigar bethi egiñen dut
Bihotzaren xahutzeko,
Khenduko ditut bekhatuak
Zu garbiki emateko.

Errezibitzeko denboran konsiderazionea

Nola preparatu behar dut
Hartzeko Jesus debotki:
Ezta deus gure munduan
Ematen denik osoki.

Prinze bati eman zaio
Armada baten kargua;
Emanen zaio bertze bati
Hiri baten gobernua.

Izanen tuste bertze jaunek
Zeiñek bere Probintziak;
Bañan eztitu nihork ere
Kolpez ontasun gustiak.

Sakramendu sainduan Jesus
Osoki da edireten,
Eta partitu gabe zaiku
Oso osoa ematen.

Zer eztat beraz egiñ behar
Jaun hunen ohoratzeko,
Utzi nahi tut deus gustiak,
Jesus, zure maitatzeko.

Admirazionea

Ah, nik egun zer ohorea!
Ene ahoan da sartzen,
Ukitzen du ene mihiak,
Ene bihotzak sentitzen!

Giristiñoa, entzun ezak
Espantu harritzekoa:
Zerbitzari humil, paubreak,
Jaten dik bere Jainkoa!

Ohorea

Beraz, Jainko Jauna egin zait
Anaia miragarria!
Bañan egin zait gehiago,
Egiñ baitzait janharria.

Aingeruen ogi bizia
Gizonak du ohoratzen,
Adoratzen du, laudatzen du
Eta du errezeitzen.

Amudioa

Janhari gozo dibinoa,
Ontasun miragarria,
Arimen present dohatsua,
Espos adoraragarria.

Salbatzaillea, entzun-azu:
Ni gustia naiz zurea;
Bañan oraiño adi zazu:
Gustia zare enea.

**Mahain sainduan salbatzaillea
errezeitu ondoan**

Nunc dimitis servum tuum...

Pagurik orai utzten nauzu,
Ene Jainko on handia;
Orai nauzu kontent egortzen
Zure esklabo ttipia.

Ene mihiak egiñ duzu
Zure jartzeko tronua;
Egin duzu ene bihotzaz
Plazer hartzeko zerua.

Jainkoa, ikhusi zaituzte
Egun ene bi begiek,
Ohore hau ez zuten izan
Hil diren zerbitzariak.

Nik dut izatu handiago
Grazia ene ahoan,
Ezen ez Salomon Erregek
Bere tenplu dibinoan.

Bortz milla urthez desiratu
Ontasun miragarria
Ageri da egun munduan
Gustien Jainkoa handia.

Zu ziñen zure ahaiden
Ontasun handi bakarra;
Ene ariman egun zauntza,
Ah, graziaren ederra!

Iguzkiak berotuz geroz
Ene arimako hotza,
Gau ilhuna kasaturikan,
Argituz geroz bihotza,

Hagitz joanen naiz xuxenago
Ezen ez jende joan dena:
Hek itzala segitu zuten,
Nik itzalaren eguna.

Gloria, puxantza, ontasun
 Duela Aita handiak,
 Espiritu Sainduarekiñ
 Seme adorarriak.

Nola ere izan baitute
 Haste gabe den hastean,
 Dutela orai eta bethi
 Bere eternitatean.

Halabiz.

Salbatzaillea doktor egiten da bihotzean

Berbo haragi dibinoak,
 Zuhurtzia Jainko denak,
 Bere argiz argitzen tik
 Zuen arima ilhunak.

Helas, Jainkoa, mintza zait
 Eta konsola detzatzu;
 Harturik aire dibino bat
 Eskolatu behar tutzu.

Ah, tresor handia! Heldu duk
 Zuen miñen sendatzera,
 Eta zuen bihotzekien
 Amulsuki mintzatzera.

Irakatsiko daroezu
 Zure lege eternala;
 Zaren, beraz, hekiñ doktora,
 Jainkoa zaren bezala.

Errezibitzen duena bat egiten da Jesusekiñ

Anima Chisti, sanctifica me.

Arren, Saindu egiñ nazazu,
 Jesus onaren bihotza;
 Halaber zuk salba nazazu,
 Jesus Jaunaren gorphutza.

Zure zauri dibinoetan
 Iduk nazazu gorderik,
 Eta iduk zure haragi
 Sakratuan estalirik.

Ase zazu zure odolaz,
 Jesus, ene egarria;
 Xahu nazazu, ur Jesusek
 Sahetsetik isuria.

Ez nazazula zureganik,
 Jesus, utz apartatzera,
 Eror ez nadin ene etsai
 Krueken eskuetara.

Jesus, enetzat hil zarena,
 Indazu zure indarra,
 Eta, othoi, entzun nazazu,
 O ene Jesus ederra.

Ah, deit nazazu zuregan
 Heriotzeko orduan,
 Eta, Jauna, mana nazazu
 Ikhus zaitzadan zeruan.

Egidazu, beraz, grazia
 Parabisuan sartzeko,
 Han bethi dohatsuen balsan
 Kantuz zure laudatzeko.

Jesu-Kristoren aldare egiten da errezibitzen duena

Jesus, ene ariman barna
Aldare bat egidazu
Eta hostia sakratua
Han pausa diezadazu.

Zure odolaz egidazu
Ithurri bat bihotzean,
Eta itsaso dibino bat
Arimaren inguruan.

Gurutzean gurutzaturik
Bethi zaitut ikhusiko,
Eta indar gustiez bethi
Jainkoa adoratuko.

Irakiko dut bethi-ere
Zure ithurri sainduan:
Zure amudioak bethi
Erreko nau bere suan.

Jesu-Kristoren tenplu egiten da

Ni zer naiz, o ene Jainkoa!
Nor naiz? eta zu nor zare?
Zu zare gustia, ni ez deus
Edo ni suiet, zu Prinze.

Aita, zer emanen darotzut
Ez emateko Semea:
Har ezazu hunen estatu
Humilla eta gordea.

Aitzitik, Jauna, ni zer ez naiz?
Ah, nik nolako gloria!
Errezibitu izan baitut,
Zeruko Jainkoa handia.

Ni ere ofritzen natzaitzu
Jesusekiñ juntaturik,
Halaber zuri ere, Jesus,
Zure esklabo egiñik.

Saint Tomas doktoraren deboziona

Adoro te devote, latens Deitas

Adoratzen zaitut debotki,
Jainko beloz estalia,
Eta ogiaren figuran
Kanpotikan ageria.

Siñhesten dugu, Jesus Jauna,
Zuk erran duzun gustia,
Ezpaitu erran nihork ere
Zuk bezalako egia.

Jauna, hala gure bihotzak
Zaizkitzu humiliatzen,
Non pensatzean baitzaizkigu
Indar gustiak flakutzen.

Estali zinduen habean
Solament Jainkotasuna;
Bañan hemen estali duzu
Baita gizatasuna.

Begiak, eskuak, gustua,
Guri zaizkigu trunpatzen:
Eztugu beharriez baizen
Or zarela ezagutzen.

Egia hauk siñhesten tugu
Eta aithortzen publikki,
Bañan ohoiñak galdegiña
Galdetzen dugu humilki.

Eztugu Tomasek bezala
Zure zauririk ikhusten;
Ala baiñan, gure Jainkoa,
Guk ez zaitugu ukhatzen.

Othoi, egiguzu berretuz
Dohakigun siñhestea,
Eta esparantzarekien
Berretuz karitatea.

Jainkoaren herioaren
Nolako orhoitzapena!
Emailea den gisa bizi,
Bizia Ogi emana.

Arren, Jauna, egiozute
Gure arimei dohaiña,
Bethi zu desira zaitzaten
Eta ez zure ordaiña.

Amudioa.

Jadanikan ene bihotzak
Su saildu bat du sentitzen:
Ethortzen zait ezti ezteki,
Arima darot erretzen.

Ala ni hagitz dohatsua!
Zeren zeruko ogia
Egun ene ariman barna
Egiñ baitzait su handia.

Eskerrak

Nola emanen darozkituz
Merezi tutzun eskerrak,
Nola ditut ezagutuko
Zure ontasun ederrak?

Aktak: Esparantza

Zeruan promes darokuzu
Fiñik eztuen gloria;
Zu ematen zaizkigunean
Ematen zaiku saria.

Desira ahal dezakegu
Nahi duguna zeruan:
Izaten dugu balioa
Zuk egiñ banket sailduan.

O amudio, o Jongoiko!
O Pelikano saildua!
Zure odolez salba zazu
Mundu bekhatuz galdua.

Odol eder dibino hunen
Xortarik den ttipienak
Xaha detzake munduaren
Bekhatuik handienak.

O Salbatzaille, gerizean
Hor ikhusten zaituguna:
Arren, beraz, konpli dezazu
Guk desiratzen duguna.

Fiñean, bisaiaz bisai
Zeruko palazioan
Dohatsuki ikhus zaitzagun
Bozkariozko tronuan.

Hartu dut ene bihotzean
Zure tresor imensoa,
Zure gorphutz, zure arima,
Dibinitate osoa.

Ofrenda

Nola paga othe dezaket
Jesusen present handia?
Bederen ematen darotzut
Zer ere bainaiz gustia.

Nola zure amudioak
Fiñik ezpaitu kausitzen,
On gustien emalleari
Deusik eztiot gelditzen.

Galdegitea

Garbi zazu ene bihotza,
O Jainkoaren Semea;
Errezibitzen dut sailduki
Zure haragi noblea.

Zure gisa egin nazazu
Pazient, humil, amulso,
Bekhatuik batere gabe,
Munduan bildots dohatsu.

Othoitzza

Arren, Jauna, debeka zazu
 Ifernuko ohoiñ hatsa,
 Hartzetik ene arimako
 Erresuma aberatsa.

Ah, bai, othoi, debeka zazu
 Ni sekulan garaitzetik,
 Eta lehen tronutzat zuen
 Bihotzera ethortzetik.

Protestazionea

Zure banket saindu huntara
 Amudioz nauzu deithu;
 Leial izateko darotzut
 On egiten juramentu.

Beiratuko dut zuri eman
 Hitz handi egiazkoa,
 Bañan, othoi, zaren zerori
 Zigillu sekulakoa.

**Errezibitu ondoan errateko
 orazione debota.**

O Jesu-Kristo, ene Jauna eta ene Salbatzaillea: posible da memento huntan zu zaren gustia zarratu zaren ene estomakaren barnean, eta nik adoratzten dudan Jainkoaren majestate handiak egiñ diezadan ohore, ene bizitazera ethortzeko? Egia da, ô ene mihia, izatu aizela Jesu-Kristoren tronua, eta hura ekhartzean, ekharri dukela gauza diren gustien fundamenta eta sustengua? Egia da, ô ene arima, Jesus-Kristoren arimarekin bat egiñ aize-la? Hauk erratean, badakik zer dioken? Eta badakik nola zarratzen duken unibersu gustiaren hedadurak eziñ zarra dezaken Jauna?

Ametsa othe da dau? Ala egia othe da? Errateaz ene baithan dela Jesus! O ene Jainkoa, hau ezta ametsa; bañan egia bera da: zure ontasuna dela kausa zare hemen, ez ene merezimendua dela kausa. Bañan harritzeko gauza da! Sakramendu hau egiñ baño lehen eztzinduela munduan egiñ hanbat mirakullu, nola egiñ baituzu hemen izatekotzat.

Beraz adoratzten zaitut kapable naizen humilitate eta errespetu gustiarekiñ, eta nahi dut ene arimaren eta ene gorphutzaren indar gustiak ethor dakizkitzun, merezi duzun ezagutzaren eta ohorearen ematera. Bañan nola ene bihotzeko botherea gauza guziz gutia baita, othoitzten tut saindu gustiak, zure aingeru gustiak, zure Ama guziz dohatsuarekiñ, arren, irakats diezadaten zure ohoratzeko antzea; ene orde eman dietzatzuten zor daroskitzudan eta eziñ detzakedan errespetu handiak.

Ezta, bada, justu, ô ene Jauna, zerori ematean niri, eman darozkidatzunaz gerostik gauza gustiak, egiñ diezazudan naizen gustiaz sakrifizio solemnel bat, paga dezadan gorphutzaz gorphutza, odolaz odola, arimaz arima, eta biziaz bizia?

Beraz errezihi zazu ene gorphutza zure sekulako esklabotzat: zure librai-en ekhartzeko ohorea izatuz gerostik eztu bizi nahi zuretzat baizen, eta zure ukitzeaz sanktifikatuz gerostik, eztu zerbitzatu behar bertze nausirik

zu baizen. Errezibi zazu ene arima bere indar gustiekiñ; hauk eztute deusik egiñ nahi, zure gogara baizen. Ene memorioari eztzaio sekulan ahantziko ene baithan egoteko egiñ darotazun ohorea; ene adimenduak eztu pensatu nahi grazia huntan baizen; eta ene borondateak eztu nahi amudiorik hunentzat baizen.

Eta nola baitzare Jaun handi eta unguille bat, zeña ezpaita sartzen etxe batean, benedikzione gustien ekhartzeko eta han utzteko gogoz baizen, sofrizazu, ene Salbatzaillea, ezteazudan egun galdegiñ gauza xoil bat baizen. Hunengatik zerori ere gizon egiñ ziñen, pairatu izan zinduen eta hil izan ziñen: galdegiten darotzut *ene salbamendua*, ô ene jainkoa. Ezteazula beraz permeti, errezibitu dudan gorphutz hunek alferrik pairatu izan duen herioa, eta ene odolarekiñ nahasi den odol preziatu hau alferrik enetzat isuri izatu den Kalbarioan.

Eztitut nahi mundu huntako ontasunak, ez atsegiñak, ez handitasunak; ezta salbamendua baizen deus nahi, eta hau zurekien batean, ô ene Jainkoa.

Bañan nola ikhusten baitut, enetzat duzun amudioak zure estaltzeko egiñ darozkidan akzident hauk ene estomakan denbora guti iraunen dute-la, eta sarri urratuko direla zure presuna maitea erretiratzean, othoitzten zaitut J. K. ene Jauna, bederen ez ni abandonatzeaz zure graziaz; bañan zure amudio sailduaren moianez ene baithan egoteaz, eta ene arimari bethi egiteaz hemen egotu zarenean egin izatu diotzatzun ontasun gustiak.

Bizkitartean impazientzia handiarekiñ biziko naiz, berriz zu ethor arte-raiño, ô ene Jainkoa, ene guzia, ene anaia, ene aita, ene esposa, ene Salbatzaillea, eta nik bilhatzen dudan gloria xoilla denboran eta eternitatean. Hala biz.

Sakramendu saildua aldarean ageri denean benedikzioea ematerako denboran

Ecce nunc benedicite Dominum. (Psal. 133, parafrasa).

Adora zazue humilki
Handi gustien handia;
Hor zia gok zuen begira
Aldarean estalia.

Bildu dik Jesusek Hostian
Jainkoak duen gloria,
Eztuk posible ikhus dadiñ,
Estalia duk gustia.

Zeruan errezibitzen tik
Sainduen laudorioak;
Eta lurrean galdegiten
Gizonen amudioak.

Goiz eta arrats athor beraz,
Ekharra bhotz garbia;
Ohora eta adora zak
Arimako iguzkia:

Izarrek egun ederrari
Aldiz lekhu egitean,
Gaua bere ilhunarekiñ
Bertze mundura joatean.

Eskuak junta, adora zak
Jainkoaren ontasuna,
Bere amudio handiak
Eman dik hemen barrena.

Ala nik nahi bainituzke
Kopla sailduak kantatu;
Benedika nazazu, Jauna,
Nahi zaitut ohoratu.

Ah, Jainkoa eta gizona!
Laudatzen zaitut munduan.
Oi laudatzen bazintut, bada,
Sainduen balsan zeruan!

Aita bethi ere zarena,
Bethi duzula gloria:
Zuk ere gloria duzula,
Seme adoragarria.

Zu guregatik egiñ ziñen
Lurrean gure haragi,
Eta ziñen halaber egiñ
Guregatik gure ogi.

Fiñean gloria duzula,
Amudiozko Presuna:
Zuk bethetzen duzu onez
Mahiñ Jesus Jaunarena.

Sakramendu sailduaren ohoretan noiz nahi egiteko aktak

Jendeak, laster egizue
Erregeren ikhustera;
Tronuan huna non dagoen,
Zatozte adoratzera.

Zuengana ethorri nahiz
Zeruko Jainko handiak,
Aphezen eskutan eman tik
Bere ontasun gustiak.

Behin zuei emanez geroz
Bere tresor aberatsa,
Odolarekiñ darotzue
Berriz ematen gorphutza.

Zuek ere egituzue
Zuen gorphutzez tenpluak,
Eta zuen bihotz garbiez
Bere aldare sailduak.

Populua, itzul diozok
Zor dioken ezagutza;
Emok errege handi huni
Hire onekin bihotza.

Hostia huntan duk humilki
Jainkoa ezagutuko,
Eta hunen gorphutzareki
Odola adoratuko.

Bihotzez maitatu behar duk,
errege gustien Jauna,
Hemen ziagok sarthu nahiz
Zuen bihotzetan barna.

Erran arazi behar diok
Hire bihotz debotari
Ene mihiak dioena
Erraten Jainko Jaunari.

Fedea

Sinhesten dut Hostian dela
Erregeen Erregea,
Establian sortu zenaren
Gorphutz, Jainkoaz bethea.

Sinhesten dut hartzen dudala
Ogi saindu huntan barna
Mundua salbatu beharrez
Jainko, gizon egin zena.

Sinhesten dut hartzen dudala,
Arnoaren idurian,
Hustu izan zuen odola
Kalbarioko mendian.

Orduan bere Gurutzetik
Jesus gure Iguzkiak
Hil-arazi izan zituen
Zeruan ziren argiak.

Orduan zuen erakutsi
Bihotzean zuen sua,
Eta bake sainduan eman
Aitarekien munduan.

Esparantza

Esparantza dut, ô zeruko
Errege guziz handia,
Zuk emanen darotazula
Sekulako biktoria.

Ardiatsiko darotazu
Biktoria glorioski,
Triunfa ederra emanen
Ene gaiñean osoki.

Esparantza dut nik merezi
Pena eta dolorea
Sendatuko daroztatzula,
Ene Monarka noblea.

Esparantza zure koroaz
Aingeruen konpainian
Egiñen nauzula partale
Zeruetako glorian.

Jauna, eman behar darotzut
Nik ere zure saria:
Ofritzen darotzut humilki
Ene arima gustia.

Desira

Heldu naiz egun saindu huntan
Jesusen zaurietara,
Hunen odol preziatuan
Egarriaren hiltzera.

Bai, gogotik heldu naiz egun
Ithurri bizi hautara,
Ene amudio hillaren
Zeruko suan piztera.

Bere odolaz hemen darot
Alogatu edaria,
Eta haragi dibinoaz
Preparatu afaria.

Gizona, jakin behar duzu
Zer duen Jaunak pensatu,
Mahain aberats hau Elizan
Duenean presentatu.

Nahi izatu zaitu behin
Bere onez aberastu,
Aberasturik bere onez
Zeruetara altxatu.

Amudioa

Maite dut eta maitatuko
Jesus Jongoiko maitea,
Jateko zerbitzatu darot
Gorphutz Jainkoaz bethea.

Maite dut eta maitatuko
Ene ungiagillea,
Zeruetako dohatsuei
Gloriaren emaillea.

Jesusen suak baizen eztu
Ene bihotza piztuko,
Ez eta nik ere hura baizen
Bertzerik adoratuko.

Ene Jainkoak eman darot
Bere tresor aberatsa,
Eman darostanean bere
Arima eta gorphutza.

Helas! nik ere behar diot
Egiñ ene ezagutza;
Jauna, beraz huna non duzun
Bederen ene bihotza.

Beldurtasuna

Traidorea, ikhara adi,
Ikhara bekhatorea,
Bekhatutan jan izan baituk
Hire Jainko Jaun maitea.

Adoratu behar Hostia
Judasen gisa duk hartzen,
Eta sakrilejio beltza
Hark bezala kometitzen.

Arimaren jujamendua
Hire ahoaz duk jaten,
Eta gorphutz kriminelean
Hire Jainkoa ehorsten.

Bañan akzione beltz hunek
Merezi duen saria
Ondoan laster izanen dik
Pena lastimagarria.

Ah, nola tuen punituko
Biziaren Jaun justuak
Ithurri bizi saindu huni
Egiñ zaizkon afruntuak.

Dolorea

Aitzitik nigar egiten duk
Hainbertze milla hobenez,
Eta ago hire Jainkoaz
Behar bezala auhenez.

Athor, nigarrak begietan,
Athor hunat aldarera,
Hire bihotzeko miñaren
Jesusi erakustera.

Entzunen tik Jainko on hunek
Hire deihadar gustiak,
Baieta sentituko ere
Hire dolore handiak.

Hire penetan egiñen zaik
Hire konsolatzaillea;
Bere kolere kitaturik,
Egiñen maitatzaillea.

Gero eztuk hik edirenen
Sekulan hire jujetzat,
Bañan kausituko duk bethi
Aitatzat eta amatzat.

Oferenda

Konfesatzen dut zu zarela,
O Jesus, Jainko Jujea,
Jainko jujea zarelarik,
Zarela Jainko emea.

Heldu naiz zure oiñetara
Amudioz kargatua,
Eta halaber ethortzen naiz
Beldurrez arraillatua.

Heldu naiz beldurrez bethea
Ene bekhatuengatik,
Eta bethea amudioz
Zure ontasunagatik.

Ene hutsak direla kausa
Hiltzeko nago dolorez:
Zure bihotza dela kausa,
Ezin nagoke plazerez.

Zure mahaiñak ikhusten du
Ene bisaia uretan,
Eta halaber ikhusten du
Ene bihotza kharretan.

Propos Ona

Jainoaren haragi hunek,
Haragi Jongoiko denak,
Sakramenduan janharitzat
Ene hazteko emanak,

Ukitu darozkit sainduki
Gorphutza eta arima;
Ukiturik biak darozkit
Egiñ bere erresuma.

Desterratu behar tut handik
Banagloria gustiak,
Libertate kriminel hatsak
Eta plazer itsusiak.

PANGE, LINGUA, GLORIOSI, prosa

Zeruko laudorioez
Dezazue ohora
Gizonen eta Aingeruen
Jaun Errege ederra,
Haren gorphutz dibinoa
Humildurik adora.

Adora zagun gustiok
Jainko gizon sorthua,
Guregatik hark isuri
Odol preziatua,
Ideki zarokunean
Zeru guk zarratua.

Nobis natus, nobis datus.

Birjina amarenganik
Zenean konzebitu,
Gure mundu huntan zuen
Nahi izan agertu,
Jainko zela gizonekiñ
Gizon gisa hantatu.

Doktrina predikaturik
Bere Aitak emana,
Amudioz egin zuen
Obrarik hoberena
Eta hartaz zigillatu
Azkeneko eguna.

In supremæ nocte coenæ

Bere anaiekin hartu
Azken othorontzean,
Hil-bespera sakratuan
Mundutik partitzean,
Legea zuen konplitu
Fazoiñ hoberenean.

Eztut nahi profana daiten
Jesus Jongoiko sainduak
Bere argi eta graziez
Sakratu tuen lekhuak.

Beiratuko naiz egitetik
Deabruaren ohatzea
Jesus-Kristok bere odolaz
Erosi duen etxea.
Hala biz.

Ezarririk leheneko
Janharien ordaiña,
Diszipulei emanik
Gorphutz Jainko egiña,
Jainko emaillea bera
Izatu zen dohaiña.

Vebum Caro Panem verum.

Jainko eta gizon denak,
Jainkoaren berboak,
Hitzez konpliturik hemen
Diren misterioak,
Konplitu tu prometatu
Ontasun dibinoak.

Arnoa du odol egiñ
Eta gorphutz ogia,
Baldin sensuek ukitzen
Ezpadute egia,
Duda gustien khentzeko
Huna fede argia.

Tantum ergo Sacramentum

Adora zagun klartasun
Handien egunean
Eta humilki adora
Nork bere bihotzean,
Estalirik ageri den
Jainkoa aldarean.

Figura iragan dena
Egiak du segitu,
Jesus Jaunak segurutzen
Gustiok hala gaitu;
Haren hitza duda gabe
Behar dugu aditu.

Genitori Genitoque

Zeruetako Jongoiko,
Jaunaren esenzia,
Zeiñak baitu dohatsutzen
Sainduen konpaiñia:
Duzula dohatsutasun,
Indar eta gloria.

Aitarekien Semea
Dela bethi laudatu;
Bethi duela ohore,
Dela glorifikatu;
Bienganik heldu dena
Bardinki adoratu.
Hala biz.

SACRIS SOLEMNIIS... Prosa

Dugun errespetu, dugun bozkario,
Ohora dezagun ontasun handia
Eta dugun jasta Jesus Jainkoaren
Banket adoragarria.

Justu da gargero, denbora berrian
Segi dezan aldiz egiak figura;
Graziak pitz detzan mihiak, bihotzak,
Garaiturikan natura.

Noctis recolitur...

Misterio huntan Eliza sainduak
Markatzen daroku gau sainduko besta,
Aitaren berboak egin zuenean
Amudiozko banketa.

Lehenbizirikian Hebroek bezala
Zerbitzatu zuen Axuri emea,
Gero eman zuen zaharrek usatu
Ogi lemamigabea.

Post Agnum typicum...

Bazkoko Bildotsa pasatu ondoan,
Ogi dibinoa izan zen zathitu
Mahain saindu huntan, zeïña behar
baitzen
Munduarentzat ofritu.

Ematen dute Jesusen anaiei
Jatera Gorphutza. Bakhotxak du hartzen
Gustiek bezanbat, eta unen baithan
Salbamendua kausitzen.

Dedit fragilibus...

Konsolatzen ditu bere haur tristeak
Egiten diote present sakratua;
Ematen da bera, ogi eta arno
Idurian zarratua.

Jan zazue, dio, zuentzat hillen den
Gorphutz dibinoa; edan dezazue
Kalitz hunetan den odola gustiek,
Tresor hau har dezazue.

Sic sacrificium...

Gu nahiz salbatu, huna nola Jesus
Egin zen guretzat hostia habeaz;
Oraiño guretzat egin da hostia
Hemen gure aldarean.

Enplegu handi hau aphez xoillena da,
Munduarentzat da Bildots hau
ofritzen;
Jendei Jainko hau ematen diote,
Berek ere bera hartzen.

Panis angelicus...

Figura joan dena egin da egia
Aingeru sainduen zeruko ogia.
Egin da lurrean gizon gustientzat
Arimako janharria.

O Karitatea! O amudioa!
Mirakuillu handia, adoragarria!
Jauna da ttipitzen, Jainkoa egiten
Gizonaren bazkaria.

Te Trina Deitas...

O Trinitatea! Tronu dibinoan
Zure esenzia dut benedikatzen;
Eta zuregana saindu guziekin
Amudioz naiz altxatzen.

Behera dezazu gure faboretan
Zeruetan duzun ponpa inmortalia;
Erakuts dezazu glorian argitzen
Duen argi eternala. Hala biz.

VERBUM SUPREMUM PRODIENS,

Prosa

Berboa heldu denean,
Eztu kitatzen zerua,
Bere odola emanik,
Konbertitzen du mundua.

Se nascens dedit socium.

Lagun egin zen sortzean,
Mahaiñean janharria,
Prezioa herioan,
Eta zeruan gloria.

In mortem a discipulis...

Juduek hil baño lehen
Present egiñik bihotza,
Jatera diszipulei
Eman zioten gorphutza.

O salutaris Hostia...

O hostia dibinoa!
Idekitzatzu zeruak,
Etsaien kontra prest daude,
Arma detzatzu eskuak.

Quibus sub bina specie.

Amudioak hemen tu
Bere ontasunak husten;
Bi substantzia sainduz
Gizona osoki hazten.

Uni Trinoque Domino

Jainkoan hirur presunek
Bethi dutela gloria,
Digutela berekien
Fiñik eztuen bizia.

Aldareko sakramendu sainduaren lethariñak

Jauna, urrikal gakizkitzu.
Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.
Jauna, urrikal gakizkitzu.
Jesus-Kristo, adi gaitzatzu.
Jesus-Kristo, entzun gaitzatzu.
Zeruetako Aita, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
Semea, munduaren Salbatzaillea, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
Spiritu Saindua, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
Trinitate Saindua, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
Ogi bizia, zeña jautsi baitzare zerutik, urrikal gakizkitzu.
Jainko estalia eta Salbatzaillea, urrikal gakizkitzu.
Berezien ogia, urrikal gakizkitzu.
Arno, birjinen egillea, urrikal gakizkitzu.

Ogi gizena eta erregeen plazer gozoa, urrikal gakizkitzu.
 Sakrifizio, bethi egiten dena, urrikal gakizkitzu.
 Ofrenda xahua, urrikal gakizkitzu.
 Bildots tatxa gabea, urrikal gakizkitzu.
 Mahain guziz garbia, urrikal gakizkitzu.
 Aingeruen janaria, urrikal gakizkitzu.
 Manna estalia, urrikal gakizkitzu.
 Jainkoaren mirakuilluen orhoitzapena, urrikal gakizkitzu.
 Ogi, substantziaz goragokoa, urrikal gakizkitzu.
 Berbo, haragi egin zarena, urrikal gakizkitzu.
 Gure baithan egoten zarena, urrikal gakizkitzu.
 Hostia saildua, urrikal gakizkitzu.
 Benediziñoaren kaliza, urrikal gakizkitzu.
 Fedearen misterioa, urrikal gakizkitzu.
 Sakramendu guziz haltoa eta guziz ohoragarria, urrikal gakizkitzu.
 Sakrifizio gustietarik sailduena, urrikal gakizkitzu.
 Hillei eta biziiei graziaren egille egiazkoa, urrikal gakizkitzu.
 Antidoto zerukoa, urrikal gakizkitzu.
 Mirakuillu gustietan den mirakuillu espantagarriena, urrikal gakizkitzu.
 Jaunaren Pasionearen orhoitzapen guziz sakratua, urrikal gakizkitzu.
 Bethetasun gustiez goragoko dohaiña, urrikal gakizkitzu.
 Amudio dibinoaren señaile prinzipala, urrikal gakizkitzu.
 Liberalitate dibinoaren abundanzia, urrikal gakizkitzu.
 Misterio guziz sakratua eta guziz haltoa, urrikal gakizkitzu.
 Immortalitateko erremedioa, urrikal gakizkitzu.
 Sakramendu harrigarria eta biziaren emaillea, urrikal gakizkitzu.
 Sakrifizio ez odolstatua, urrikal gakizkitzu.
 Berboaren bothereaz haragi egiñ izatu zaren ogia, urrikal gakizkitzu.
 Gonbidatzaillea eta janharia, urrikal gakizkitzu.
 Banket guziz ezitia, zeinetan aingeruak baitire zerbitzatzen, urrikal gakizkitzu.
 Pietatearen lokharria, urrikal gakizkitzu.
 Ofrendatzaillea eta ofrenda, urrikal gakizkitzu.
 Eztitasun spirituala, ithurri propioan dastatzen zarena, urrikal gakizkitzu.
 Arima sailduen janharia, urrikal gakizkitzu.
 Jaunaren grazian hiltzen direnen Biatikoa, urrikal gakizkitzu.
 Ethorkizuneko gloriaren bahia, urrikal gakizkitzu.
 O Jainkoa, fabora gaitzatu.
 Entzun gaitzatu, Jauna.
 Zure Gorputza eta zure Odola indiñeki errezibitzetik, begira gaitzatu, Jauna.
 Haragiaren gutzietarik, begira gaitzatu, Jauna.
 Bizitzearen superbiasunetik, begira gaitzatu, Jauna.
 Bekhatuen okhasione gustietarik, begira gaitzatu, Jauna.

Zure diszipiuluekiñ Bazko hunen jateko desira zinduenaz, begira gaitzatu, Jauna.

Zure diszipunuei oiñak garbitu ziñotzaten humilitate handiaz, begira gaitzatu, Jauna.

Sakramendu saindu hau egin zinduen karitate handiaz, begira gaitzatu, Jauna.

Guregatik zure Gorphutz sakratuan hartu zintuen bortz zauriez, begira gaitzatu...

Gu bekhatoreak, entzun gaitzatu, Jauna.

Othoizten zaitugu berretzeaz eta konserbatzeaz sakramendu miragarri hunen sinhestea, ohorea eta deboziona, entzun gaitzatu, Jauna.

Othoizten zaitugu begiratzeaz heresia, tronperia eta bihotzeko itsumendu gustietarik, entzun gaitzatu, Jauna.

Othoizten zaitugu sakramendu saindu hunen fruitu preziatu eta dibinoak emateaz, entzun gaitzatu, Jauna.

Othoizten zaitugu heriotzeko orenean Biatiko huntzaz preparatzeaz eta konfortatzeaz, entzun gaitzatu, Jauna.

O Jainkoaren Semea, entzun gaitzatu, Jauna.

Jainkoaren bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, barkha diezaguzu, Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, entzun gaitzatu, Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduko bekhatuak, urrikal gakizkitzu, Jauna.

Jesus-Kristo, adi gaitzatu.

Jesus-Kristo, entzun gaitzatu.

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Othoitz egigun

O Jainkoa, zeñak sakramendu miragarri hunen azpian zure Pasionearen orhoitzapena utzi baitarokuzu; othoizeten zaitugu humilki guri egiteaz grazia, hala ohora detzagun zure Gorphutzaren eta zure Odolaren misterio sakratuak, non bethi gure baithan senti detzagun zure salbamenduaren fruituak, o Jainko, zeñā bizi eta Jaun baitzare Aitarekiñ Spiritu Sainduaren batasunean, mendeen mende gustietan. Hala biz.

IV. Partea

ANDRE DENA MARIAREN
DEBOZIONEA

BIRJIN ETA AMA MARIA

Zeruko Aita Jainkoaren
Alaba,

Seme Jainko Gizonaren
Esposa,

Trinitate Dibinoaren
Tenplua,

Munduko eta Zeruko
Andrea,

Aingeruen ta gizonen
Erregina,

Bekhatore penatuen
Adbokata,

Egiozu othoitz guretzat
Jainkoari.

Hala biz.

Andre dena Mariaren bestak

Konzeptionea

Ala neskata ttipito hau,
Neskata hagitz argia!
Garbia duk, ezтик bekhatu
Orijinal itsusia.

Egundaiño ezтик bihotz hau
Satan hatsak profanatu.
Jainkoak zien bere tenplu
Bethi-eretik hautatu.

Natibitate

Neskata, beraz sortzen zare
Guretzat zero berria,
Mundurak guri ekhartzeko
Arimako iguzkia.

Zure arraiak hedatzatu,
Goizeko argi izarra;
Eta errazu sortzen dela
Gure iguzki ederra.

Presentazionea

Eksenplurik gabeko Ama,
Birgina paregabea:
Zaude tenpluan, noizbait horko
Izanen zare Andrea.

Konsekra behar diozu
Hirur urthetan bihotza,
Amabortzetan izateko
Jainko Jaunaren egoitza.

Anunziationea

Misterio dibino huntan
Ama da egiñ Birjiña,
Egun saindu huntan berean
Jainko da egiñ gizona.

Aingerua da mandataria,
Espos Spiritu garbia,
Eta neskata ttipi bat
Jaunaren Ama handia.

Purifikazionea

Ah, zer espantu eder da hau!
Jainkoa da immolatzan,
Eta xahutasuna bera
Halaber purifikatzen.

Ama eta Semea dire
Egun dohatsu hunetan
Bi hostia amudiozko
Aldarearen oiñetan.

Asunzionea

Iklus-azue nola doan
Maria koroaturik,
Zeruetako nobleziaz
Gustia inguraturik.

Ala hau triunfa ederra!
Ideki ditu zeruak;
Hango Erregina eginik,
Eskutan ditu tronuak.

Birgina Ama Maria bere Jesus Haurrarekin erretaula batean pintatua

Ikhusten duken Haurtxo hau duk
Gizona eta Jainkoa,
Eta Haurtxo hunen Ama hau
Erregiña zerukoa.

Posible da beraz munduan
Ikhustea pinturarik
Pintura handi hau den baño
Handiago daitekênik?

Erregiña Birjina hau duk
Munduaren ilhargia,
Eta Jainko gizon Haur hau duk
Munduaren iguzkia.

Posible da beraz munduan
Ikhustea figurarik,
Figura argi hau den baño
Argiago daitekênik?

Birjina Ama Andre hau duk
Arrosa bezaiñ ederra;
Haurrak, lilia bezaiñ xuri,
Iduritzen dik izarra.

Munduan beraz posible da
Ediretea gauzarik
Gauza dohatsu hau den baño
Dohatsuago daitênik?

Birjina Amak zaiadukak
Besoetan bere Haurra;
Elhurra zidurik Birjinak,
Haurrak zidurik elhurra.

Posible da beraz munduan
Ikhustea pinturarik
Pintura xuri hau den baño
Xuriago daitekênik?

Haur hunek tik ihortziriak
Erabiltzen hedoietan;
Dostetan hau bera hari duk
Ama baten bulharretan.

Munduan beraz posible da
Ikhustea espanturik
Espantu eder hau den baño
Ederrago daitekênik?

Ama humil bat duk Birjina,
Jainkoaren gidaria,
Amari Jainkoak ekhartzen
Ziok obediencia.

Posible da beraz munduan
Ahal daiten pinturarik
Pintura eme hau den baño
Emeago datekênik?

Esnerik baizen eztuk Haurra,
Gustia ezti eztia;
Ama ere Haurraren gisa,
Ezti eztia gustia.

O Jainko ona! Posible da
Pensatzea figurarik
Figura ezta hau den baño
Eztiago daitekênik?

Haur hau berbera izatu duk
Gustien Salbatzaillea;
Birjina Haurtxo hunen Ama
Gure ungiegillea.

Jendeak, posible da beraz
Ediretea molderik
Molde glorios hau den baño
Gloriosago daitenik?

Jesusen eta Mariaren izenak bihotz deboten konsolagarriak

Mundua, ixil adi: utzik
Hire ponpa itsusiak;
Zeruko plazerez tiagu
Bethe behar beharriak.

Bertze fazoiñ ederrez tie
Jesusek eta Mariak
Bere izenez kontetatzen
Egun gure beharriak.

Ithurriak, zer ere gauzei
Baitzaie freskotasunaz,
Beharriei hura ziaiek
Jesus bere ontasunaz.

Hitz hauk oreiñek aditzean
Egiñen tie jauziak;
Hariko dituk bere modan
Dantzan arroka mendiak.

Eztiago da guretzat,
Maria, zure izena
Ezen ez harrizkotxoetan
Tixirripa soiñuz doana.

Igzkiak pintatukotik
Izar xuri gustietan;
Ekharriko tik ilhargiak
Bere adar urdiñetan.

Hegastinak, iratzartzean
errepikak egitzue,
Goiz alba xuritzean baño
Hobeki kanta zazue.

Bañan, edo argitzen bada,
Edo ilhutzen eguna,
Dela goiza, dela arratsa,
Fiñean azken orena,

Emozue zuek abisu,
Hegastinak, ithurriei;
Xirripei, zuek, ithurriak,
Xirripak landa gustiei.

Dugun bethi amudio
Gure bihotzen barnean,
Ditugun Ama-Semearen
Izenak bethi ahoan.

Jesus eta Maria dire arima deboten amudioa

Jesus, amudio, ohorea,
Zeruko amudioa:
Ala zure izenak baitu
Hagitz grazia gozoa!

Lurrean egin zaitu Haurrak
Bihotzen amudioa;
Bethi zeruan izatekotz
Begien Bozkarioa.

Uri-tromenta, elementak
Hitz batez tutzu kalmatzen:
Su, xixmista, ihortziriak
Begi-kheñuez manatzen.

Ah, bai, Jesus eta Maria,
Arimen tresor handiak,
Zuek xarmatzen dituzue
Gure arima gustiak.

Jauna, harritzen darotazu
Osoki ene gorphutza,
Bañan flakatzenago duzu
Oraiño ene bihotza.

Jesus Jauna, Jainko gizona,
Gizonen Salbatzaillea,
Maria, Jainkoaren Ama,
Gizonen laguntzaillea.

Gero zu ondoan, Maria,
Ene surik eztieta;
Maria, zu Jesusen Ama.
Ene kharrik ederrena.

Zuek maite ez zaituztenek
Bihotzak tuzte harriez;
Edo harriez ezpaituzte,
Behar dituzte elhurrez.

Beraz izanen tugu bethi
Zuen izenak mihian,
Bethi zuen amudioa
Gure bihotzen erdian.

Ama Birjinaren auhenak Gurutzearen aitzinean*Euskaraz, Stabat Mater*

Ama zegoen tristea
Kontenplatzean Semea
Habean itzatu.

Bethe dazu othoi, Ama,
Dolorez ene arima,
Triste nadiñ zurekin.

Bihotz malenkoniosa,
Triste eta dolorosa
Dagaz zuen zaurthua.

Indazu su bihotzean
Jesus-Kristo maitatzean
Dagizudan atsegiñ.

Ah, zein hagitz zen tristetu,
Birjina benedikatu,
Haur eder haren ama.

Ama, gauza bat egizu,
Gurutza diezadazu
Semea bihotzean.

Amaren doloratua!
Ikhusirik penatua
Semearen arima.

Har nazazu Semearen,
Enegatik hil denaren
Partale Gurutzean.

Andre hura aditzean
Haiñ dolore borthitzean,
Nor eztzen tristetuko!

Utzi nazazu Jesusekiñ,
Haren pena handiekiñ
Egon nadin dolorez.

Ama doluz ikhustean
Semearekiñ batean
Nor eztzen flakatuko!

Egidazu garazia,
Zurekien, ô Maria,
Bizi nadiñ deithorez.

Ikhusi zuen zaurthurik,
Burreuek azotaturik
Salbatzaille emea.

Arren, Birjinen Birjina,
Amarik den hoberena,
Utz nazazu hiltzera.

Ikhusi habean hiltzen,
Eta penek erdiratzen,
Jesus bere Semea.

Bai, egidazu fabore
Laster dagidan nik ere
Jesusen Gurutzera.

Ama amudiozkoa,
Izan duzun ondikoa
Niri ere indazu.

Zilha nazazu zauriez,
Sesi dolore gustiez,
Haren amorekatik.

Ariman barrena harra,
Bi begietan nigarra,
Eman diezadazu.

Haren odol sarraskiak
Eta tromenta handiak
Jasanen tut gogotik.

Jujearen aitzinean
Azkeneko egunean
Behar nauzu beiratu.

Arma nazazu itzeez,
Lantzaz eta arantzeez,
Bizi nadiñ grazian.

Semearen Gurutzeaz,
Odolaz, Heriotzeaz
Behar nauzu salbatu.

Gero hil eta munduan,
Ediren nadin zeruan
Zurekien glorian.
Hala biz.

Arima deboten auhenak Andre dena Maria Birjina Amari

Hiltzen zegoenean Jesus
Gurutzean itzaturik,
Galbarian zegoen hiltzen
Maria dolorez urthurik.

Jainko ona du gaxtagiñak
Bere eskuez urkhatzen;
Gaxtagiña du Jainko onak
Heriotzetik libratzen.

Semeari zioten hautsi
Burreuek bere gorputza,
Eta Amari dolorezko
Dagaz iragan bihotza.

Arren, Ama doloratua,
Ama amudiozka,
Indazu ene bihotzean
Senti duzun ondikoa.

Egundaiño bihotzek elkhar
Eztzuten hala maitatu;
Egundaiño eztziren hala
Doloreak inkunratu.

Zure Seme onarenganik
Ardiatstekotz grazia,
Ama, behar dut bihotzean
Zuk bezala tristezia.

Semeak zela zidurien
Hil-bizirik zen presuna;
Amak halaber zidurien
Bizi-hillik zegoena.

Indatzu bihotzean beraz
Zuk dituzun doloreak,
Eta zure doloreekin
Gurutzekoen pareak.

Non dire haiñ bihotz gogorak
Plakatuko eztirenak,
Baldin entzuten badituzte
Birjina hunen auhenak?

Helaz parti dietzadatzu
Izerdiak eta penak,
Gustien zorren pagatzeko
Jesusek hartzen tuenak.

Hunen beherazpenek tuste
Harri-arrokak zathitzen;
Hola bada eztitu berak
Gure bihotzak ukitzen?

Ene faltak duenaz geroz
Gurutze hori landatu,
Gurutze horren oiñetarik
Eztut nahi apartatu.

Tromentan duenean Amak
Bere Semea ikhusten,
Semearen heriotzeak
Ama du thonban ehorsten.

Hor naiz zurekiñ Galbarian
Bizi naizeño finkatzen,
Sekulakotz hor dut zurekiñ
Ihezlekhua hautatzen.

Beira nazazu ifernutik,
Hobendunen Beiraillea:
Helaz, ni naiz, aithortzen dut,
Iainkoaren hiltzaillea.

Bañan ungi ni punitzeko
Grazia bat egidazu;
Zure Semeak jasan duen
Gurutzea karga dazu.

Nola baitu amudioak
Zure haurra konsumitzen,
Ez othe du enetzat ere
Su guti bat begirutzen?

Erre nazazu beraz, othoi,
Gurutzeko su sailduez,
Behiñ ere erre ez nadiñ
Munduko su profanoez.

Nik habean handi gustien
Erregea hilagatik,
Esparantza dut hala ere
Biktoría Gurutzetik.

Arren, egidazu grazia
Habe hunen faboretan,
Ediren nadiñ Jesusekiñ
Gloriako triumfetan.

Andre dena Maria agonian xirioa eskuetan

Adoratzen zaitut humilki,
Zeruko majestatea;
Adoratzen eta maitatzen
Halaber Trinitatea.

Xirio bizia eskuan
Heldu naiz adoratzera,
Bihotzean amudioa,
Ehortzen naiz maitatzera.

Nahi nuke ene bihotza
Erre ledin zure suan,
Xirio hau urtzen den gisa
Urt ledin zure ondoan.

Jainkoa, har dezazu beraz
Ene bihotzeko sua,
Edo bederen har dezazu
Ene xirio saildua.

Eztute biek bere sua
Non eztuten zureganik,
Zure suan pitztuak dire
Bizi nahiz zuregatik.

Eztu kherik zeruko suak
Munduko suak bezala;
Zeruetako su ederrak
Ah, beraz erre nazala.

Helaz, ene Jauna, indazu
Zuk plazer duzun arima,
Arimaz zuri egiteko
Plazer duzun erresuma.

Finka tzatzu ene desirak
Zure obedientzian;
Emazu ene ondasuna
Zure perseberantzian.

Zaren, beraz, ene herria,
Zaren halaber bihotza,
Eta ene on dohatsuen
Sekulako esparantza,

Haiñ su borthitz eta haiñ eme,
Haiñ eztiar erre nadin,
Non sentitu gabe penarik
Gustia konsumi nadiñ.

Helaz, ene Joingoiko Jauna,
Indazu, othoi, bihotz bat,
Zuri atsegiñ egiteko,
Zuk plazer duzun bezanbat.

Ordean guziz nahi nuke
Bihotz hunen su ederrak
Ikhus ez letzan behiñ ere
Munduak dituen kharrak.

Bañan sekulan Jesus lizen
Errege ene ariman,
Zeruan Errege den gisa
Aingeruen erresuman.

Ah, bai, Zu ene bihotz hunek
Bazintu bere tresortzat,
Eta balu zure grazia
Bere fortuna osotzat!

Ah, Jesus! On haukiñ ondoan
Baziñe ene urrea
Eta zurekien batean
Zerua ene etxea!

Orduan leite konplitu
Ene koroa handia,
Zu Zerori baitzinatezke,
Jainkoa, ene gloria.

Andre dena Mariaren triunfa asunpzio egunean

Herioari zerk daramo
Haiñ biktoria ederra!
Itsutu ala trunpatu da?
Ala du galdu indarra?

Espantu espantagarria!
Su berri bat da ilkhitzen;
Ilherri ilhun hotz batetik
Gustiak gaitu berotzen.

Ah, Maria, ezta zu baizen,
Zu, ô zeruko Prinzesa,
Zuk erakusten duzu hemen
Zure triunfa ponposa.

Hau da, hau, espantu ederra!
Itzaletik du argitzen,
Eta izar batek bezala
Arraiez du distiatzen.

Hunen aparailu nobleaz
Harriturik iguzkia,
Huni agur egiñ beharrez
Utzten du bere biaia.

Doblatzen tu bere argiak
Eta argitzen eguna,
Ohoratu behar duela
Hunen ilherri ilhuna.

Botzik daude zeru gustiak
Kanta berrien erraten
Eta ihortziria soiñuz
Harmoniaren egiten.

Hau da, hau, espantu handia,
Hunek ezpaitu parerik!
Huna non bizia heldu den
Herioaren etxetik.

Kontenpla dezagun tronu hau,
Zeiñ hagitz den edertua!
Tronu bizi, tronu glorios,
Izarrez distiatua.

Aingeru dohatsu bildumak
Inguratu du gustia;
Tronuan darama semeak
Parabisuko gloria.

Ala hau espantu ederra!
Hilherritik hil-ondoan
Sartzen da Andre bezala
Zeruko palazioan.

Birjina Ama sainduaren salutazionea

Nihon ere ikhusten baduk
 Birjinaren iduria,
 Beirauk, ez pasa, erran gabe
 Humilki: Agur, Maria.

**Giristiñoari Saint Bernardek egiten dio presenta,
 esplikaturik Andre dena Mariaren botherea ebanjelioko
 hitz haukien gañean:**

Missus est

- | | |
|---|---|
| <p>I. Ksidera ezak zeñ urrun den
 Hedatzen hemen mundua;
 Hurren galtzeko ziabillak
 Uhinpean populua.</p> <p>Trunperiarik baizen eztuk,
 Ah, zer tromenta handia!
 Itsaso huntan mariñelak
 Izarra die Maria.</p> | <p>IV. Horra nola zero ederra
 Non den hedoeiez kargatzen,
 Eta ihortzirian barna
 Deabrua non den estaltzen.</p> <p>Galdu nahi tik mariñelak
 Itsasoaren erdian;
 Laster egik, finkatzak laster
 Hire begiak Marian.</p> |
| <p>II. Non ere baitaiz enbarkatzen
 Itsaso zabal hunetan,
 Bela gustiak hedaturik
 Arimaren perilletan,</p> <p>Eztezakela ksidera
 Norteko izar argia;
 Baiñan ikhusak, begira dagok
 Lagundu nahiz Maria.</p> | <p>V. Senti baduk hantzen zaikela
 Luziferren urguillua,
 Edo mihi gaizki mintzatzen
 Hañitz aldiz usatua;</p> <p>Sumintzen bazaik muthiriki
 Bihotzean suge-herra,
 Othoitztu behar duk humilki
 Itsas-handiko izarra.</p> |
| <p>III. Othoitzik egiten ezpaduk,
 Tromenta duk altxatuko
 Eta itsaso asarrean
 Untzia darok galduko.</p> <p>Baldin hor hondoratzen bahaiz
 Eta sartzen ifernuan,
 Alferrik othoitztuko dukek
 Maria lekhu galduan.</p> | <p>VI. Kolerak edo plazer hatsek,
 Halaber abariziak,
 Hondatu nahi badituste
 Zuen arimen untziak:</p> <p>Zeru gustiak iraganik,
 Altxatzak hire begiak:
 Peril hautan argituko au
 Zeruko izar argiak.</p> |

VII. Baldiñ pekhatu kruelaren
Figurak bahau harritzen,
Eta bazaizkik hire faltak
Gogora berriz ethortzen;

Ikharatzen bahau Jujeak
Edo tribunal handiak,
Altxa diotzok itsasoko
Izarrari bi begiak.

VIII. Baldin iretsi nahi bahau
Deabruen tulunbioak,
Edo tormentatu arima
Hekiñ desparaziñoak,

Laster dukek bozkarioa,
Laster kuraia handia,
Pensatzen baduk nola zaiken
Lagundu nahi Maria.

IX. Baldin bihotza hersten bazaik
Eta nahasten dudetan,
Edo baldin kausitzen bahaiz
Arimaren perilletan,

Utzkik hire duda ilhunak
Eta beldurrak osoki:
Gero egiok Mariari
Bihotzez othoitz debotki.

X. Agertzen denean egunaz
Hedoietan iguzkia,
Eta gauaz pasatzen bada
Bere bidez ilhargia,

Gogoan idukizak bethi
Zeruko izar xuria;
Bethi idukak bihotzean,
Laudazak bethi Maria.

XI. Othoitzetan agoenean,
Xahu idukak bihotza,
Pensamenduak, hitzak, obrak,
Arima eta gorphutza.

Fiñean garbiki behar duk
Eraman hire bizia,
Eta egiazki othoitztu
Birjina Ama Maria.

XII. Haren ondoan joaten dena
Bidean eztuk unhatzen;
Erortzen dena laster die
Haren othoitzek altxatzen.

Bañan nork ere haren baithan
Baitu bihotza ematen,
Salbamenduko garazia
Herioan dik izaten.

XIII. Ala baitire dohatsuak
Hark dituenak beiratzen!
Edozeiñ peril suertetan
Ezpaitire hirriskatzen.

Haren ondoan dabiltzanak
Eztituk errebelatzen,
Eta hark maite dituenak
Gloriara tik gidatzen.

XIV. Beraz hauk delientki dituk
Bihotzean ezarriko;
Obretan hauk maiz emanen tuk
Eta maiz irakurriko.

Baldin nahasten baliz ere
Tromentan mundu gustia,
Berehala kalmatuko duk:
Izarra baitu Maria.

**Ala den ederrago Jesus, haur bezala bere amaren besoetan,
ala gizon bezala aita eternalak landatu gurutzean,**

Ene arima, zein othe zaik
Biztarik den ederrena,
Eta zein da bi begietan
Nahienik ukeena?

Eztuk amudiorik asko
Haurtxo hunen maitatzeko,
Ez eta dolorerik ere
Gizon huntaz tristetzeko.

Ala ikhusi Jesus Haurra
Bere Amaren altzoan,
Ala Jesus gizon egiña
Aitak eman Gurutzean?

Ah, bai, bi forma hauk bahitu
Sesitzen infinituki,
Eta ofritzen bahiote
Hire bihotza osoki!

Batean edirenen dituk
Atsegin maitagarriak,
Eta bertzean ikhusiko
Tromenta harrigarriak.

Jesus Jauna, errendatzen naiz,
Nahi zaitut adoratu,
Baita infinituki ere
Laudatu eta maitatu.

Inspiratuko darok batek
Zeruko amudioa,
Bigarrenak erakutsiko
Dolore estrañioa.

Ene falta denaz gerostik
Haukien bien oldea,
Amudioa ethor bedi
Eta ethor dolorea.

Bi figura haur ziotzak
Ematen bihotz gustia:
Haukin bientzat izanen duk
Bethi-ereko Hostia.

**Jesu-Kristo Jaunaren odol preziatua
eta**

Ama Birjina andrearen ezne sakratua dire bekhatorearen esparantza

Aita, zeruko erresuman
Errege puxanta zarena,
Nik izateko zureganik
Ontasunik handiena,

Hagitz da hau handiagoa
Ezen ez mundu gustia,
Eta hagitz baliosago,
Ezen ez zure gloria.

Kontenplatzea asko duzu
Seme Jaunaren sahetsa;
Hunen Odola pisa zazu
Ea zein den aberatsa.

Jainko Jauna, haxe da bada
Oso osoa zurea;
Zurea dela, da halaber
Oso osoa enea.

Norat zure ihortziriak
Darostatzu egotziko?
Zure furian ni justuki
Nola nauzu punituko?

Ah Jesus! Nik zenbat merezi
Zure suak, zure kharrak!
Bañan, othoi, ikhus detzatzu
Zure Amaren bulharrak!

Odol dibino eder hunen
Xortarik den ttipienak
Garbi detzake nik ditudan
Bekhaturik handienak.

Haurrean xarmatzen zintuen
Amaren ezne eztiak;
Orai ere xarmatuko tu
Zure kolera gustiak.

Zor terribleak egiten tut
Bekhatuak egitean;
Bañan pagatzen gehiago,
Odol huntaz pagatzean.

Odol eder, ezne eztia!
Behar nauzue barkhatu.
Gorphutzean eta ariman
Behar nauzue xahutu.

Ezta deus balio duenik,
Jainko baten prezioa!
Enganatzen naiz; odol hunek
Badu zure balioa.

Zuen baithan bihotz xahuek
Tuste bere ithurriak;
Zuek zarete berthuteen
Egiazko hazkurriak.

Andre dena Mariari konsekratzen zaio debota

Zeruetako erregina
Prinzesa paregabea,
Aingeruen amudioa,
Saindu gustien Andrea!

Zu zare Jainko Jaunaz landan
Erregiña nobleena:
Maiteago gure bakean,
Bañan gerlan maiteena.

Ene mihiak darozkitzu
Ematen laudorioak:
Eta bihotzak konsekratzen
Halaber amudioak.

Grazia galdez gagozkitzu,
Aditurikan gloria,
Espantaturik daduzkatzu
Zeru eta lur gustia.

Gure Birjina, gure Ama
Itzul detzatzu begiak,
Gu mundu huntan ikhusteko
Zure haur zerbitzariak.

Zu zare saindu gustietan
Kreatura handiena:
Balia zakizkigu, othoi,
Amarik den hoberena.

Aditzatzu gure othoitzak,
Eztutzunaz gerostikan
Zure haurren presentak baño
Deusik maiteagorikan.

Diduridala xirio hau
Zure zerbitzu sainduan
Argi hunen gisa nahi dut
Hil eta bizi munduan.

Andre dena Mariari othoitza

O Birjina Ama Maria,
Erregiña handiena!
Ni naiz hobendunen artean
Hobendunik gaxtoena.

Zu zaitut zeruko gorthean
Hautatzen ene Amatzat,
Zu hartzen Jainko jujearen
Aitziñean adbokat-tzat.

Gomendatzen naiz humildurik
Zure leialtasunean,
Zure bihotz, zure grazia,
Zure emetasunean.

Arren, ez nazazula kita,
O Amarik hoberena;
Eztezatzula konsidera
Ene bititze lizuna.

Konsekratzen natzaitzu egun,
Konsekratzen bititzean,
Guziz konsekratzen natzaitzu
Hiltzerako orenean.

Merezi duzu entzun zaiten,
Egitzu othoitze ederrak;
Zure gogara zure bidez
Xuxentzatu ene obrak.

Bethi gomendatzen darotzut
Arima, bethi gorphutza:
Ene fortuna, ene eskaz
Eta ene esparantza.

Zuk eta zure Seme Jaunak
Plazer duzuen bezala,
Azken fiñean egidazue
Salbamendu eternala.

Bertzea*Sub tuum praesidium*

Ihez heldu naiz zureganat
Zeruetako Prinzesa;
Arren, ene othoitze humillak
Eztetzatzula mespresa.

Birjina, fabora nazazu
Ene behar gustietan,
Eta begira bethi-ere
Peril handi-ttipietan.

Andre adbokat, Andre puxant,
Jesusen Ama emea,
Herioan diezadazu
Erakuts zure Semea.

Bertzea

O Birjina Ama saildua,
Oraino ezta aditu,
Zure haurretarik duela
Jainkoak abandonatu.

Esparantza handi hunekiñ
Zuregana naiz ethortzen;
O Birjinen Birjina Ama,
Zu zaitut errekeritzen.

Hel zakizkit ikhus zaitzadan
Zeruan, Ama emea;
Hel zakizkit, maita dezadan
Glorian zure Semea.

Bertzea*Elementa denean*

Itsasoko izar ederra,
Mariñelen gidaria:
Arren, eman diezaguzu
Tromentan kalma handia.

Lagun gaitzatzu, arriba gaiten
Porturat, Ama emea;
Leihorrean diezaguzu
Erakuts zure Semea.

Salve Regina

Agur erregiña emea,
Eta Ama dibinoa,
Gure esparantza bizia,
Gustien amorioa.

Andre puxanta, gureganat
Itzultzatu bi begiak;
Beharrean erakutz-kitzu
Zeiñ tutzun indar handiak.

Ebaren haurrak gagozkitzu
Oihuz gure desterruan;
Birjina, lagun zakizkigu
Sekulako hirriskuan.

Ah, erakutz diezaguzu
Armadetako Jainkoa,
Guregatik zuk egiñ Seme,
Jainko amudiozkoa.

Haran huntan darozkitzugu
Egiten beheraspenak;
Gure nigarrak xukatatzu,
Konsola gure ahuenak.

Ez gaitzatzula utz sekulan,
O Birjina, O Maria!
Hil ondoan emanarazi
Diezaguzu gloria.

Ave, Maris Stella

Agur darotzugu,
Jainkoaren Ama,
Itsasoko izar,
Gure erresuma.

Khen ezazu beraz
Gure miseria;
Bake zazu mundu
Ebak nahasia.

Errezibi zazu
Zeruko gorthean
Guk egiten dugun
Othoitza lurrean.

Arren, argitzatu
Gure itsutasunak:
Gure miñak khasa,
Galde ontasunak.

Gabriel sainduak
Egiñik agurra,
Guretzat zarotzun
Promes bake ederra.

Khendurik oseki
Gure maleziak,
Galde diozozu
Jesusi grazia.

Erakuts dezazu,
O Ama emea,
Jainko eta gizon
Duzula Semea.

Anima gaitzatu
Gure beldurretan,
Goberna urratsak
Gure perilletan.

Ofritzatu gure
Othoitzak zeruan,
Erakuts zer duzun
Podore munduan.

Baketzatu gerlak
Gure biktorian,
Ikhustekotz Jesus
Eta zu glorian.

Haiñ eme, haiñ garbi,
Zarade aurkhitzen,
Non espantu handi
Baitzare agertzen.

Gustiok Jainko bat
Mundu herri huntan
Dezagun ohora
Hirur Presunetan.

Iguzu grazia,
Garbi bizitzeko,
Zu gure ariman
Ungi pintatzeko.

Koroak sailduak
Betzate behera,
Eta Jainko Jauna
Glorian adora.

Quem terra, pontus, sidera...

Jainkoa, zeïña baitute,
Gauza gustiek laudatzen,
Eta zeïnek eskuetan
Mundua baitu ekhartzen,

Jaun Handienaren Ama
Ala zure dohatsua!
Eta dohatsu izatu
Zuk izatu enplegua!

Lurrean eta zeruan,
Jainko Jaun adoratua,
Mariaren sabelean
Ediren da zarratua.

Espiritu Saindu Jaunak
Amatzat zaitu hautatu,
Jainkoari zaizkonean
Obedient errendatu.

Zein prinze puxantak baitu
Gobernatzen ilhargia,
Zeïnek eratxeki baitu
Beregatik iguzkia,

Zureganik sorthu zaiku
Jainko Haur prometatua,
Mundu huntan aspaldion
Ontasun desiratua.

Birjinaren bulharretan
Hartu du bere etxea,
Eta du han deskargatu
Grazia nonbre gabea.

Birjina Amaren Semea,
Jesus Adoragarria:
Duzula mende handian
Egun bezala gloria.

Kreatzailleak daduka
Mundu gustia eskuan:
Maria admirableak
Kreatzaillea ariman.

Gloria duzula bethi,
Aita zeruetakoa,
Spiritu Jaun, bi Presunen
Fruitu amoriozkoa.

O gloriosa virginum

Birjina, zeïña baitzaude
Gora ñganik zeruan,
Zeïnak zure Jongoikoa
Hazi baituzu munduan:

Zureganik du jendeak
Uste bere faborea,
Zeru galdura joatekotz
Egin baitzaizko bidea.

Haren artha dibinoa
Zure arthak du pagatu,
Zure ezne sakratuaz
Jesus baituzu bazkatu.

Zuk tutzu gizon gaxoak
Ñgan-arazi zerura,
Eta duzu jausarazi
Jainko puxanta mundura.

Ebak galdu ontasuna
Zuk darokuzu bihurtu,
Munduari baitiozu
Salbatzaillea kobratu.

Populua, beraz, laudazak
Birjina Ama Maria:
Hareganik duk bizitze
Eta gloria gustia.

Birjina Amaren Semea,
Jesus adoragarria...

Memento salutis auctor

Orhoit zaitte, Jainko Jauna,
Nola zaren konzebitu,
Haragiz nola zaituen
Ama Birjinak beztitu.

Othoi, sustenga gaitzatzu
Hemen dugun konbatean:
Gida gaitzatzu zerura
Gure azken egunean.

Zure eternitatean
Zinduen deliberatu:
Egin behar zinduela,
Mundua eta salbatu.

Birjina Amaren Semea
Jesus adoragarria:
Duzula mende handian
Egun bezala gloria.

Birjina Jesusen Ama,
Graziaren ithurria:
Ala zure ontasunak
Guretzat xarma handia.

Gloria duzula bethi,
Aita zeruetakoa,
Spiritu Jaun, bi Presunen
Fruitu amoriozkoa.

Andre dena Mariaren lethariñak

Jauna, urrikal gakizkitzu.
 Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.
 Jauna, urrikal gakizkitzu.
 Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.
 Jesus-Kristo, adi gaitzatzu.
 Jesus-Kristo, entzun gaitzatzu.
 Zeruko Aita, seiña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
 Semea, munduaren Salbatzaillea, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
 Spiritu Saindua, zeña baitzare Jainkoa, urrikal gakizkitzu.
 Trinitate Saindua, zeña baitzare Jainko bakoitz bat, urrikal gakizkitzu.
 Maria saindua, othoitz egizu guretzat.
 Jainkoaren Ama saindua, ...
 Birjinaren Birjina saindua, ...
 Jesus-Kristoren Ama, ...
 Grazia dibinoaren Ama, ...
 Ama guziz xahua, ...
 Ama guziz kastoa, othoitz, ...
 Ama tatxarik izatu eztuzuna, ...
 Ama maitagarria, ...
 Kreatzaillearen Ama, ...
 Salbatzaillearen Ama, ...
 Birjina guziz prudenta, ...
 Birjina ohoragarria, ...
 Birjina laudagarria, ...
 Birjina puxanta, ...
 Birjina mansoa, ...
 Birjina leiala, ...
 Justiziaren miraila.
 Zuhurtziaren tronua.
 Gure bozkarioaren kausa.
 Untzi spirituala.
 Untzi ohoragarria.
 Arrosa misteriozkoa.
 Dabiden dorrea.
 Dorre borthitza.
 Urrezko palazioa.
 Bakearen arka.
 Zeruelako Portalea.
 Goizeko izarra.
 Erien osasuna.
 Bekhatorosen ihezlekhua.
 Doloratuen konsolatzaillea.
 Giristiñoen faborea.
 Aingeruen Erregiña.
 Patriarken Erregiña.
 Profeten Erregiña.

Apostoluen Erregiña.

Martiren Erregiña.

Konfesoren Erregiña.

Birjiñen Erregiña.

Saindu Guztien Erregiña.

Gu bekhatoreak izanagatik, entzun gaitzatu, andrea, plazer baduzu.

Othoizten zaitugu guri ardiatsteaz egiazko urrikimendua, entzun gaitzatu...

Othoizten zaitugu, ardiatsteaz Eliza sainduari, eta giristi-populu gustiei bakea eta batasuna, entzun gaitzatu, plazer baduzu.

Othoizten zaitugu ardiatsteaz gure Aita Saindu, zure zerbitzari N.I. eta gure prelati, eta Eliza gustiari grazia dibinoaren airea. Entzun gaitzatu...

Othoizten zaitugu ardiatsteaz guri eta giristiño Prinze gustiei bakea eta osasuna, eta etsaiei beheramendua, Entzun gaitzatu, plazer baduzu.

Othoizten zaitugu ardiatsteaz fidelen arima defuntu gustiei bethiereko errepausua. Entzun gaitzatu, plazer baduzu.

O Jainkoaren Ama, entzun gaitzatu, plazer baduzu.

Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduaren bekhatuak, barka diezaguzu, Jauna. Entzun gaitzatu, plazer baduzu.

Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduaren bekhatuak, barka diezaguzu, Jauna. Entzun gaitzatu, plazer baduzu.

Jainkoaren Bildotsa, zeñak khentzen baitituzu munduaren bekhatuak, urrikal gakizkitzu.

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.

Jauna, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, urrikal gakizkitzu.

Jesus-Kristo, entzun gaitzatu.

Othoitz egigun.

O Jauna, othoizten zaitugu ahalik humilkiena, zure graziaren hedatzeaz gure bihotzetara; gu, zeñek Aingeruaren erranez ezagutu baitugu Jesus-Kristo zure Se-mearen inkarnazionea, arriba gaiten haren Pasionearen eta haren Heroitzearen me-rezimenduz Resurrekzionaeren gloriara, Jesus-Kristo Jaun beraren faborez. Hala biz.

V. Partea
GIZONAREN LAU FIÑAK

**JESUS-KRISTO GURE SALBATZAILLE JAUNAREN
KONSEILLU HANDIA. (Mat. 19)**

Zer progotxu duk, gizona,
Mundua irabazteaz,
Lurrean eta itsasoan
Gustien Jaun izateaz,

Baldiñ ezpaduk ifernutik
Beiratzen hire arima,
Eta fiñean ardiatsten
Jainkoaren erresuma?

Zer progotxu bizi izanaz
Urrean eta glorian,
Baldin ehortzi behar baduk
Sekulako su handian?

Gizonaren lau fiñak

Jainkoaren prezentzia

Bethi esklabo egitekotz
Mundu eta deabruak,
Bekhatuen lillura eder
Eta gorphutzen sensuak,

Hartu behar duk erredola
Nihon ez bezalakoa.
Bekhatorea, errak beraz:
Begira dagot Jainkoa.

Herioa

Segur diagu Herioa,
Bañan ez haren orena;
Ez zeakiat ikhusiko
Dukedan biharamuna.

Kruela! lekhu gustietan
Nahi ziaikuk oldartu;
Bekhaturik gabe gu ere
Behar giaizkok kausitu.

Jujamendua

Jauna, pensatu nahi ditut
Eternitateko penak,
Pena, noizbait, juje bezala
Ordonatuko tutzunak.

Akusatu eta jujatu
Nahi dut ene burua,
Ene fabore izatekotz
Orduko jujamendua.

Ifernua

Sekulako dohakabeen
Egoitza ilhun tristea!
Dolore suerte gustiez
Ene jujeak bethea!

Joan tuk lurrean instant batez
Ene munduko plazerak;
Ifernuan bethi egonen
Sekulako desplazerak.

Parabisua

Egoitza eder dohatsua!
Zeruetako gorthea!
Atsegin suerte gustiez
Ene Jainkoak bethea!

Hartzekotzat moment batez
Galtzen den plazer mortala,
Segur eztiat galdu nahi
Erresuma eternala.

Eternitatea pontu batean dago

Ah, zein ederra izanen den
Pontu hau justuarentzat!
Bañan ah, zein harrigarria
Gaxto damnatuarentzat!

Pontu hau begiratzen baduk,
On gustiak tuk salbatzen:
Pontu hau baldiñ galtzen baduk,
On gustiak dituk galtzen.

Bekhatutik aparta adi
Gizonaren denboretan;
Hagitz dohatsu izanen aiz
Gero bethi zeruetan.

Minuta pontutto batean
Ziagok hire gloria;
Memento baten ez deusean
Eternitate gustia.

Herioak arrapatzen tik
Koroak eta tiarak,
Ontasun gustiak hondatzen
Eta bolatzen plazerak.

Eztik bere denbora segur,
Bañan segur dik kolpea:
Kolpe gaitza gaxtoarentzat,
Gustientzat terriblea.

Señiorale gaituk gustiok
Bizi gareiño lurrean;
Gure biaia akhabo duk
Herioa ethortzean.

Pensa dezagun, bethi pensa
Behar dugula pasatu;
Behin baizen hillen eztenak
Bethi behar dik pensatu.

Hire bizia begira zak
Heriotze supitutik,
Maiz asko ethortzen duk, bada,
Nork uste eztuelarik.

Ohoiñ hunek bere kolpea
Egiten dik estalirik,
Ala hau baitago hanitzei
Zerua galarazirik.

Beirauk sekulan ez eraman
Hire bizia lurrean
Hiltzeko urriki ukeen
Estatu perillosean.

Kruela duk, edo zoroa,
Edo itsua gizona,
Hil nahi eztauen bezala
Memento bat bizi dena.

Justua hil eta ondoan,
Joaten duk zeruetara,
Gaxtoa hil eta ondoan,
Bazioak ifernura.

Nola bizi izatu baita,
Hala hiltzen duk presuna:
Bere eskuetan tik beraz
Zori gaitza, zori ona.

Pensa zak zeñ den harrigarri
Munduan heriotzea,
Eta pensa zaiñ maitagarri
Jainkoaren Gurutzea.

Jesus onaren doloretan
Bethi behar duk pensatu;
Dolu dukela Jesus onaz,
Heriorat preparatu.

Othoitza gogotik hartzekotz eritasuna eta heriotzea

O Jesus, ene min gustiak
Gogotik ditut hartuko,
Baita ene nigarrak ere
Gau eta egun isuriko.

Dobla dietzadazu penak,
Dobla ene dolorea,
Ordean indaitzu indarrak,
Ene Jongoiko emea.

Balia zakizkit, juje on,
O ene amudioa,
Hartzen dut zure eskutarik
Miñekien herioa.

Indaitzu plazer tutzun penak
Zuk nahi bezañ kruelak;
Bañan eztetzatzula sofri
Egin daiten eternalak.

Ala ni binaute ederki
Dolore hauk konsolatzen!
Jainkoak bainau fazoiñ huntan
Amudioz gaztigatzen.

Bihotza, har dezak kuraia,
Penak darozkit egortzen;
Ordean bere erresuman
Gloria darok beiratzen.

Jesus-Kristo gure salbatzaillearen baithan esparantza

Ah, heriotzeko orena,
Ala hi harrigarria!
Jauna, lagun zakizkit, othoi,
Gertha dakidan ezta.

Kalbarian izatu tutzu
Bortz zauri dolorezkoak;
Zeruko portaleak dire,
Athe amudiozkoak.

Hil-ondoan, ene arima
Jujatu behar denean,
Emazu zure Gurutzea
Gure bien arartean.

Zathitu izan zaitzunean
Zure gorphutz sakratua,
Egiñ zen gure sendatzeko
Ithurri bedinkatua.

Arren, beraz ezazula har
Ene hobenen bengantza!
Zure odola laguntzen zait,
Eman darot esparantza.

Handik usten darozkigutzu
Balsamo eta ezta;
Gurutzeaz egiñ duzu
Gloriako zurubia.

Bai, aithortzen dut, egia da,
Gaxtoa izan naizela;
Bañan nola, ez zare zu hil,
Salbatu behar nauzula?

Parabisuan gozatzeko
Zure plazer eternalez,
Gozatu behar da munduan
Zure dolore mortalez.

Nik izatekotz esparantza
Zeruetako gorthean,
Asko dut zure ikhustea
Gurutzearen gainean.

Bilhatu nauzu, zureganik
Ihesi nenbillanean;
Baldinba ez nauzu utziko,
Bilhatzen zaitudanean.

Bethi ere pensatuko dut,
Jesus, zure herioan,
Hil eta bizi egoteko
Amudio dibinoan.

Jesus-Kristo salbatzaille jaunari othoitza

O herio guziz kruela!
Hik nor eztuk ikharatzen?
Haiñ gogorki tuzkenaz geroz
Hire legeak finkatzen.

Guregatik hil zaren Jesus,
Gure fidantza dulzea,
Ikhusi dugu nola duzun
Besarkatu Gurutzea.

Populuez eta prinzeez
Orobat duk triunfatzen;
Segurki gustietara
Hire kolpea hedatzen.

Badakit gu salbatu nahiz
Amudioz hil zarela,
Egiñ duzula Gurutzeaz
Gloriako eskarela.

Jesus Hanean zathitua,
Bihotzen amudioa,
Bethi gogoan izanen dut
Zuk sofritu herioa.

Herio, ô herioa,
Ala hi izan kruela!
Ez nauk bada hiretzat beldur,
Egik plazer duken gerla.

Egiñen tut ene begiez
Nigarrezko ithurriak,
Eta zure pena borthitzez
Ene dolore handiak.

Jainko hil denak ziarotak
Ene bihotza altxatzen;
Ez naizela segur galduko,
Jainkoa badut maitatzen.

Agonian denarentzat othoitza

Jendeak! Ala eri hunek
Pena handiak sofritzen!
Bekhatuek eta deabruak
Gustia die harritzen.

Azken gudu huntan, zeinaren
Zu baitzare prezioa,
Garait-arazi diozozu
Luzifer superbioa.

Bazioak, eztakiela
Zeiñ lekhu suertetara,
Bazioak bethiereko
Etxe handian sartzera.

Bizitza akhabatzean,
Akhaba beza biaia;
Herioa gertha bekio
Egiñik lagun ezia.

Bere familia kitatzen dik:
Aita, ama, emaztea,
Anai, arreba, adiskideak,
Alaba eta semea.

Zure gloriak gozatzeko
Zurekiñ parabisuan,
Ah, othoi, finka diozozu
Azken urratsa zeruan.

Ez zeakik izanen duen
Palaziotzat zerua,
Ala izanen othe duen
Sekulakotz ifernua.

Jainko Jauna, ahantz bekizu
Hunek egiñ huts guzia;
Ikhusazu nola dagoen
Egiten penitentzia.

Ea izanen den dohatsu
Zeruetako glorian,
Ala behar den dohakabe
Ifernuko su gorian.

O, barkha diozotzu beraz
Gaxoari bekhatuak,
Eta eman zure odolaz
Zuk irabazi lekuak.

Jainkoa, zerorek gaitutzu
Damnatzen eta salbatzen,
Koroatzen parabisuan,
Ifernuan gaztigatzen.

Jauna, ez dezazula entzun
Gehiago justizia.
Hunen kontra oihuz dagotzu
Zure kolera guzia.

Ah, ematen baziño huni
Sekulako biktoria!
Bañan, ah, ematen baziño
Zeruan zure gloria!

Sosegatu behar diozu
Bere ikhara mortala;
Adi zazu, galdez dagotzu
Hunentzat zure odola.

Birjina, Jainkoaren Ama
Gure adbokat maitea,
Zerua idek diozozu,
Zu zare horko athea.

Zure amatasunaz zaitut
Humilki errekeritzen.
Ah, eri gaxo hau bazindu
Oren huntan faboratzen!

Helas! erakuts diozozu,
Birjina, zure bisaia;
Ama, ardiats diozozu,
Seme onaren grazia.

Heldu den denbora luzean
Bethi zaitu laudatuko;
Bethi Jesus, zure Semea,
Zurekiñ adoratuko.

Presuna hil denean

Fiñean hil da, utzi gaitu,
Galdu du bere bizia.
Ah zerua! Ikhusten balu
Gloriako iguzkia!

Zertako da hunentzat orai
Munduan zuen gloria,
Zertako plazerak, tresorak,
Zertako abundantzia?

Beraz bethi kontenta bedi
Dohatsuen konpainian;
Gora bedi zure plazerez
Eternitate handian.

Mundutik joan ondoan, eztu
Deusek ere segituko;
Berthutea baizen orduan
Eztzaio baliatuko.

Adizagun: hilla mintzo da
Ixillikan dagoela:
«Entzun diat enetzat eman
Sententzia eternala.

Zer diodan, beraz adi zak:
Egun duk ene eguna;
Bañan bihar hik izanen duk
Halaber hire oreña».

Jesus-Kristo Jujearen tronua jujamenduan

O arrazoiñezko kolera,
Graziarik gabekoa!
Lekhu esperantza galdua!
Denbora burdiñazkoa!

Zeiñ terriblea izanen den
Egun hartako jujea!
Zer ihortziria soiñua,
Haren bozaren kolpea!

O ezinbertzeko legea!
Jainkoaren tribunala!
Zuregatik adituko dut
Sententzia eternala!

Orai maitatu behar dugu
Salbatzaille gloriosa,
Nahi badugu gero alde
Jesus Juje rigorosa.

Orai ikhusi behar dugu
Emanen den sententzia,
Bizia orai ganbiatu,
Obratu penitentzia.

Sofritu nahi eztuenak
Sekulako gaztigua,
Hemen behar du, harat gabe
Jujatu bere burua.

Orduan juje hark, orduan
Juje espantagarriak
Ematen ditu jujamendu
Gustiz arraillagarriak.

Armak harturik eskuetan
Nola den kurrutatuko,
Gaxtoen kontra zer su duen
Egun hartan lantzatuko.

Bañan halaber beldur gabe
Edirenen da justua,
Justizia du ikhusiko
Bakhearekiñ bathua.

Orduan diotza jujeak
Portaleak zabalduko,
Orduan du bere argiez
Zeruan koroatuko.

Bañan nork ere ezpaituke
Satisfatu justizia,
Bethi sofritu beharko du
Justu den pena guzia.

Justua bada, bañan izan
Zenbait tatxaz nothatua,
Joanen da suaren erdirat,
Garbitzekotz bekhataua.

Purgatzeko pena hetara
Hil ondoan ez joatekotz,
Bañan, laster heriotzetik
Gloriarat pasatzekotz;

Ariñtzekotz arima huni
Bere tromenta gogorak,
Aditzak hunen errenkurak,
Eta emotzik nigarrak.

Purgatorioko arimaren auhenak

Misereremini mei, saltem vos amici mei

Anaiak, jaiki zaitzte,
Entzun ene auhenak;
Idekitzatzue begiak,
Konsidera ene penak.

Fortuna estrainioa!
Zuek zuen ohean,
Eta ni sofritzen bainatza
Errerik hemen supean!

Aditzatzue nigarrak,
Ikhus ene lastima.
Etxe-kharrean nagoela
Zeruan dut erresuma.

Baldiñ osoki ezpadut
Galdu ene gloria,
Eneganik ezperen urruti
Ageri da ezarria.

Hauk eztutzue sentitzen,
Tromentaren handia!
Hunela tratatzen tutzue
Natura eta grazia?

Ingratak! Arima dute
Bihotzetan ahantzi,
Gorphutza izatu denean
Thonba barnean ehortzi.

Adiskidea, hik behar tuk
Ene penak aditu;
Ah maitea! Urrikal nakik,
Jainkoak niauk zehatu.

Sainduekiñ izatekotz
Sekulako gloria,
Hik egik othoitz eta egik
Enetzat penitentzia.

Eder zaizkik hire dantzak,
Jokoak, komediak;
Ez frogatzeko ene brasak,
Utzik horiek gustiak.

Kita munduko ontasun,
Ohore, atsegiñak;
Entzun etzak ene nigarrak,
Eta entzun ene miñak.

Hire plazerak kitatzak,
Kita banitateak.
Ago bethi beheraspenez,
Isur nigar uholdeak.

Gurutzea besarka zak,
Paira barur luzeak;
Eztituk gero pairatuko
Pairatzen tudan gatheak.

Purgatorioetako arimaren eksortazionea bekhatoreari

Bekhatorea, eztuk bada
Egiñen penitentzia?
Egik nigar, ez sofritzekotz
Ifernuko su handia.

Ethorriko duk, ethorriko
Denbora batez denbora,
Jakiñen baituk zeñ den pisu
Jainko Jaunaren kolera.

Orduan ezpaituk izanen
Begirik urtan urtzeko,
Ez eta haiñ guri bihotzik
Jainkoaren maitatzeko.

Zeiñ gauza beharrak baitire
Eskuak armen hartzeko,
Nigarrak haiñ beharrak dituk
Arimaren salbatzeko.

Eztuk posible burdin barrez
Oĩnak lothurik joatea,
Ez eta gloriarat ere
Ifernutik igatea.

Utzkik beraz hondalezeak,
Utz su madarikatuak,
Hire bekhatu injustuez
Isurtzak nigar justuak.

Ikhusak nola doan laster
Denbora bere bidean;
Zuhur bahaiz, pensatuko duk
Eternitate luzean.

Pensatzak beraz, pensa bethi
Zeiñ diren pena kruelak,
Zeiñak baititu ifernuan
Sofrituko kriminelak.

Bizirik jautsten den presuna
Ifernuko penetarat,
Piztu ondoan igaten duk
Zeruko plazeretarat.

Pensazak beraz, bethi pensa
Tulunbioko kharretan,
Suzko etxe, suzko tromenta,
Suzko burreu krueletan.

Pensa herio biziaren
Zer diren krueltasunak,
Gero ezpaitu pairatuko
Orain pensatzen duenak.

**Purgatorioan sarthu gabe
zeruetara joateko bidea**

Purgatzeko leze ilhunak,
Justoen presondegia!
Beldur nauk, pensaturik zer den
Hire lastima handia.

Ikhusirik ene arimak
Hire su-lama gorriak,
Hire ihez pairatuko tik
Munduko pena gustiak.

Dies irae dies illa

Prosa

Mundua jujamenduan,
Egun kolerak minduan,
Herrauts egiñen da suan.

Orhoit zaitte enegatik
Jautsi ziñela zerutik,
Salba nazazu mundutik.

Nolako izialdura!
Jausten denean mundura
Juje Jauna jujatzera.

Unhatu ziñen lurrean.
Ene bilha Gurutzean,
Beira nazazu aldean.

Trunpeta iotzen denean
Hillak memento berean
Bilduko tu aitziñean.

Bengantzen juje justua,
Galdegiñ gabe kontua,
Indazu barkhamendua.

Harrituko da natura
Ethortzean kreatura
Tronuaren ingurura.

Bisaia zait ahalkatzen,
Bekhatuek ikharatzen,
Ez natzaitzu hurrikaltzen?

Izanen da liburua,
Non baitaite markhatua
Bat-bederaren kontua.

Maria duzu salbatu,
Ohoïn onari barkhatu;
Niri bihotza altxatu.

Jaun jujea da jarriko
Huts gustien jujatzeko,
Eztu deusik barkhatuko.

Arren, indazu grazia
Paira su harrigarria
Ez dezadan, Jaun ezta.

Gaxoak zer dut erraren,
Benturaz baita izaren
Justu dena salbaturen?

Har nazazu eskuiñean,
Zure artalde maitean,
Eta ez utz ezkerrean.

Erregerik handiena,
Gustientzat hil zarena,
Ez nazazula kondemna!

Damnatuak bentzuturik,
Su asprean hondaturik,
Deit nazazu zeureturik.

Galdez nago belhauriko,
Bihotza doluz hiltzeko,
Ah! noiz nauzun salbatuko.

Eguna, hire ilhuna!
Pitztu gizon hobenduna
Jujatuko den eguna!

Jesus guziz amultsua,
Barkaturik bekhatua,
Huni emozu zerua.
Hala biz.

Ifernua

O Jauna, zure eskuaren
Pisua eta puxanta!
Ala zuk ene punitzekotz
Baituzu hañitz tromenta!

Zer lekhtarar egotzi nauk,
Bekhatu dohakabea!
Parabisua galdu diat
Plazer gustiez bethea!

Burreu, urkhabe, suge, deabru,
Su, brasa, gau ilhun, gathe,
Bethi bizirik den herio,
Tulunbio kharrez bethe:

Kausitzen tiat ifernuan
Gau beltzen izialdurak
Eta frogatzen elementa
Fingabekoen ikharak.

Jaun handia, hunenbat kolpez
Behar ninduzun kolpatu?
Eta ez nuen miñik asko,
Zu baitzintudan kitatu!

Galdurik zeruko szpetroa,
Gatheak tiat eskutan,
Eta Jongoikoa galdurik
Deabruak bi begietan.

Zu galdurik galdu dut on bat
Posible den handiena,
Eta galdu tresor eder bat
Posible den ederrena.

Eztuk hemen plazer garabik
Ene miñen sendatzeko;
Eztuk munduan den gauzarik
Tromenta hauk kalmatzeko.

Zeruetan uste nituen
Erresuma dohatsuak
Urresko szepro, diadema
Eta tronu arraitsuak.

Argirik gabe dituk kharrak,
Lorik gabe gau handia,
Penak erremedio gabe,
Finik gabe miseria.

Bitartean hek galdu ditut
Ah, nik zer gloria galdu!
Eta galdu gehiago,
Zuganik bai naiz urrundu!

Leze huntan eztuk ondorik,
Ez graziarik zeruan,
Bihotzetan ez Jongoikorik,
Miñik baizen ifernuan.

Surik baizen ezta ifernua

Jainko Jaunak nahiz gorphutzak
 Eta arimak punitu,
 Tulunbio ilhun bat zien
 Lurrean barna formatu.

Ene laguna kharra diat,
 kharra ene janharria;
 Gaua, kharra; eguna, kharra;
 Kharra, ene edaria.

Etsaientzat zien eragiñ
 Koleran leze osoa
 Eta leze penaz bethean
 Pitztu suzko itsasoa.

Etxe egotekoa, kharra;
 Kharra, etxeko athea;
 Presondegi gustia, kharra;
 Kharra, burdiña gathea.

Guk hemen lekhu huntan dugun
 Suzko itsaso gorria,
 Nigarrez, oihuez, marraskez
 Gustia duk nahasia.

Brasarik eta kharrik baizen
 Eztiat nihon kausitzen;
 Gorphutzean eta ariman
 Kharrez niagok erretzen.

Gure orro patarak dituk
 Hemengo ihortziriak,
 Eta gure nigar aspreak
 Hemengo uhiñ handiak.

Itsasoa! O Itsasoa!
 Itsaso bethi gorria;
 Ala hik uhiñ terribleak
 Eta tromenta handiak!

Munduko gure faltak tie
 Hemen altxatzen haizeak,
 Eta gure plazer lizunek
 Su-elementen aireak.

Hire uhiña uhiñari
 Ziaioak bethi altxatzen,
 Eta suari bethi sua
 Bere furian saltatzen.

Eztiat itsasorik baizen
 Nihon ere inkuntratzen;
 Milla eta milla deabruak
 Sutan niautek hondatzen.

Bethi ere entzunen diat
 Itsaso hunen barnean,
 Ihortziriaz darontsala
 Jainkoak ene gaiñean.

Igerika hari nauk bethi
 Itsaso hunen erdian,
 Ezin aurkhituz sosegurik
 Deabruen gisa furian.

Beraz bethi izanen diat
 Penaren ondoan pena,
 Aurkhitu gabe behin ere
 Portu desira dudana.

Suari ihez egiñ nahiz
 Gibeletik diat sua,
 Ezin kausi ziezakeat
 Sekulan ihezlekhua.

Zeruak pena eternalaz
 Punitzen tik ene faltak.
 Pausurik gabe bethi tiat
 Sofritu behar tromentak.

Kharra duk ene jujearen
 Eskuan den elementa,
 Jueak ene punitzekotz
 Formatu duen tromenta.

Instant gustiez behar tiat
 Milla herio pairatu,
 Eta bizia diat behar
 Hanbat milletan kobratu.

Bakearen estrainioa!
Biak dituk akordatu,
Bizia eta herioa,
Behar nautela punitu.

Plazerak, ah plazer lizunak,
Gustien trunpatzailleak!
Urreak eta diamantak,
Begien xarmatzailleak!

Munduko fasak eta ponpak,
Bekhatuaren zuziak,
Atsegiñ, ontasun, ohore,
Ene miñen ithurriak!

Zer progotxu dut zuetarik,
Iragan zaretenean!
Zuek errerik, zuekien
Erre behar naizenean!

Berantegi ezagutu aut,
Enganagarri mundua!
Xizmista baten gisa joan duk
Hire lilluramendua.

Plazerak, tresorak, gloria,
Airean dituk bolatu,
Haizea baño lasterrago
Gauza guziak funditu.

Segur nauk, iragan direla
Gustiak instant batean,
Eta segur ezteela joanen
Pena eternitatean.

Postean posta nola baita
Berehala iragaten;
Nola fletxak baitu arinki
Bere bidea egiten;

Nola xoria joaten baita
Airea ebakirikan,
Eta untzia iragaten,
Itsasoa hautsirikan;

Gisa berean pasatu tuk
Munduan, ene plazerak,
Ene tresor, ene ohore,
Urtheak eta denborak.

Eta lehen zeri ekhartzen
Banioen amudio,
Egiñ ziaitak sekulakotz
Deabrua bezaiñ hastio.

Alferrik desiratzen tu munduko penak

Ala ni baininde dohatsu,
Penak ere doblaturik,
Libratzen banintz azkenean
Ifernuko su hautarik!

Ah, bai posible baliz
Hemendikan ilkhitzea:
Posible baliz Jainkoari
Barkhamendu eskatzea!

Baneakikek nola egiñ
Nigar ene bekhatuez,
Grazia galda Jinkoari
Gau eta egun gustiez.

Bañan zertako ditut orai
Nigarrak eta desirak,
Joan baitzaizkit bethierekotz
Jainkoak eman denborak?

Damnatu nauk: alferrik diat
Parabisuan pensatzen;
Bai, segur nauk: alferrik diat
Jainko ona desiratzen.

Galdu diat Jainko Handia,
Zerutik nauk desterratu,
Eta behar tiat supean
Su eternalak pairatu.

Orai bada nik zer dagiket
Zuentzat, zeru ederrak?
Bethi isuri behar tie
Ene begiek nigarrak.

Pairatu tristeziak, gauak,
Deabruak eta furiak,
Desparaziño, presondegi,
Burdiña gathe gorriak.

Hauk asko gabez, izanen tuk
Ene penak bethikoak:
Deabru, su, gathe, persondegi,
Gustiak sekulakoak.

Arima damnatuaren abisua

Jendeak, ikhara zaitzte,
Entzunik zein den handia
Damatu gaxoen gaiñean
Izanen den justizia.

Eztuk uste Jainkorik dela,
Ez haiñ guti ifernurik;
Arren, idekitzak begiak,
Gaxtakeriak utzirik.

Egizue penitentzia
Zeruetara joatekotz;
Isur-azue bethi nigar,
Ez Jainko Jauna galtzekotz.

Ah, begirauk ezagutzetik
Jainkoa bere furian;
Begirauk ikhus ifernua,
Ifernuko su gorian!

Itsua, ô gizon itsua!
Edo gizon zoratua,
Hire Jongoikoa galdurik
Bekhatuan agoena.

Supean horra zer dioen
Arima miserableak;
Plañitzen tik, bañan alferrik,
Bere pena terribleak.

Khar handian bethi zia gok
Eta bethi nigarretan;
Galdurik ontasun gustiak,
Bethi zia gok penetan.

Ifernutik begiratzeko othoitza

Ifernua, ô ifernua,
Galduen suzko etxea:
Hire penak ziarotatek
Buruan latzten illea.

Beldur nauk gaua, kharra, harra,
Sofritu beharko tudan,
Eta oraiño beldurrago
Jainkoa galduko dudan.

Kruelki pairatzen tik sutan
Gizonak suplizioak;
Bañan zerua galduz, hartzen
Tromenta kruelagoak.

Espantagarri penatzen duk
Galdurik bere koroa,
Bañan pairatzen gehiago,
Galdurik bere Jainkoa.

O Jesus, utziko tut ponpak,
Plazer gustiak galduko,
Zu, Jainkoa, on immensoa,
Zeruan ardiasteko.

Indaitzu sofritzeko pena
Nahi tutzun tenporalak;
Bañan khen dietzakidatzu
Elementa eternalak.

Ezta ifernu goriraiño
Zure odola hedatzen,
Eztitu hiltzen hango suak,
Bai gehiago berretzen.

Zure odolak tu egiten
Egun ederrak zeruan,
Eta arimen garbitzeko
Ur sakratua munduan.

Ene nigarrak hunekien
Nahasten ditudanean,
Xahutzen darozkit osoki
Bekhatuak bihotzean.

Pulunpa zazu khar handian
Arima dohakabea!
Egiñen tu bethi nigarrak,
Hil gabe khar haren khea.

Bañan asko tugu munduan
Gure nigarren bi xorta;
Hautsiko dute ifernuko
Khar handiaren tromenta.

Ifernuko tromenten gaiñean

Kopla

Pensa detzagun, pensa
Ifernuetako penak.
Eta galduak brasa
Bethi sofritzen tustenak.
 Bekhatuen utzteko,
 Hek tugu pensatuko.

Jainko egiazkoak
Dela dio ifernua,
Non sofritzen gaixoak
Baitu sekulako sua:
 Nork falta gehiago,
 Hark pena borthitzago.

Ifernua da lekhu
Pena gustiez bethe,
Justiziaren laku
Eta kharrezko etxea:
 Doloren lekhu,
 Damnatuak deithua.

Su bethi bizi haren
Khar hura da haiñ borthitza,
Non baitu xizpilduren
Arimarekiñ gorphutza,
 Konsumitzen eztela,
 Hil-Bizi hari dela.

Ala Parabisutik
 Urrun baita apartatzen
 Tromenta hauk gogotik
 Eztituena pensatzen!
 Salbatzeko behar tu
 Tromenta hauk pensatu.

Beraz pensa detzagun,
 Pensa fedezko puntuak;
 Arimak garbitzagun
 Eta kita bekhatuak.
 Daigun penitentzia,
 Ez galtzeko gloria.

Dialoga tromenta beren gainean

Helas! Erretzen hari nauk khar hunen barnean. Luk. 16.

Galdegitea

Kreatura damnatua,
 Jainkoak ahantzia
 Zer da hire ifernua,
 Zer dolore handia!
 Erraguk, erraguk:
 Zer pena sofritzen duk!

Galdegitea: (Plazeretarat emanari)

Bustel hatsa: irakatsak,
 Non da hire gorphutza!
 Non da amudio likhitzak
 Hiri erre bihotza?

Erraguk...

Errepusta

Zer aiphatuko darotzut!
 Erratez naiz penatzen.
 Berriz erraten badituz,
 Berriz naiz tromentatzen.
 Hela, hela!
 Segi ez gaitzatzula.

Errepusta

Hondaturik su handiak
 Eta tromentaturik,
 Erretzen daude gustiak
 Eztutela pausurik.

Hela...

Galdegitea: (Mundanoari.)

Mundane lilluratua,
 Non da hire gloria?
 Non ponpa haizez hantua,
 Non ohore handia?
 Erraguk...

Galdegitea:(Arnegariari)

Arnegari desparatu,
 Deabruaren laguna
 Non aiz aho pozoatu,
 Orroaz agoena?

Erraguk...

Errepusta

Ah, joan da gloria hura
 Xizmizta bat bezala,
 Arriberan nola hura,
 Eta nola itzala.
 Hela...

Errepusta

Suge errabiatuek
 Bethi gaituste jaten,
 Suge sutan gorituek
 Bethi penak ematen.
 Hela...

Galdegitea: (Mendekatzailari)

Ezin deus barkha ezaken,
Bihotz herraz bethea:
Sugea iduri uben
Edo deabru kumea.
Erraguk...

Guoi madarikatuak!
Ezpaitugu barkhatu!
Bengantzen juje justuak
Sutan gaitu hondatu.

Galdegitea: (Gaizkierraillerari)

Mihi gaizki erraillea
Prestuan ohoreaz,
Bethi gerla egillea
Innozenten bakeaz.
Erraguk...

Errepusta

Bikhe urthu eta sufre
Da ene janharria,
Eta hauk naute bethi erre,
Hauk erretzen mihia.
Hela...

Galdegitea: (Abariziosari)

Aberats gaxto gosea,
Non da hire zilharra?
Non tresora, non urrea,
Non da muble ederra?
Erraguk...

Errepusta

Ah! Kharrezko leze huntan
Dire gustiak urthu,
Eta ni su elementan
Hekiñ balsan funditu.
Hela...

Galdegitea: (Gormantari)

Ingrata, bestak hautsirik
Eta ofizioa,
Harturik bestien trazak,
Utzirik Jongoikoa:
Erraguk...

Errepusta

Ah! Nola hemen gosetzen
Gormandiza lizuna!
Jainkoak nola puntitzen
Meza gaizki entzuna?
Hela...

Galdegitea: (Bonaxeretan bethi
dabillanari)

Hari intzen bethi lehen
Dantzan eta jokoa:
Hire plazerak zituzken
Gormandizan, arnoan.
Erraguk...

Errepusta

Direla madarikatu
Joko, plazer, banketak,
Hekiñgatik baititugu
Ifernuko tromentak
Hela...

Galdegitea: (Konpañia gaxtoetan
ibilli denari)

Lagunentzat hik izatu
Hanbat konplazentzia:
Hanbat bekhatuz kargatu
Hire konzientzia.
Erraguk...

Errepusta

Ondikozko konpañiak,
Sekulako burreuak:
Elkharren gare furiak,
Elkharrentzat deabruak.
Hela...

Galdegitea: (Penitentzia egin gabe heriotzeraino luzatu duenari)

Hik bethi uste ubela
Konbertitu hiltzean,
Pairatzen duk su-kubela
Tulunbio beltzean.

Erraguk...

Errepusta

Herrak, furiak, nigarrak,
Desparazionea,
Urrikiak eta harrak
Dire gure partea.

Hela...

Galdegitea: (Koleratsuari)

Bañan hik, ô sumindua,
Hire herra handian,
Baduk kontentamendua
Bethiko khar gorian?

Erraguk...

Galdegitea:

Bethiko hitz hau guretzat,
O zer ihortziria!
Khar-leze hau gorphutzentzat
Lastimaren handia!

Hela...

Galdegitea:

(Damnatu gustiei kolpe batez):

Fiñean, hor ifernuan
Zeiñ da min handiena?
Pena horien lekhuana
Zeiñ pena kruelena?

Erraguk...

Errepusta

Esparantza ez izaren
Hemendik ilkhitzekotz!
Bethi suak berreturen
Supetan bizitzekotz.

Bethi-ere Zer denbora!
Bethi suzko lezean!
Elementak bethi paira,
Bethi fiñik gabeana!

Plazer labur baten gatik
Harturik bihotzean,
Khea bezala zelarik,
Erre behar supean!

Hela, hela!
Segi ez gaitzzatzula.

Quis poterit habitare de vobis
cum igne devorante? Quis habitabit ex
vobis cum ardoribus sempiternis?

Giristiñoak, zuetarik zein egon ahal
daiteke su iretsgarriarekin? Zein egon
ahal daiteke brasa sekulakoekin?

Parabisua*Zein hertsia den zeruetako bidea*

Nahi baduzu ardietsi
Lekhu plazerez bethea,
Zeruetan Jainkoak berak
Sainduei egiñ gorthea;

Bide zabala kita zazu
Hertsia baita segura.
Ifernura darama batak
Eta bertzeak zerura.

Helas! Zeiñ hagitz den hertsia
Parabisuko athea!
Jesusek dio, hertsi hau duk,
Kristaua, hire bidea

Bide hau hautatzen duenak
Utzi behar tik plazerak,
Banaloriak mespretxatu,
Erregelatu desirak.

Ala jende hañitz baitoa
Egun oroz ifernura!
Jende bilduma nombre gabe
Suzko eternitatera.

Mundu gustian nola baita
Berhute guti kausitzen,
Zeruetan jende guti duk
Jainkoarekiñ aurkhitzen.

Dohatsuak deitzen du gizona parabisura

Majestate paregabea,
Jainko adoragarria,
Trinitate guziz haltoa,
Dibinitate handia:

Zu zare Spiritu gustien
Argi gozo immortala;
Zu bihotz dohatsu, ederren
Edertasun eternala.

Ezta posible sofritzea
Zure baithan den argia;
Itsutzen gare ikhustez
Hirur Presunen gloria.

Zuen ontasun, zuen plazer,
Eta zuen ohorea,
Hagitz dire handiangoak
Ezen ez gure ustea.

Gizona ¡Ah, gizona! Non tuk
Arima eta gorphutza?
Zergatik duk horrenbat maite
Munduan duken egoitza?

Bañan zergatik egiten tuk
Lurrean horrenbat gerla?
Behar duk jakiñ, lur gustia
Punta bat baizen eztela.

Nihor ezin ziaitek handi
Lekhu ttipito batean;
Argi ilhun bat baizen eztuk
Hire gloria lurrean.

Zeri agoka itsuturik
Beraz horrenbat munduan?
Athor hunat, gozatuko aiz
Jainko osoaz zeruan.

Parabisura joateko desira

Lekhu ederra, hire baithan
 Jainko Jaunak dik gloria.
 Hik duk, bada, saindu gustiei
 Ematen saien saria.

Errege primu gabekoak
 Deus ere ez tik pairatzen,
 Posible diren on gustiez
 Bere baithan duk gozatzen.

Hire egoitza doahtsuan
 Eztuk plazera higuñtzen:
 Bethi dik irauten gloriak,
 Sekulan eztuk pasatzen.

Oihuz niagok, hi beharrez,
 O dohatsuen etxea;
 Hi herori desiratzen aut,
 Zeru plazerez bethea.

Palazio dibino hortan
 Eztuk penarik kausitzen:
 Sekulan ez tik dohatsuak
 Nigar xorta bat isurtzen.

Bai, hik duk hire on ederrez
 Ene bihotza xarmatu:
 Xoilki hiregatik nahi dik
 Mundu guzia kitatu.

Arima debotaren ontasuna da Jainkoa

Zure baithan tut, ô Jainkoa,
 Nahi tudan ontasunak;
 Mesprezio tut zuregatik
 Munduko handitasunak.

Elementa borthitzenean
 Ez naiz sekulan izitzen,
 Deusek ere ez tarot niri
 Ene bihotza tristatzen.

Higuñdu zaizkit zuregatik
 Lurreko diñitateak;
 Bertzelakoak nik zeruan
 Uste tut majestateak.

Enetzat ez tu deus ederrik
 Edo gozorik munduak;
 Zurekiñ haiñ onheristen tut
 Penak eta desterruak.

Prosperitate handietan
 Ez zait bihotza altxatzen;
 Ez fortuna baxoan ere
 Eztzait kuraia flakatzen.

Zu zare ene on gustien
 Egiazko ithurria,
 Eta zu ilhunpean ere
 Arimako iguzkia.

Eremuan mundu bat badut
 Zu enekiñ zarenean;
 Ene esparantza zaitezke
 Hiltzen ere naizenean.

**Lekhu sainduak bisitatu ondoan,
aitoren seme bat hiltzen da amudios Olibeseko mendian**

Salutatzen zaitut, Olibes,
Mendi saindu aberatsa;
Zure baithan zuen finkatu
Jesusek azken urratsa.

Herioaren Erregea
Bere tronu ederrean,
Zure puntatik zen altxatu
Hedoi aingeruz bethean.

Zu ikhusiz gerostik nago
Bozturik noiz hillen naizen,
Ez zaitut sekulan utziko
Zerura joatekotz baizen.

Ez, eztitut ikhusi nahi
Erregeen jauregiak,
Ez eta bertze palazio,
Begien trunpagarriak.

Argitzen ari dire hetan
Zeñek hobeki argiak:
Urre, zilhar, perla, diamant,
Elefant hexur xuriak.

Hemen behin ikhusiz geroz
Lekhu adoragarriak,
Zeruak baizen ezetzake
Kontenta ene begiak.

Jesus Jaunak bete urratsez
Sakratu lekhu sainduak,
Adoratu tut eta egiñ
Gustiei ene musuak.

Bake guri eman nahiz
Han gerla zuen hautatu;
Heriotzea sofriturik,
Han herioa garaitu.

Bisitatu zaituztet, lurrak,
Lur milletan dohatsuak:
Arroka, arribera, haran,
Landa, mendi, eremuak.

Bethleem, ikhusi nauk sartzen
Hire leze ilhunean;
Ikhusi nauk, Jordango ura,
Arriberaren aldean.

Jesus, zu segituz geroztik
Lekhu saindu hautaraiño,
Zer behar dut segitu baizen
Zeruko gloriaraiño?

Mendian egiñ tut nigarrak,
Non erostekotz gizona
Semeak pagaturik Aita,
Galdu baitzuen eguna.

Helas! Ez nintzen hil dolorez
Kalbariaren gaiñean,
Hillen nintzela amudioz
Olibesko baratzean.

Ez nazakela khen hemendik,
O amudio saindua,
Eman nahi ezpadarotak
Hunen ondoan zerua.

Amudio sainduak beraz
Ene othoitzak entzun tu;
Arroka huntan barna darot
Ene thonba preparatu.

Jadanik estaltzen darozkit
Ene bi begi argiak;
Eztu nahi ikhusi detzadan
Haiñ lekhu miragarriak.

Jainkoak sakratu lekhu hauk
Nekez nituzke utziko,
Kitatu behar ezpanitu
Zeruetara joateko.

Beraz, asko negar egiñ duk,
Ene arima, munduan;
Hoa, hire beira ziagok
Hire Jainkoa zeruan.

Jesus, Jainko eta gizona,
On gustien ithurria,
Zure maitatzeaz plazer dut:
Arren, indazu gloria.

Hauk hunela erran ondoan,
Begiak ditu zarratu,
Eta arima Jainkoari
Amudioz errendatu.

Parabisuaren galdegiteko othoitza

Gustien Salbatzaillea,
Gizon Jongoiko berria,
Zuk bethi ere Aitari
Eman diozu gloria.

Espiritu dibinoaz
Gida nazazu munduan;
Hil ondoan har nazazu
Sainduen balsan zeruan.

Bethi zu nahi zaituste
Aingeruek kontenplatu;
Zu saindu dohatsu gustiek
Zure glorian maitatu.

Orduan da ageriko
Eguna bethi argia:
Orduan da ikhusiko
Sekulako iguzkia.

Jauna, indazu bothere
Zuri plazer egiteko,
Zure desira gustien
Bethi ere konplitzeko.

Ezta hiri hortan kontra
Edireten arima bat:
Hor ezta bakerik baizen;
Gustiek dute bihotz bat.

Fiñean hor kausitzen da
Segurantza erreala;
Hor gloria dohatsua,
Eta pausu eternala.

Memorare novissima tua et in aeternum non peccabis. Eccli. 17
Bekhatuaren defenza da jujamenduaren,
ifernuaren eta azken fiñen orhoitzapena.

Ene Seme, pensa detzak
Gizonaren lau azkenak;
Eztuk faltarik egiñen,
Ala zioz Jainko Jaunak.

Hiltzen aizen mementoan
Izanez aiz jujatuko;
Edo kondemnatuko aiz,
Edo justifikatuko.

Hillen duk, hillen duk hire bizia,
Hillen duk, hillen duk,
Hillen duk, mundu guzia.

Hillen duk...

Geldirik lo agoela
Hiltzen hari aiz ohean;
Egun bizi den presuna
Bihar ziaitek lurrean.

Baldin faltarik ezpaduk,
Entzunen duk hitz ezta:
Emanen darok Jainkoak
Zeruan bere gloria.

Hillen duk...

Hillen duk...

Aurkhitzen bahaiz hobendun,
 Surat au kondemnatuko,
 Jainkoa Jongoiko deiño,
 Ifernuan erretzeko
 Hillen duk...

Beraz, seme, pensa dezak,
 Begira dagok zerua;
 Ikhusi nahiz ziagok
 Hire herio saindua.
 Hillen duk...

Lastima harrigarria!
 Bethi desaparaziñoan!
 Eziñ kausituz Jainkoa
 Eternitate osoan!
 Hillen duk...

Pensatzak herio, juje,
 Ifernu eta zerua;
 Ene ahotik har dezak
 Azkeneko konseillua.
 Hillen duk...

Eternitatea

Arima damnatuak galdegiten dio Jainkoari zenbat egonen den ifernuan. Jainkoak ihardesten dio egonen dela helduden eternitate handiaren hedadura gustian. Ergo erravimus a via veritatis et lux justitiae non affulsit nobis. Sap.5.

Beraz, zeruko iguzkia
 Ez zaiku guri altxatu,
 Eta egiazko bidetik
 Urrun gare errebelatu.

Ezta sekulan iragaten
 Bethi dagoen eguna.
 Eguna beraz, hire luzea,
 Egung bethi agoena!

Beraz, denbora pasatu da
 Sekulan ez ethortzeko!
 Ethorri eternitatea,
 Sekulan ez pasatzeko!

Ez gelditzea behiñ ere,
 Bidea, hire luzea!
 Bethi dolorez egotea,
 Dolorearen asprea!

Beraz, bethi iraun behar dut,
 Bethi dudala sofritzen,
 Eta bethi pairatu behar
 Ez naizela konsumitzen!

Zenbait million urthe banu
 Egon behar ifernuan,
 Uste nuke handik libratu
 Hek akhabatu buruan.

Bethi eta bethierekotz,
 Ah, zeruko Jongoikoa!
 Ala denbora luzea,
 Bethi bethierekoa!

Edo hek asko ezpalire,
 Million egon nindeke,
 Millionen ondoan bertze
 Million sofri netzake;

Hek ere ezpalire asko,
Hainbertze dobla netzake;
Bertze hainbertze doblaturik,
Hagitz konsola nindeke.

Edo konda betza norknahi
Nahi dituen bezanbat,
Bañan akorda bekit noizbait
Azken fiñean urthe bat.

Zer izanen da, beraz, nitzaz
Hanbat urtheren ondoan!
Bethiere beharko baitut
Suaren tulunbioan!

Eternitate luzearen hedadura

Hau jakiteko zerbait moldez
Behar dut kontu bat hartu:
Beraz behar dut kontu handi,
Handi bat konsideratu.

Zenbat oraiño herrauts bihi
Bide idor gustietan;
Mendietan zenbat lur xehe,
Zenbat uri hedoietan;

Zer dela beraz erranen dut
Eternitate handia?
Zerekiñ konparatuko dut
Deklaratzekotz gustia?

Posible othe da kontu bat
Handiago pensatzea,
Gizonek edo aingeruek
Gehiago kondatzea?

Asko kondatuko othe dut,
Kondaturik hanbat urthe
Zenbat (mundu hasiz geroz)
Joan baitire ilhabethe?

Bethi luzea erran nahiz
Hunenbat baitut kondatu,
Harea, errauts, legar, ostu,
Ur xorta, uri pensatu;

Erranagatik hanbat mende
Zenbat ostu oihanetan,
Itsasoan zenbat ur xorta,
Zenbat harea kostetan;

Hauk gustiak beraz erranik
Ez othe dut azarkatu?
Ala kondaturik sobera
Ez othe naiz enganatu?

Ezen ezta posible haiñ den
Luze eternitatea;
Segur behar da laburrago
Delarik hagitz luzea.

Jainkoa

Adizak, damnatu arima,
Mintzo zaik hire Jainkoa,
Eziñ hutsik egiñ dezaken
Egia egiazkoa.

Trunpatu aizela uste duk?
Ez segur, ez aiz trunpatu;
Eta hauk berriz doblaturik,
Ez uke asko kondatu.

Damnatua

Oi, bada, Jauna, nork dezake
Konda horien nonbrea?
Badidurite hauk gustiek
Bilduma nombre gabea.

Ezperen nonbre hauk gustiak
Akhabatzen direnean,
Eta azkeneko bihia
Pasatzera gerthatzean;

Zertan othe lizate, Jauna,
Ene eternitatea?
Ez othe lizate hurbildu
Aphur bat azken urthea?

Jainkoa

Eztuk posible izan dadin
Sekulan azken urthea,
Ezpaiztaio ondoan falta
Batari bethi bertzea.

Erresekek nola baitute
Batak bertzea pusatzen,
Urtheek ere hala die
Elkhar ondolik segitzen.

Damnatua

Oraño kondatzen banitu
Kontu hartaz bertze milla;
Edo hek asko ez izanez,
Baliz bertze urthe pilla?

Jainkoa

Zer diok, pilla eta milla,
Damnatua, zer darasak?
Mende gustiez erreko au
Ifernu goriko brasak.

Damnatua

Eztitut bada asko eman,
Hanbat milla urthe suan?
Ezperen horra bertze milla
Nonbre horien buruan.

Jainkoa

Gehiago erran behar duk.
Egik beraz bertze pilla;
Eta bertze milla kondatzak,
Milla bethi, bethi milla.

Damnatua

Jauna, millen ondoan milla!
Milla bethi, bethi milla!
Noiz ethorriko zaiku beraz
Azken azkeneko pilla?

Jainkoa

Hasterik ez dik iragan den
Eternitate luzeak,
Eta eztik fiñik heldu den
Bertze eternitateak.

Biak orobat luze dituk,
Joan denak eztik hasterik,
Eta ondolik heldu denak
Halaber eztik azkenik.

Iragan dena bethe duk
Sekula kontugabeez;
Eta bethea heldu dena
Sekula infinituez.

Damnatua

Espantu latza! Nola beraz
Egonen naiz hanbat urthez!
Hanbat milla, hanbat million!
Erreko naiz hanbat mendez.

Beraz hanbat pairatuko dut
Ifernuko su gorrian,
Tromentek dirautela bethi
Eternitate gorian.

Ah! Zer da hua? Ez behin ere
Fundituko herrautsean!
Bethi biziko deabruekiñ
Eta ez hillen supean!

Oi, bada, nik lehen pena hau
Munduan ezagutzera,
Begiratuko bide nintzen,
Ifernurat erortzera.

Hek izanen baitzuten fiñ bat
Denborarekiñ batean;
Bañan hauk iraun behar bethi
Eternitate luzean.

Lehen sofrituko nituen
Tiranoen su handiak,
Hekiñ gathe, hurkhabe, burreu,
Lehoiñ, tromenta gustiak.

Ah, nork jakin du egundaiño
Bethi, joan den bethikoa?
Eta nork sekulan jakiñen
Sekula gibelekkoa?

Bethi erre! Sekulan sofri!
Dolorearen handia!
Bethi hark eta sekula hark
Naute flakutzen gustia!

Deklaratzen du zer den bethi eta zer den sekula

Sekula dago geldirik bethi,
Sekulan ezta higitzen;
Bañan bethi doa **sekula**,
Sekulan ezta gelditzen.

Gustiok beraz adi zagun
Enigma miragarria:
Damnatuentzat tromenta duk,
Salbatuentzat gloria.

Beraz **bethi** ezta sekulan
Momento bat higituko,
Eta **sekula** ere ezta
Momento bat geldituko.

Biak bat dituk, eta bat hark
Zidurik bia direla;
Bazidurik dela egoten
Eta zidurik doela.

Nork daki beraz bethi,
Bethi geldi dagoena,
Eta zer den **sekula** ere
Bethi joaten ari dena?

Bethi dagoen hau deitzen duk
Bethi bethierekoa,
Eta **sekula** joaten dena
Sekula sekulakoa.

Beraz **sekula** eta **bethi**
Izendatzen duk mendea,
Edo ezperen deitzen dituk
Biak eternitatea.

Eksenpluak

Hañitzek hañitz moldez die
Enigma hau esplikatzin
Eta añañitz konparaziñoz
Nola ahal deklaratzin.

Sabant batzuek konparatzin
Die iguzkiarekiñ,
Eta die bertze batzuek
Berriz ilhargiarekiñ.

Iguzkia bethi hari duk
Agertzen eta estaltzen:
Estaltzen duk arrats gutziez
Eta goizetan agertzen.

Ilhargia ere orobat
Bethi hari duk berritzen;
Berritu ondoan halaber
Hari duk bethi zahartzen.

Gauza bera dela ziotek
Edo **sekula** doana,
Edo **bethi** puntu berean
Gelditurik dagoena.

Ezen bethi dagoen **bethi**
Sekulan eztuk handitzen,
Eta bethi doan **sekula**
Sekulan eztuk ttipitzen.

Puntu batean bethi dela
Bethi hari duk pasatzen;
Pasatzen bethi hari dela
Eztuk sekulan higitzen.

Million urthe joanagatik
Garabik eztuk gutitzen;
Joanagatik bertze million
Bethi duk oso gelditzen.

Oraiño huna gauza bera
Eksenplu argiangoan,
Argiaren klartasunetik
Hartu konparaziñoan.

Nola beraz kandela bati
Hañhitz kandela pizturik
Ezpaizaio gutitzen kharra,
Bañan egoten osorik:

Gauza bera kausitzen dela
Denbora sekulakoan:
Nahiz joan den, nahiz heldu den
Hedadura bethikoan.

Ezen urthe pilla hetarik
Million khenduagatik,
Millionen ondoan bertze
Million hartuagatik,

Eternitate luze hura
Bat ere eztuk laburtzen;
Eternitate oso hura
Garabik eztuk gutitzen.

Osoa bethi egonen duk
Nombre gustiak galdurik;
Eztuk sekulan deusik falta
Hartu gustiak khendurik.

Orobat duk bethiko **bethi**
Urthe gustiez osorik,
Hastean bezala fiñean
Urtle gustiez hanturik.

Eztuk ttipitzen, ez handitzen,
Batean bethi baitago:
Ez handiago behiñ ere,
Sekulan ez tipiago.

Luze orobat tuk hemengo
Minutak eta urtheak;
Urtheak ere hala nola
Bethiereko mendeak.

Juia dezak orai hemendik
Zeiñ diren luze egunak,
Mendeak baiño luzeago
Direnaz geroz oreanak.

Ezen ifernuan eztuk deus
 Non ezten sekulakoa:
 Kriminel, burreu, suplizioa,
 Presondegi bethikoa.

Denborak ere bardiñ dituk
 Orobat sekulakoak,
 Minutak, orenak, asteak,
 Urtheak fingabekoak.

Egia duk; argia baduk,
 Ordean suak piztua,
 Pena hautan kruelkiago
 Punitzeko damnatua.

Halaber baduk hemen gaua
 Eta gau izigarria,
 Deabruen eta damnatuen
 Harrabotsez nahasia.

Helas, bai, ah nolako gaua!
 Gau luze eta ilhuna!
 Hemen garenek eztiagu
 Sekulan uste eguna.

Ez, ez tie uste sekulan
 Ene begiek argia,
 Edo baldiñ uste badute,
 Uste die su gorria.

Gau hunek iraunen dik bethi
 Ethorri gabe eguna.
 Bethi ilhun, tromenta bethi,
 Sekulan joanen eztena.

Gaua, gau beltz eta argia!
 Beltza ene begientzat;
 Baiñan argia ene pena
 Eta ene burreentzat

Hire baithan ageriko tuk
 Bethiereko tenpestat,
 Hala nola mirail batean
 Justiziaren tromentak.

Bethi egonen nauk marraskaz,
 Aparta akit miraila!
 Begietarik dietzadak
 Urrun pena hanbat milla:

Burdiña-gathe, sufre gori,
 Eztira, presondegiak;
 Su handi, deabru beltz, fantasma,
 Ene falta itsusiak.

Begietan izanen tiat
 Ene urguillutasunak,
 Ene arnegu, ene herra,
 Ene bekhatu lizunak.

Ez nauzue asko punitu,
 Utz nazazue bakean.
 Bethi hunela izanen naiz
 Hunelako dolorean.

Alferrik niagok marraskaz,
 Bethi tiat ikhusiko,
 Ez ziaizkidak aitzinietik
 Sekulan apartatuko.

Lehen zerk egiñ baitzituen
 Ene plazer itsusiak,
 Egiñ behar tik ifernuan
 Ene tromenta guziak.

Nik beraz sorthu behar nuen!
 Dolorearen asprea!
 Sorthu hunela izatekotz!
 Zer desparazionea!

Ez ni munduan izatera,
 Orai ez nintzen erreko,
 Ez bekhatu rik egitera,
 Ez nintzen orai galduko!

Aitzitik bizitze saindua
 Eramatera munduan,
 Dohatsu behar nuen izan
 Jainkoarekiñ zeruan.

Bañan nola baitut gaxtoki
 Ekharri ene bizia,
 Juje justuak eman darot
 Nik merezi justizia.

Hil nahiz sartzen da furian

Mundua! Ah, mundu falsoa!
Hañitzen trunpatzaillea!
Ezperen hemen ifernuan
Bahintz ene hiltzaillea!

Behiñ nahi nikek hil, behiñ
Ez hunela bizitzekotz;
Edo bertze maneraz bizi,
Fazoiñ huntan ez hiltzekotz.

Hi ere non aiz, herioa?
Haiñ komun intzen munduan,
Eta nion ez aiz ageri
Orai hemen ifernuan.

Handi eta tipi gustiak
Lurrean ituen hiltzen;
Bañan gustiak ifernuan
Hil gabe bethi bizitzen.

Hire ondoan niabillak
Gau eta egun gustiez,
Nihon ikhusten eztudala
Surik baizen bi begiez.

Ustez audala kausituko
Joaten nauk eskuñ aldera;
Berriz lasterka itzultzen nauk
Zoraturik eskerrera.

Deabrupetik nauk batzuetan
Ene furian altxatzen;
Bertzean suaren erdian
Buruz behera hondatzen.

Behiñ gora, behin behera,
Gero deabruen balsara,
Sekulan sosegurik gabe
Tromenta gustietara.

Galdez bethi: non aiz, ah, non haiz?
Bethi oihuz, herioa?
Nork ediren au ifernuan,
O ene amudioa?

Arren, athor, maitea, athor,
Athor ene zathitzera.
Ene bizia hik behar duk;
Maitea, athor hiltzera.

Ihesi doat, ah kruela!
Horla utzen nauk supean?
Horla tromentek dirautela,
Hondatua deabrupean?

O zer desaparazionea!
Nahi gabez behar bizi!
Errabiamendu handia!
Ezin hil eta hil nahi!

Ah **bethi**, entzuezak, beraz,
Entzun ene dolorea:
Nork egundaiño sentitu du
Zer den bethi sofritzea?

Bethi hark niri ziarotak
Harritzen ene gorphutza:
Eta nori eztio hillen,
Pensatzen badu, bihotza?

Heriotzea galdegiten dio Jainkoari

Heldu natzaitzu berriz ere,
Jauna, othoitz egitera,
Eta grazia tipi baten
Humilki galdegitera.

Badakizu, gauza klara da,
Nik zenbat dudan sofritzen.
Zenbat marraska, zenbat oihu,
Zer nigar dudan isurtzen.

Zenbat pena deabruen tropan
Hartzen dudan zu galdurik,
Zeiñ tromenta harrigarriak,
On gustiez gabeturik!

Zenbat supean, su egiñik,
Ariman su, su bihotza;
Haragiak su, su ezurrak,
Odola su, zu gorputza.

Hauk ere bada, zerbait dire
Ni hemen urrikaltzeko,
Eta zureganik humilki
Grazia bat izateko.

Plazer baduzu, dobla beite
Berriz ere hauk gustiak;
Dobla deabruak, penak dobla,
Dobla tromenta handiak;

Bañan, Jauna, aditzen dela
Hemengo tulunbioan,
Hillen nauela herioak
Milla urtheren buruan.

Jainkoa

Damnatua, ago ixilik,
Eztuk zeren tromentatu;
Orhoit adi nola munduan
Munduaz intzen gozatu.

Eztuk izatu egundaiño
Herioa ifernuan,
Sekulan ere ez izanen
Urte gustien buruan.

Beraz egon ahal aiteke
Bethi dukela sofritzen,
Orai erretzen aizen gisa,
Bethi aizela erretzen.

Damnatua

O dolorea, ô furia,
O errabiamendua!
Oraiño ez atzait hi ere
Nahasi, adimendua!

Zer izanen da beraz nitzaz
Heldu diren mendeetan?
Bethi egon beharko baitut
(Jainkoa deiño) penetan.

Arren, zaude, aphur bat zaude,
Egiazko justizia;
Asko da, iduk-azu, othoi,
Zure kolera handia.

Zergatik ditutzu gizonak
Joan den denboran kreatu?
Zergatik zure imajina
Dibinoaz seinalatu?

Ez othe behiñ zenbait urthez
Elkarrekiñ egoteko,
Gero hil eta sekulakotz
Ifernuan ehorsteko?

Jauna, zuk bada badakizu
Zuk formatua naizela,
Forma huntan lur guti batez
Lurrean egin nauzula.

Badakizu zuk ninduzula
Zure dohaiñez edertu,
Eneгатik Zure Semea
Izatu zela itzatu.

Nola beraz ez zare kontent
Pairatu tudan tromentez,
Berretzen baitarozkidatzu
Tenpestak bertze tenpestez?

Gargoro zenbat denbora da
Tenpesta hautan naizela,
Momento batez behin ere
Sosegurik eztudala?

Zenbatetan egiñen tutzu
Oraiño zure tenpestak?
Noiz arteraiño isuriko
Ene gainera tromentak?

Orai artean izan bada
Nausi zuri justizia,
Utzazu aldiz izatera
Zure miserikordia.

Jainkoa

Eternala duk hire kontra
Eman dudan sententzia,
Eta hala eztuk posible
Sekulan dadin ganbia.

Damnatua

Nola! Ez ilkhiko hemendik?
Jainkoa ez maitatuko?
Iraunen eternitateak?
Penak ez akhabatuko?

Helaz! Zer egiñen dut beraz?
Ni norat naiz itzuriko?
Tromenta haukien erdian
Bethi dut ihardukiko?

Oraiño egiñ baninduzu
Zu zaren gisa Jainkoa,
Edo ezperen zu bezala
Bothere handitakoa;

Oraiño, diotsat, banitu
Zure indarren pareak;
Bañan badakizu direla
Zureak paregabeak.

Eta badakizu zerorek
Flako nauzula kreatu,
Airean doan ostu baten
Gisa nauzula moldatu.

Ikhus-azu zer aingeruek
Erranen duten zeruan,
Zure etsai deabru kruelek
Zer erranen ifernuan.

Zer ohore izanen duzu
Enekiñ disputatzeaz,
Zer gloria ene erretzen
Bethiere haritzeaz?

Beraz zure beso puxanta
Nahi duzu enplegatu
Eta ostu ihartu baten
Kontra hunela altxatu.

Jainkoa

Hauk duk, bada, mirakuillua!
Jakiñ herrautsa aizela,
Bitartean hire burua
Jainko egiñ dezakela;

Jakiñ prometatu zaiela
Justuei parabisua,
Eta zaiela injustuei
Ordenatu ifernua.

Bitartean Jainkorik gabe
Burua gora airean,
Errebelatu baten gisa
Ibiladilla lureani;

Nitzaz eta ene manuez
Hanbat aldiz trufaturik,
Hire bekhatu traidoreak
Jainkotzat adoraturik;

Ezpanintz baño gehiago
Ez nitzaz egiñ konturik,
Eta hire Jainko handitzat
Ene etsaiak harturik!

Orai, beraz, behar diagu
Jakiñ nor den Jongoikoa,
Ni zeruan, ifernuan hi,
Jainko bethierekoa.

(Maitatu nahi luke Jainkoa)*Damnatua*

Eztut zeren ukhatu, Jauna,
Konfesatzen dut egia:
Zu zare orai eta bethi
Gustien Jainko handia.

Mana zazu plazer duzuna,
Zuk behar duzu manatu;
Eta zure manamenduak
Guk behar tugu konplitu.

Nahi baduzu egon nadin
Eternitate gustian,
Eta halaber txizpil nadin
Ifernuko su gorian,

Jauna, besarkatuko ditut
Ifernuko su gustiak,
Iraganen tut plazer tutzun
Denbora harrigarriak.

Eztarotzut othoitz egiten
Su hautarik libratzeaz,
eta zure zeru saildian
Ene errezibitzeaz.

Ah ¡Badakit galdu naizela
egun eta sekulako,
Tromenta hautarik sekulan
Ez naizela libratuko.

Beraz justo zaizkitzun penak
Emanen darozkidatzu;
Hitz bat solament erratera,
Othoi, utzi behar nauzu.

Beude, beraz, su hauk gustiak
Bethi nautela erretzen;
Baiñan su hauk baziñarozkit
Zeruko suez handitzen!

Ez othe zaitut, Jainko Jauna,
Pena hautan maitatuko?
Baldiñba ifernuko suek
Ez naute debekatuko!

Jainkoa

Amudioak ez zeakik
Zer lekhu den ifernua:
Zerua duk hunen egoitza,
Eta halaber mundua.

Bi lekhu hautan kausitzen duk,
Munduan eta zeruan;
Eztuk ediren egundaiño
Zuek zaretan lekhuan.

Herra luze eta gaixtoen
Eskola duk ifernua;
Amudio saildu ederren
Akademia, zerua.

Damnatuek ez zeakie
Gaitzesten baizen Jainkoa,
Eta hori duk hartu duken
Sekulako ondikoa.

Amudioa sartzen baliz
Deabruen tulunbioan,
Sainduekien den bezala,
Zeruko palazioan;

Posible baliz maitatzea
Jainko ona ifernuan,
Laster ganbiatuko lukek
Zuen lekhua zeruan;

Tromentak gloria lituzkek,
Dohatsu, dohakabeak;
Suak eder, nigarrak gozo,
Bozkario doloreak.

Beraz adizak zer diodan;
Ez nauzue maitatuko;
Bañan bethi deabruen gisa,
Niri herra ekharriko.

Nork pensa dezake kalte bat
Hau den baño handiago?
Ezen zure galtzea baño
Zer kalte da kruelago?

Damnatua

Nola munduan zuk ni eman
Bethi zure maitatzeko;
Bitartean ez nik maitatu,
Eta nik ez maitatuko?

Zer nigar egiñen dut beraz,
Zer marraska, zer orroa,
Erraten zaitan gustietan;
Zer egiñ duk Jongoikoa?

Posible othe daite, Jauna,
Ifernu bat kruelago,
Ezen zure gaitzeste baño
Zer pena da handiago?

Handi asko ezpaliz pena
Jainkoa ez maitatzea,
Eta hunelako Jainkoa
Sekulakotzat galtzea!

Jainkoa galdurik, ni oihuz
Zure bilha ibiliko:
«Jainkoa non da, non Jainkoa?»
Jainkoa ez kausituko!

Oraiño herra behar baitut
Zure kontra bihotzean,
Eta herra, deabruen herra,
Eternitate luzean!

Desparaziñoa

Hunat, beraz, zatozte hunat,
Bethiereko burreuak;
Zatozte enegangat, brasak,
Eta zatozte, deabruak.

Hunat zuek, pozoin mortalak;
Behar nauzue sesitu,
Dilubio handi bat egiñ
Eta han barna hondatu.

Urkhabeak, altxa zaitetze,
Teatrak eta sufreak;
Altxa, suak, kheak, eztirak,
Altxa, burdiña-gatheak.

Ez nauzue asko kruelki
Orai artean punitu;
Mende gustiak iraganik,
Behar zarete luzatu.

Bola zaitetze zuek ere,
Xizmiztak eta hozpiñak,
Ihortziriak, babazuzak,
Tenpestak eta dragoiñak.

Bai, luzatu behar zarete
Eta sekulan luzatu,
Sekula bururik eztuten
Gustietara hedatu.

Hau die sekulako penek
Bere kondizionaia;
Behin has eta gero bethi
Fiñik gabe irautea.

Jaun puxanta, nola baitzare
Jainko adoragarria,
Adoratzan dut ene kontra
Eman duzun sententzia.

Beraz nola baitut Jainkoa
Galdu eternitatekotz,
Justu duk Jainkoak gal nazan
Egun eta sekulakotz.

Belhaun gorrietan jarririk
Nagotzula aitzinean.
Barkhamendu eske nagotzu,
Tristezia bihotzean.

Adiu erraten darotzut,
Adiu sekulakoa;
Galdu zaitut bethierekotz;
Adiu, ene Jainkoa.

Justua zerade, justua,
Justuki nauzu damnatu;
Behar dut zure justizia
Bethi justuki frogatu.

Ah, bai aspaldiko Jaun ona
Ederra eta berria,
Sainduen eta aingeruen
Koroa eta gloria!

Estal zakizkit sekulako
Ene begien argia,
Ezen ez zaitut ikhusiko
Sekulan, Jainko handia.

Ez zintudan maitatu nahi
Ahal nukeen lekhuian;
Nahi zintuzket orai egiñ
Ezin dagidan orduan.

Zuk ere utzi behar nauzu,
Zeruko amudioa,
Ezpaita su gorriez baizen
Betha tulunbioa.

Adiu, flakoen indarra,
Faboreen emaillea,
Arimen bake dohatsua,
Bihotzen argitzailea.

Zeri darasat hunenbertze?
Denbora dut ixiltzeko;
Sarthu naiz eternitatean,
Bethi ere sofritzeko.

Adiu, onen Aita maite,
Gustien Salbatzailea,
Eta ni bezalako gaixto
Gustien damnatzailea.

Adiu, banoa, adiu,
Egun eta sekulako!
Zeruan zareten sainduak,
Ez zaituztet maitatuko!

Adiu, fiñean zeruak,
Eta adiu, mundua.
Ene etxea izanen duk
Bethi ere ifernua.

Ez eta zu ere, Jainkoa,
Ez zaitut zerbitzatuko;
Bañan herraz eta blasfemuz
Mende gustiak betheko.

Akhabatu zituenean
Deithore doloretzkoak,
Hasi izatu zen isurtzen
Nigar bethierekoak.

Orazionea
ifernurat ez joateko

Zeruko Errege handia,
Jainko amudiozkoa,
Aita ontasunez bethea,
Jaun eternitatekoa:

Zu gabe hemen bizi dena
Izanen da doloretan,
Eta zurekiñ bizi dena
Izanen da plazeretan.

Arren, argi dietzadatzu
begiak zure argiez,
Eta eder diezadazu
Arima zure graziez.

Egidazu, othoi, grazia,
Hemen zure kausitzeko,
Eta zu ediren ondoan,
Behiñ ere ez galtzeko.

Indatzu hemen nahi tutzun
Doloreak, sofritzeko;
Eta hil ondoan gloria,
Zeruan zu ikhusteko.

Nahi nuke hasi osoki
Zure maitatzen lurrean;
Zeruan ez akhabatzeko
Eternitate luzean.

Eskutikan iduk nazazu
Munduko erromerian,
Egun batez aurkhi zaitzadan
Parabisuko glorian.

Arren, beraz, Jauna, indazu
Grazia hemen hasteko,
Hemen hasi eta zeruan
Bethi kontinuatzeko.

Bi eternitate ditutzu,
Bata hedoien gaiñean,
Eta bertzea mundu hunen
Bihotzaren barrenean.

Ez niri, beraz, errefusa,
Indazu zure grazia;
Esperantza handi hunetan
Eramanen dut bizia.

Zerua da posible diren
Plazer gustiez aseaz;
Ifernua, posible diren
Pena gustiez bethea.

Jesu-Kristo zure Semeaz
Darotzut othoitz egiten,
Egun batez zure sainduiek
Glorian kausi nazaten.

Orduan emanen darotzut
Sainduekiñ laudorio,
Bothere, gloria, ohore,
Eta ene amudio.

Hala biz.

VI. Partea

PATROIN SAINDUEN OHORETAN

Patroin sailduen ohoretan Jainkoari

Ezta posible egitea
Zu gabe, Jauna, deus ere,
Bañan badagizket gustiak,
Baldiñ enekiñ bazare.

Desegiñ detzaket zurekiñ
Munduan diren etsaiak,
Deabruen arma eta indar,
Sensuen xarma gustiak.

Siñhesten dut, zure graziak
Gaituela aitziñatzen,
Laguntzen ere gaituela
Eta halaber segitzen.

Obra on baten egitekotz,
Zor diogu pensatzea,
Obraren haste, trabaillatze,
Fiñean akhabatzea.

Beraz, othoi, hauta detzatzu
On zaizkitzun momentoak;
Igutzu grazia eder hek
Eta indar dibinoak.

Igutzu guk behar ditugun
Faboreak garaitzeko,
Eta behar dugun laguntza,
Bizi ondoan hiltzeko.

Jesus-Kristori

Jesus-Kristo, Gizon Jainkoa,
Eta ene esparantza;
Zure baithan finkatua dut
Osoki ene fidantza.

Jauna, zureganik dut uste
Zeruan zure gloria,
Gloria zuk zure odolaz
Gurutzean merezia.

Ah, heriotzeko orena,
Ala hi harrigarria!
Arren, Jesus, lagun zakizkit
Gertha dakidan ezta.

Ene arima hil ondoan
Jujatu behar denean,
Emazu zure gurutzea
Gure bien arartean.

Jauna, beraz ezazula har
Ene hobenen bengantza;
Zure odola laguntzen zait,
Eman darot esparantza.

Helas, aitortzen dut, egia da
Gaxtoa izan naizela.
Bañan nola? ez zare zu hil
Salbatu behar nauzula?

Nik izatekotz esparantza
Zeruetako korthean,
Asko dut zure ikhustea
Gurutzearen gainean.

Galbarian izatu tutzu
Bortz zauri dolorezkoak:
Zeruko portaleak dire,
Leiho amudiozkoak.

Zathitu izan zaitzunean
Zure gorphutz sakratua,
Egiñ zen gure sendatzekotz
Ithurri bedinkatua.

Handik darozkigutzu husten
Balsamo eta ezta;
Habeaz han egiten duzu
Gloriako zurubia.

Parabisuan izatekotz
Zure plazer eternalak,
Munduan sofritu behar tut
Zure dolore mortalak.

Bilhatu nauzu, zureganik
Ihesi nenbillanean:
Baldiñba ez nauzu utziko
Bilhatzen zaitudanean.

Pensatuko dut bethi ere,
Jesus, zure amudioan,
Hil eta bizi egotekotz
Amudio dibinoan.

Andre dena Mariaren zerbitzari izateko othoitz

Agur, Maria dibinoa,
Birjina paregabea,
Agur, Andrerik handiena,
Jesusen Ama emea.

Arren gomendatzen darotzut
Osoki ene bihotza,
Ene bizi, ene herio,
Arima eta gorphutza.

Hautatzen zaitut sekulakotz,
Birjina, ene Amatzat,
Ene argi, ene gidari,
Adbokat eta Patroiñtat.

Promes darotzut eztudala
Zure kontra deus erranen,
Ez egiñen, eta neurerik
Sekulan ez sofrituren.

Zuk ere, othoi, Erregiña,
Zure haurtzat har nazazu:
Jesus, zure Seme Jaunaren
Esklabo egiñ nazazu.

Saint Joseph handiari

Joseph, Birjina Mariaren
Espos dibino handia,
Gizon Jainko baten Amaren
Arkanjelu guardaria,

Dibinitateak beretzat
Hautatu adiskidea:
Guretzat Ama othoitz-azu,
Othoitz guretzat Semea.

Izar bat ageri den gisa
Ilhargiaren aldean,
Distiatuko duzu, Seme
Eta Amaren korthean.

Ezta sekulan ilhunduko,
Josef, zure klartasuna;
Bethi dute zure begiek
Egiñen gure fortuna.

Zure bothere gloriosa
Hagitz da urrun hedatu;
Oraino gure erresuma
Ezta bada seguratu.

Ikhus-azu, othoi, Zeruko
Tronutik gure beharra,
Frogarazi diezaguzu
Zure berthute ederra.

Aingeru beiraillea

Agur, aingeru beiraillea,
Ene iguzki handia,
Gloria dohatsuko Prinze,
Jainkoaren iduria.

Nitzaz kargu hartuz gerostik
Bethi nauzu sustengatu,
Argitu, gidatu, lagundu,
Eta bethi gobernatu.

Hartzen zaitut gida bezala,
Patrioiñ bezala maitatzen;
Zure borondate osora
Osoki naiz errendatzen.

Othoitzten zaitut humildurik,
Jesus-Kristoren odolaz,
Zure kontra izanagatik
Sekulan ez ni utzteaz.

Baldiñ errebelatzen banaiz,
Xuxen nazazu bidean;
Gerthatzen banaiz tristetzera,
Konsola ene miñean.

Perilletan kausitzen banaiz,
Arren, begira nazazu;
Zure bidea ezpadakit,
Irakats diezadazu.

Galdegiozu Jainkoari
Grazia, ikhus zaitzadan.
Zurekin bethi Jainko Jauna
Zeruan lauda dezadan.

Martira*Deus, tuorum militum*

Jesus martiren erregea,
Eta koroa handia:
Zuk ematen diotzotzute
Grazia eta gloria.

Odol gustia isuririk,
Sofriturik herioa,
Ekharri zarotzun justuki
Gloriaren balioa.

Guk mundu huntan kantatzean
Dohatsuen biktoria,
Arren, barkha dietzagutzu
Gure bekhatu gustiak.

O hunen indarren indarra
Hunen berthute borthitza!
Zure amudioak zuen
Borthistu hunen bihotza.

Martir hunek mespresaturik
Lurreko plazer agorrak,
Jujatu zituen zirela
Falsoak eta miñkhorrak.

Konkerant hunen faboretan,
Othoi, zure ontasunak
Barkhatu behar darozkigu
Gure bekhatu lizunak.

Gero nobleki hautaturik
Suplizioen bidea,
Bilhatu zuen zeruetan
Bere desiren xedea.

Gizonek eta aingeruek,
Zeruak eta munduak,
Bethi bedinka detzabela
Hirur Presuna sainduak.

Bethi ere pairatu zuen
Dolorea animozki,
Selukan erakutsi gabe
Sendimendurik flakoki.

Hekiñ gloriak eta hunen
Laudorio sakratuak
Bethe betzate beraz bethi
Sekula infinituak.

Ipizpikua*Jesu, Redemptor omium*

O Jesus, arima gustien
Eroszaille Jaun Jainkoa;
Zuk pontife saindu hau duzu
Errendatu zerukoa.

Hunen berthuteak erranik,
Erraten dugu zela,
Zein ungi zuen sustengatu
Zure lege dibinoa.

Arren, egun erakutskitzu
Hunen bihotzeko suak;
Hek orai prestatzen zaituzte
Hartzera gure botuak.

Mespresatu izan zituen
Munduaren fiñeziak,
Fazak, ponpak, plazer gaxtoak
Eta hunen maleziak.

Huna bildurik non den hemen
Zure populu fidela,
Laudatu nahiz ohorezki
Zure lekhuko leiala.

Bañan orai zure plazerez
Zeruetako glorian
Gozatzen dago sekulakotz
Sainduen balsa handian.

Hunen ondoan goazela
Egiguzu garazia,
Ardiats dezagun guk ere
Hunen beraren gloria.

Zure kolera eztitzeko
Punitzen gaituzunean,
Asko da hunen entzutea
Othoitzez dagotzunean.

Gizonen eta aingeruen
Egiazko Erregea;
Monarketan den handiena,
Jesus bakezko prinzea!

O Spiritu Saindu, ô Aita,
Zarela bedinkatua!
Mundu huntan eta bertzean
Zarela adoratua.

Saint Bernard abadea

Saindu debota, eta saindu
Jainkoa maite duzuna.
Bernard, lurreko aingerua,
Edo zeruko gizona.

Zuri zarozkitzun Jesusen
Ama Birjina handiak
Hustu bere bulharretako
Ithurri ezne eztiak.

Erregiña hark berak zuri
Egiñ zarotzun grazia,
Idoskitzera emateko,
Ahoa bethez, egia.

O saildua! Ala zuk izan
Indar handia zeruan!
Ez ziñen bada tipiago
Hil baño lehen munduan.

Zuri zarozkitzun prestatu
Jainkoak indar handiak,
Garaitzeko agertzen ziren
Ifernuko heresiak.

Oraiño zuri zarozkitzun
Isuri bere argiak,
Guri ezagut arazteko
Munduaren tromperiak.

Mundu gaxtoak armatzen tu
Bere dituen puxantak
Gure arimak xarmatzeko
Eta galtzeko gorphutzak.

Bañan gustiarekiñ ere
Nausi zaitu ezagutzen,
Eta hala gustietan du
Zure nahia konplitzen.

Zuri dagotzu bozkarioz
Prelat gustien balderna:
Zuri Erroma, munduan den
Hiririk prinzipalena.

Munduak ere deitzen zaitu
Egiaren sustengua,
Eta szienzia handien
Urrezko ithurburua.

O Saint Bernard biktoriosa!
Arren, nazazu fabora;
Zure erramu triumfantez,
Othoi, nazazu ohora.

Horra nola etsaiak diren
Ene kontra preparatzen,
Eta nola darozkidaten
Fletxak usu aurthikitzen.

Zurekien esparantza dut
 Hemen triunfa handia,
 Gero zeruan izatekotz
 Jainkoaganik gloria.

Bitartean zuri darotzut
 Ofritzen ene bihotza,
 Ene bihotz gustiarekiñ
 Halaber ene gorphutza.

Trofea bat nahi darotzut
 Egiñ zure izenean:
 Zuk bezala izena duen
 Presunaren bihotzean.

Konfesorra

Jesu, corona celsior

Jesus, koroa eternala,
 Lehenbiziko argia,
 Zureganik du Saindu hunek
 Izatu bere gloria.

Kantarazi ziñotzan huni
 Laudorio dibinoak,
 Eta bethi garaitarazi
 Deabruen herra gaxtoak.

Jauna, hauts dietzakigutzu
 Bizioen lokharriak:
 Barkha, hunen amorekatik,
 Gure bekhatu gustiak.

Fede onak irakatsirik
 Zer zen Jainko eternala,
 Sustengatu izan zintuen
 Zure lekhuko bezala.

Besta hunek erakusten du
 Egun joan dela zerura,
 Dohatsu han egiñ duzula,
 Joanik izarren gainera.

Pagatzen diotsazu beillak,,
 Barurak eta tromentak,
 Emanik zure ontasunak
 Eta atsegiñ xarmantak.

Gaitzetsi zituen munduko
 Ontasun trunpagarriak,
 Atsegiñ eta plazer hatsak,
 Ponpa lilluragarriak.

Jauna, ungi pagatzen tutzu
 Hunen zerbitzu ttipiak;
 Hiltzatzu hunen izenean
 Gure bizio gustiak.

Bañan orai gozatzen dago
 Zeruko plazer ederrez;
 Gerla gustiak konpliturik,
 Gozatzen dago triunfez.

Adora dezagun humilki
 Esentzia handiena:
 Hunek dik hirur Presunetan
 Begiratzen batasuna.

Gizonen eta aingeruen
 Egiazko erregea,
 Jesus, izatez ona zarena,
 Bihotz nobleen xedea.

Hunek dik bethi idukiko
 Bere tronua zeruan,
 Eta duk bera bethi ere
 Nausi izanen munduan.

**Saint Inazio Jesusen Konpañiako Patriarka
zeruaren bistan ekstasiatua**

Lehenago kontenplatzean
Zeruetako izarrak,
Erran nuen: Lurra, beiratzak
Hire ontasun ederrak.

Hire tresor gustietarik
deus ere nahi eztiat,
Zeruan distiatzen duten
Izarrak nik nahi tiat.

Gerostik ziaizkidak hurren
Izarrak ere itsusi,
Zerbait baitut izarrak baño
Ederragorik ikusi.

Saint Inazio beraren bertze ekstasia

Zer espantu handi dakusat?
Ah, Jainko gustiz maitea,
Zer aire dibinok darama
Lohiolako Semea?

Egiten du egiñ ahala
Munduaren kitatzekotz
Eta besoak gloriara
Ekstasian altxatzekotz.

Gorphutzak ez idukitzera
Lurrean hunen arima,
Laster ardiatsiko zuen
Gloriako erresuma.

Badoa hedoietan gora
Mundu gustia utzirik,
Bere parterik nobleena
Ia zeruetan sarthurik.

Jainkoak aimentaren gisa
Hedoipetik du thiratzten,
Bihotz gustia ondoraño
Graziaz dio bethetzen.

Ah, zein higuñak diren, dio,
Munduan diren tresorak,
Prinze handien erresumak,
Aita Sainduen thiarak!

Edaratera eman dio
Plazer uholde xarmanta,
Eta du zerura altxatzen
Arima obedienta.

Izenak dituzte ederrak,
Bañan berak itsusiak.
Deabruak tipiak emanik,
Khentzen daroste handiak.

Gau argian kontenplatzean
Zeruko mobimenduak,
Aingeruen egoitza handi
Izarrez berregiñduak,

Pintadura falsoez ditu
Gauza ezdeusak handitzen,
Eta hañitz kolore motez
Jende gaxoak trunpatzen.

Igaten da parabisura
Bere debozionetan,
Eta gozatzen Jongoikoaz
Pensamendu ederretan.

Lilluratzen ditu begiak,
Banaloriak ereiten,
Urreztatzen gauza ilhaunak,
Tipiak handi egiten.

Nork zerutik urrundu huni
Egiñen darot grazia,
Ardiasteko zeruetan
Sainduek duten gloria!

Igan nahiz nabillanari
Kheñuz dagozkit izarrak:
Erakusten darozkidate
Argiez bide ederrak.

Ala zuek parabisuko
Frontera miragarriak!
Diamantezko portaletan,
Nolako argi handiak!

Nolakoa den birjinentzat
Hor den mañifizenzia!
Bañan Bildots xuriarentzat,
Zer ponpa eta gloria!

Ikhusten dut nola dabiltzan
Pintatu errepietan,
Asetzen daudela gloriaz
Ithurri dohatsuetan.

Aingeruak diduritela
Bozak dituzte goratzen,
Eta Bildotsaren ondoan
Birjinen kantak kantatzen.

Ikhusten dut izarretarik
Agertzen Jainko Handia;
Ikhusi behar diat, dio,
Zerua, hire gloria.

Zerua, khien erridau hori,
Iganen nauk teatrara.
Ah, ene Jainkoa, ah, saildu
Ederren distiadura!

Aita, Presuna dibinoen
Egiatzko iguzkia,
Semea, Aita argiaren
Argitzen duzun argia;

Amudio personalaren
Majestate bethikoa:
Desira dudan gustia da
Ikhusi ene Jainkoa.

Eztut munduan desiratzen
Erregeen koroarik,
Ez eta zeruetan ere
Es szeptrorik, ez tronurik.

Zu zerori nahi zaitut, zu
Ikhusi, Trinitatea,
Trinitatea ikhustean,
Ikhus dibinitatea.

Saint Franzes Xabier, Indietako apostolua

Sanciango irlan eta Chinako frontieretan hil zenean

Sancian deitzen den irla da
Eremu urrun batean,
Lekhu arroka billuziez
Eta hareaz bethean.

Kantongo hiri famatua
Dakusa alde batetik;
Halaber itsaso zabala
Dakusa bertze aldetik.

Saint Xabier Apostolua
Harat ethorri zenean,
Huna zer erran izan zuen
Hiltzerako orenean:

“Fiñean bizi izatu naiz,
Ahalkearen handia!
Deusik egiñ gabe joan baitzait
Ene bizitze gustia!

Bagadek oraiño burua
Ebaki balerotate,
Edo Firandeko jendek
Sutan erre banindute!

Idukak, iduk, herioa,
Hire ezpata zorrotza.
Egosten dik Chinak lurrera
Bere murraila borthitza.

Bañan non naiz, edo zer diot,
Zer kutalez billuzia?
Zer diot, gathe, presondegi,
Zer burreu, zer, su bizia?

Hunelako heriotzea,
Eztuk jende gustientzat;
Bañan geraur, fama handi,
Eta martir nobleentzat.

Laxo bati ezpaitarozkit
Ofrituko herioak
Sainduak merezi ditusten
Szeptroak eta khorook.

Bañan kutalesak ezpadu
Ene odola isurtzen,
Eta ezpadu su handiak
Ene gorphutza erretzen;

Ezperen barbaroen irlek
Hillik naute ikhusiko,
Paubrezia eta elhurak
Martir naute kausituko.

Jainkoa banu predikatzen
Presondegian sarthurik,
Libra nezake zenbait gizon
Deabruen gatheetarik.

O diamanten klartasuna,
Perlen distiadura!
Zeri gagozka hunenbertze
Galtzen dugula denbora?

Jaiki behar dut; kitatu nau
Jadanik ene suharrak.
Huna China! «Idekitzen tu
Bere portale ederrak».

Bañan ago, Fransez Xabier,
Lurrik asko duk kurritu:
Geldi adi, gargoro geldi,
Urik asko duk pasatu.

Hire begira ziaudezek
Sainduak hiri sainduan;
Hire begira Jainko Jauna
Aingeruekiñ zeruan.

Jadanik higuindu zitzaion
Bere xarmekiñ mundua.
Jainkoa ardiatsi nahiz,
Desira zuen zerua.

«Ikhusazu ene eskuiña,
O ene kreatzaillea;
Zure gurutze saindua dut,
Gustien salbatzaillea.

Faltak garbi dietzadatzu
Zure odol zurrutetan.
Dolu dut; Jesus, har nazazu
Zure izar ederretan.

Helas, Birjina, helas, Ama,
Ama Birjina handia,
Hiltzen diren gaxo gustien
O esparantza gustia.

Othoi, urrun diezadazu
Deabru tropela gosea;
Begitarte on egidazu,
Erakuts zure Semea.

Erakuts dazu zer bothere,
Zer esku duzun lurrean;
Hautskitzu Japon eta China,
Honda muruak urean.

Lekhu hautarik khasatzatu
Idolen insensu hatsak,
Eta emazu zure Seme
Jesus-Kristoren aphezak».

Horra nola hilki zitzaion
Gorphutz eritik arima,
Eta nola ediren zuen
Jainkoaren erresuma.

Birjina saildua*Jesu, corona Virginum*

Jesus, aingeruen partale
Egiten duzu presuna,
Zure graziez ederturik
Birjinen garbitasuna.

Amudioak xuxentzen tu
Hekien kanta xarmantak;
Laudatuko dituste bethi
Zuk eman tresor puxantak.

Mundua erosi beharrez
Kausitu ziñen gizona;
Emazte bat zinduen Ama,
Emazte eta Birjina.

Zuk dituzu hekiñ eskuak
Erramu ferdez edertu;
Zuk saildutu hekiñ desirak,
Zuk hekiñ gerlak kalmatu.

Erregiñen ez bezalako,
Birjinen balsa garbian,
Pausu saildua hartzen duzu
Lili xurien erdian.

Ahantzaraz diezaguzu
Munduan den bizioa;
Arren, errezibi dezazu
Gure sakrifizioa.

Maitarazitzen diozute
Birjinei zure gloria.
Zure onez egiten duzu
Partale espos garbia.

O esenzia dibinoa,
Duzula bethi gloria;
Zuk egiten duzu sailduen
Dohatsutasun gustia.

Zeren birjinak bizi izan
Baitziren zure ondoan,
Bereziki dute ohore
Zeruko palazioan.

Goza zaitela bethi ere
Aitarekien Semea;
Gustiek lauda zaitzaitela,
Spiritu Saildu emea.

Alargun saildua*Fortem virili pectore*

Ohora dezagun gustiok
Emazte gustiz borthitza;
Ikhusagun gorphutza flakoan
Mirakuilluzko bihotza.

Bere gogoa zadukala
Zeruko ontasunetan,
Oñak zituen erabilli
Lurreko arantzeetan.

Lauda haren saildutasuna;
Ezen espantagarria
Dakusagu ageri dela
Munduan haren gloria.

Haragia zuen barurtuz
Obedient errendatu,
Spiritu othoitz sailduetz.
Fruitu ederrez borthiztu.

Ariman zaurthu zuenean
Jesusen amudioak,
Mespresatu izan zituen
Munduko banaloriak

Bazidurien emazte hark
Rabaturik ekstasian,
Bere gorphutza kitaturik
Jadanik zela glorian.

Jauna, eztu zure indarrak
Aurkhitzen bere pareak:
Zu zare perfektu miraila,
Zu borthitzen botherea.

Zure esku puxantak ditu
Egiten mirakuilluak.
Iguitzu beraz guri ere
Desira tugun fruituak.

Gizonek eta aingeruek,
Zeruak eta munduak,
Bedinka detzatela bethi
Hirur Presuna sailduak.

Hekiñ gloria glorifika,
Adora hekiñ szeptroa,
Hekiñ laudatzen bethi eman
Bethiko espazioa.

VII. Partea
HANITZ KONDIZIONETAKO
PRESUNENTZAT

MEDITAZIONEAK

Errotora

Ah, Jauna, banitz Elizaren
Defensa eta gloria!
Populuaren aitzinean
Banintz gidari argia!

Iguzkitzat zure jendeei
Natzaiela baliatzen,
Ah, zeruan gora banitu
Ene ardiak gidatzen!

Apheza

Apheza, ala hik handia
Ahoan izan puxanta!
Ezen ahoaz egiten duk
Jesus Jaunaren gorphutza.

Pensazak misterio huntan
Eliza saildua dela,
Galbariako mendiaren
Egiatzko erretaula.

Zerutik duk jautsarazitzen
Aldarerat Jaun handia.
Beirauk hunat bihotza ekhar
Non ezten gustiz garbia.

Amudioak dik mundurat
Berriz Jesus erakhartzen,
Eta hire bi eskuetan
Bigarrean itzaten.

Orhoituko aiz bethi ere
Mahain sakratu hau dela
Betlehemengo lezearen
Imajina erreala.

Othe dakik Eliza dela
Saindu gustien korthea,
Eta monarka handiaren
Zeru aingeruz bethea?

Ezen hik hunat Jainko Jauna
Zerutik duk erakhartzen,
Eta duk hire eskuetan
Berriz sorthurik bizitzen.

Begirauk, beraz egiñ adin
Profano reprobataua;
Bañan egiok Jainkoari
Hire eskuez tronua.

Beata

Jainko gizona gurutzean
Izan zenean itzatu,
Birjinak zioen birjina
Birjinari gomendatu:

Mariak diotza Beatak
Jainkoari gomendatzen,
Ama Birjinak Semeari
Bere debotak ofritzen.

Zeruetako Erregeak
Erregiña sujetari,
Jesus Jaunak Maria Ama,
Joannis diszipuluari.

O Erregiña! O Birjina!
Harzazu beraz kargua
Gu Erregeri ofritzeko
Gal eztezagun zerua.

Bañan egun Erregiñak du
Gomendatzeko kargua,
Eta gustiei zeruaren
Idekitzeko eskua.

Ama, ona, othoitzten zaitut
Jesusen heriotzeaz.
Heriotzeko orenean
Gu, zureak, laguntzeaz.

Beira gaitzatzu beraz bethi
Munduan, Ama emea,
Zeruetan ikhus zaitzagun
Zu eta zure Semea.

Karguduna

Emazu gure bihotzean
Egiazko justizia,
Eta aparta zazu herra,
Aparta abarizia.

O Jauna! Iguitzu argiak
Guk jujeok ikhasteko,
Gu jartzen garenean juje
Nola garen jujatuko.

Aitoren semea

Zer progotxatuko zaizkigu
Ohore superbioak,
Zer ponpak, faza, urre, plazer,
Eta zer palazioak?

Zer progotxa ahal dakiket
Prinze gustien gloria,
Hirien eta probinzien
Diru errenta handia?

Tresor horien klartasunek
Begiak tie argitzen
Eta bihotzak xarmaturik,
Banaloriez ilhuntsen.

Zer handitasun ahal duket
Irabasteaz mundua,
Eta jaun puxant izateaz,
Baldiñ ezpadut zerua?

Zer populuen ikharatzeaz
 Armaden habarrospean,
 Gustiei lege egiteaz
 Lurrean eta urean?

Handi gustien Erregea,
 Munduko buruzagia:
 Ah, inspira diezadazu
 Humilitate handia.

Zer izanen dut emateaz
 Mila jende burdiñetan,
 Baldiñ esklabo behar banaiz
 Ifernuko zepoetan?

Inspira on falsoen herra,
 Plazer hatsen desplazera,
 Egiazko aberastasun
 Eta plazeren desira.

Ihiztaria

O Salbatzaille dibinoa,
 Indazu zure grazia:
 Ene sarea bethe zazu,
 Bethe ene ihizia.

Ez nazazula abandona
 Mundu hunen oihanean;
 Hemen nabilla ihizian
 Animalien ondoan.

Ez utz munduko sareetan
 Sartzera ene bihotza,
 Eta ez haren plazeretan
 Galtzera ene gorputza.

Eztut antsia zer atzeman,
 Otsoa edo orkhatza.
 Asko dut, zuk hartzen baduzu
 Fiñean ene bihotza.

Soldadua

Armak ekharri nahi ditut
 Erregeren faboretan,
 Eta ibilli harengandik
 Peril handi gustietan.

Aitziñean ekharriko dut
 Gurutzearen bandera,
 Gero gerlak akhabaturik
 Joateko zeruetara.

Miriku sabanta

Grazia suerte gustien
 Egiazko ithurria,
 Eta munduan diren miñen
 Miriku miragarria.

Ene bihotza milletan zait
 Egun oroz altaratzen;
 Miñak milletan doblaturik,
 Milletan naute transitzen.

Zuri dagotzu, ô Jainkoa,
 Ordenanzen ematea,
 Biziaz eta herioaz
 Nahiaren egitea.

Jauna, zure odol saildua,
 Galbarian isuria,
 Egiñ izan zen gure miñen
 Sendatzeko ithurria.

Bañan ez othe naiz ni ere
 Erien balsan eria?
 Eri naiz eta ene miña
 Zerukotz ezta tipia.

Emozute gure bihotzei
 Bere ontasun ederra,
 Eta zerori egiñ zaite
 Gure arimen indarra.

Doktora

Ah, ez segur, eztiat maite
Doktrina urguillutsua.
Fazatia duk, eta jende
Itsuen gida itsua.

Jesus adora, Jesus maita,
Maita gurutzeko pena:
Ene gloria horra zer den,
Eta zer ene doktrina.

Nik maite dudan doktrina duk
Itsuen argitzaillea,
Falsokeriak khasaturik,
Makhurren xuxentzaillea.

Doktor eginik, Gurutzetik
Ziarokuk predikatzen.
Lege saindu huntaz giaitik
Galbarian eskolatzen.

Merkataria

Munduan orai hari gaituk
Xuxentzen eman-hartuak.
Huna kontuen egiteko,
Plumak eta libruak.

Zure odola izatu da
Hura erosi duena;
Nori sal othe niozoke,
Hainbeste gosta zaitzuna?

Irakurtzen hari nauk bethi
Eta bethi eskribatzen;
Helas! Ordean har-emanik
Nik ez zerukotz kausitzen.

Helas! urrun diezadazu
Bekhatuaren kutsua,
Abarizia, inbidia,
Injustizia itsua.

Hañitz aldiz egiñagatik
Hañitz biaia handizki,
Eta egiñagatik hañitz
Sal erosi dohatsuki;

Zer ere guri baitaroku
Presentatuko munduak,
Galtzetik begira tugula
Zeruan tugun tronuak.

Milla on doblatuagatik,
Izanagatik mundua,
Gauza gustiak galdu tiat,
Baldiñ ezpadut zerua.

Perla hura guk erosteko
Ematzigun on gustiak,
Gustiak ere eztituk deus
Izanagatik handiak.

Adoratzen zaitut humilki,
Jesus merkatari ona;
Arren beira diezadazu
Zuk erosi ontasuna.

Ezen huna nola ditudan
Zeruko onak sinhesten,
Emanagatik nahi dena,
Merke direla erosten.

Gizon egitekotsua

Nik zertako tut hunenbertze
Egiteko erabiltzen?
Bat izan eta millek naute
Nahasirik tromentatzen.

Gizonak asko izanen du
Bat izateaz munduan.
Gustiak irabazi tuzke
Sartzen denean zeruan.

Marinela

Goazen eta pasa detzagun
Tromenta harrigarriak;
Bertze munduak bilhatzagun
Eta itsaso berriak.

Pensazak; bañan barka dela
Ifernua herioan,
Eta pensa, oren berean
Portua dela zerua.

Arrantzalea

Amu hunek milla herio
Bethi egiten tuenak,
Hemen hartzen tik egun oroz
Jende uretan daudenak.

Tropa bat diat atzematen
Ene sareen erdian,
Hautan dostetan dabiltzala
Itsasoaren hegian.

Laster egiñik apastara,
Herioak tik sesitzen.
Helas! Horra ni ere nola
Munduak nauen trunpatzen.

Ah, Piarres arrantzalea!
Har nazak hire sarean;
Zeruetara altxa nazak
Hire arraiñen artean.

Aberatsa

Utzarazi dietzadatzu
Gauza galgarri direnak,
Eta halaber maitarazi
Zeruko handitasunak.

Arren, indazu bizitzekotz
Behar den on tenporala;
Bañan, othoi ez galarazi,
Jauna, tresor eternala.

Paubrea

Zuk badakizu zeñ den handi,
Jauna, ene paubrezia;
Ene dolore gustietan
Indazu pazientzia.

Tresnarik gabe naizenean,
Hau da ene estalkia,
Etixerik eztudan denboran
Hau ene hostaleria.

Eztut deus eskaz, aberats naiz
Naizelarik beharrean,
Baldiñ zurekiñ bizi banaiz
Karitate ederrean.

Beraz dirurik ere gabe
Bizi naiz ontasunetan,
Bizi dohatsu, eta kontent
Ene pena gustietan.

Ene tresor aberatsa da,
O Jauna, zure grazia;
Hau da ene urre ederra,
Hau plazer, hau noblezia.

Ene konsolaziñoa da
Zure sinheste handia,
Hunek baitarot erakusten
Enea dela zerua.

Laboraria

Lurrean gure penetarik
Biltzeko fruitu eztiak,
Aphaintzen hari gare landak,
Haranak eta mendiak.

Jauna, hau da gu bezalako
Jendeen ofizioa;
Zuk emozute gure penei
Gloriaren prezioa.

Gure obrek izanen dute
Bere koroa justua.
Ereintza bezaiñ izanen da
Orduan handi fruitua.

Ogiak ogia daroku
Bere denboran ekhartzen;
Bañan erein ezten lekhitik
Sekulan ezta ilkhitzen.

Isurtzatzu gure gaiñera
Grazia preziatuak,
Zeruan diren ur aberats
Eta ihintz sakratuak.

Landarazi dietzagutzu
Bihotzetan berthuteak,
Zure glorian ikhusteko
Eskuak fruituz betheak.

Arzaina

Arthaldeak daramatzagu
Ur baster eder hautara,
Penze aberats zabal hautan
Belhar onez asetzera.

Jauna, guk hemen beiratzean
Ardiak otsoetarik,
Ah, zuk, othoi, beira gaitzatzu
Otso ifernukotarik.

Nekazalea

Ala ni bainaiz dohatsua!
Ene dendaren barnean
Botikaz darotzut eragiten
Eliza ene etxean.

Eguna hasten den pontuan
Hasten natzaitzu kantatzen
Zure bihotzak bihotzera
Darotana inspiratzen.

Trabaillatu nahi dut bethi
Zuri plazer egiteko;
Asko daite zure bihotza,
Jauna, ene pagatzeko.

Bethi travailluz ohorezki
Hemen naizela bizitzen:
Bethi nahi dut enplegatu
Zeruaren merezitzen.

Ezkondak

Bedinka gaitzatzu, Jauna,
Iguzu sakramendua;
O Jainko Jauna, bai, iguzu
Zure grazia saildua.

Senhar-emazteak iduki
Gaitzatzu zure bakean:
Zure Eliza den bezala
Sainduen batasunean.

Aita eta ama

Ah, errenda zazu dohatsu,
Jauna, gure familia,
Ez aberats izanagatik,
Dugun birthute handia.

Gurekiñ gure haur gustiek
Gloriako tronuetan
Adora zaitzatela bethi
Sekulako mendeetan.

Bañan, othoi, bizkitartean
Iguzu zure grazia;
Nahiago dut present hura
Ezen ez mundu guzia.

Izanen gare dohatsuak,
Dohatsu gure nekhea,
Baldiñ gurekiñ bazarete
Zu eta zure bakea.

Gaztea

Nola baitoaz arriberak
Ithurrietan sortzean
Itsasoaren kausitzera
Bere kursu lasterrear;

Nik ere gazte naizelarik
Nahi dut hasi kursua,
Jauna, zure ardiasteko
Eta halaber zerua.

Zaharra

Fiñean fiñatzera doa
Munduan ene adiña;
Hagitz nahi dut enplegatu,
Ungi egitera fiña.

Ezta posible sendatzea
Zahartasunaren miña;
Jauna, nik behar dudana da
Ungi hiltzeko dohaiña.

Amoina

Ala zu dohatsu baitzare,
Gizon karitatezkoa;
Amoinak emanen darotzu
Erresuma zerukoa.

Zu gloriarat altxatzeko
Baitu urrezko hegalak:
Hark erosiko darozkitzu
Tresor handi eternalak.

Alferrik gaituzte, alferrik
Deabru beltzek akusatzen,
Baldiñ Jainkoaren paubreek
Bagaituzte eskusatzen.

Karitatea Jainkoari
Tronura zaio ethortzen:
Othoizten du, mintzatzen zaio,
Eta gu gaitu beiratzen.

Jainkoarentzat idekirik
Bethi izatu eskuak
Laster egortzen ditu urrun
Berekiñ deabruak.

Hunek ditu presondegitik
Jende gaxoak libratzen:
Hunek zarratzen ifernuak,
Zeruak hunek zabaltzen.

**Liburua akhabatzean
hunen egileak irakurtzailleari ematen dioen konseillua**

Hiregatik duenaz geroz
Galdu Jesusek eguna,
Egik haren pena handiez
Hire dohatsutasuna.

Beraz, egon behar duk bethi
Haren zaurien barnean,
Eta eman hire bihotza
Haren bihotz ederrean.

Othoitza Andre dena Mariari

Zeruetako Erregiña,
Aingeruen ohorea,
Ifernuko izialdura,
Gizonen Ama emea.

Ematzu zure bi begiak
Zure haurraren gainean:
Hel zakizkit mundu hunetan
Azkeneko orenean.

Zeruetan erakuts dazu
Erregeen Erregea;
Zu Erregiña Ama zare,
Errege zure Semea.

**Othoitza
Saint Josef handiari**

Birjina Ama saindu baten
Espoz birjina garbia,
Mundu huntan Salbatzailleak
Hazaitatzat berezia:

Josef, othoi, lagun zakizkit
Zeruetako kortean,
Amudiozko Semearen
Palazio ederrean.

Aingeru beiraille sainduari

Jainkoaren aingeru maite,
Ene kargua duzuna,
Bethi ene sustengatzeko
Armak eskuak zaudena:

Othoi, lagun zakizkit egun,
Lagun azken fineraíño;
Nik ere segituko zaitut
Zeruko gloriaraíño.

VIII. Partea
DOKTRINA KRISTIANA

Fedeko misterio prinzipalak

- | | |
|--|---|
| G. Errak, giristiñoa
Nork eman hau munduan? | G. Zeruetan sartzeko,
Zer behar da konplitu? |
| I. Jainko guziz handiak
Ezartzeko zeruan. | I. Ezagutu Jainkoa,
Zerbitzatu, maitatu. |

Jainkoa

- | | |
|--|--|
| G. Esprika diezadak
Zenbat Jainko Jaun diren? | I. Bera da bere lekhu,
Mundu eta guzia. |
| I. Iguzki baten gisa,
Ezta Jainko bat baizen. | G. Haren majestatea
Non da beras kausitzen? |
| G. Zer da beraz Jainkoa,
Adoragarri dena? | I. Itsaso, lur, ifernu,
Zerua tu bethetzen. |
| I. Izate, ez hasterik
Ez fiñik eztuena. | G. Lekhu suerte hetan,
Zertan da enpleгатzen? |
| G. Zeiñ du bere lekhu,
Non da Jainko handia? | I. Punitzen du gaxtoak,
Justuak khoroatzen. |

Trinitatea

- | | |
|--|---|
| G. Zer dela siñhesten duk
Trinitate haltoa? | G. Haukien jakiteko,
Nola tutzue deitzen? |
| I. Hirur presuna dire,
Hirurak Jongoikoa. | I. Aita, Seme, Spiritu,
Ditugu izendatzen. |

Semea

- | | |
|--|---|
| G. Zer du fede sailduak
Semeaz deklaritzen? | I. Klarki jakiñen duzu,
Mirail bat ikhususirik.
Mirail garbi batean
Miraturik bisaia,
Nola ageri baita,
Bigarren iduria;
Aitak ezagaturik
Zer duen izatea,
Ezagutza hura du
Bere bardin Semea. |
| I. Aitak adimenturik
Duela enjendratzen. | |
| G. Esplikazak gauza hau,
Eksenplu bat harturik? | |

Espiritu Saindua

- | | |
|--|---|
| G. Zer Espiritu Sainduaz
Sinhesten duk, Maitea? | G. Zeiñ Presuna izan da
Guretzat inkarnatu? |
| I. Bien borondatetik
Duela izatea. | I. Semea, eta gero,
Gurutzean itzatu. |
| G. Zergatik deitzen dute
Bien korapilloa? | G. Seme gizon egiñak
Zenbat izate ditu? |
| I. Hirugarrena baita,
Bien amudioa. | I. Jainko eta gizon da,
Beraz bi izate tu. |
| G. Zeiñ da hirur hautarik
Handien den Presuna? | G. Zeiñ da prinzipalena
Eta nobleen dena? |
| I. Hirurek bardiñ dute
Bere handitasuna. | I. Natura dibinoa,
Edo Jainkotasuna. |
| G. Zeiñek ezdeusetarik
Kreatu du mundua? | G. Zeiñ da bertze natura?
Haren pare eztena? |
| I. Hiruek, eta dute
Hirurek gobernu. | I. Natura humanoa,
Edo gizontasuna. |

- | | |
|---|--|
| G. Zenbat presuna dire,
Bat othe ala bia? | I. Ez, bañan hil izan zen,
Gizona zen bezala. |
| I. Bat baizen ezta, bañan
Jaun adoragarria. | G. Zeiñ egiñ eta hil zen
Eta zer fazionetan? |
| G. Ala da humanoa,
Ala da dibinoa? | I. Ortzirale sainduan,
Gurutzeko tromentan. |
| I. Presuna dibinoa,
Eta ez humanoa. | G. Zeiñ egunez pitztu zen,
Zerura noiz altxatu? |
| G. Nola deitzen duzue
Gizon egiñ Presuna? | I. Altxatu Aszensiñoz,
Bazko goizean piztu. |
| I. Deitzen da JESUS-KRISTO,
Edo Jainko Gizona. | G. Non da orai bizia,
Zeiñ du bere lekhoa? |
| G. Zeiñ beraz hil izan zen,
Jongoiko inmortal? | I. Parabisu ederra
Eta sakramendua. |

Eukaristia

- | | |
|--|---|
| G. Zer da sakramenduan,
Han othe da ogia? | G. Hostia batean da,
Hala da hañitzetan? |
| I. Ez, bañan JESUS-KRISTO,
Gizon Jainko handia. | I. Haiñ ungi da batean,
Nola ehun milletan. |
| G. Zer dire akzidentak,
Edo aparenziak? | G. Hausten da JESUS-KRISTO,
Akdidentak haustean? |
| I. Sensuez ezagutzen
Diren gauza gustiak. | I. Ez, bañan osoa da
Parte ttipianean. |
| G. Indak zenbait eksenplu,
Jakiñ dezakedana. | G. Nola da han gorphutza?
Figura bat bezala? |
| I. Xuritasun, biribil,
Gustu, handitasuna. | I. Ez, bañan nola baita
Zeruan erreala. |
| G. Zer beraz siñhesten duk
Akdident hetan dela? | G. Kausitzen dire bertze
Bi Presunak hostian? |
| I. JESUS-KRISTO Jaunaren
Gorphutza, arima, odola. | I. Lagun bezala dire
Sakramendu handian. |

- | | |
|---|--|
| G. Laikoak ala aphezak
Du gehiago hartzen? | I. Ez, bañan bai gureztat
Odol isuri zena. |
| I. Aphezak bezanbat du
Laikoak errezibitzen. | G: Zer da kalitz sainduan?
Gorphutza ala Odola? |
| G. Othe da arnorikan
Kalitzean barrena? | I. Odola eta gorphutza,
Hostian den bezala. |

Konfesionea

- | | |
|---|--|
| G. Ungi hartzeko Jesus,
Nola behar da hartu? | I. Ez, bañan behar dire
Nigar eta dolore. |
| I. Falta mortal guziak
Osoki konfesatu. | G. Zenbat aldiz behar da
Hartu urthe gustiez? |
| G. Asko da erratea,
Utzi gabe batere? | I. Behiñ obligaziñoz;
Amudioz hañitez. |

Jainkoaren manamendu sainduak

- | | |
|--|---|
| 1. Jainko bat adoratuko duk
Eta guziz maitatuko. | 6. Haragizko bekhaturikan
Eztuk egiñen gorphutzez,
Eta hetan eztuk plazerik
Desiratuko bihotzez. |
| 2. Eztuk Jainkoa, ez bertze deus
Banoki arnegatuko. | 7. Bertzeren ontasunetarik
Eztuk deusik ebatsiko:
Ebatsiak dakizkiela
Ez haiñ guti idukiko. |
| 3. Igande, besta sakratuak
Idukiko tuk sainduki. | 8. Sekulan eztuk pensatuko
Falso testimoniorik,
Eta ez gezurrik erranen,
Ez handirik, ez ttipirik. |
| 4. Aita-amak ohoratuko
Lurrean aizen luzeki. | |
| 5. Eztuk hil behar nior ere
Eta ez nihor gaitzetsi.
Gustiek ni behar nauzue
Bengantzen Jainko siñhetsi. | |
| | 9. Hire lagunen esposa
Eztuk gutziaturen. |
| | 10. Ezta nihoren onik ere
Gaxtoki desiraturen. |

Elizako manamendu sailduak

- | | |
|--|--|
| 1. Entzun ezak igande, bestez
Meza saildua debotki. | 5. Gartha, Bijili, garizumak,
Osoki tuk barurturen. |
| 2. Konfesa adi gutienik
Urtean behin osoki. | 6. Ortzirale, larunbatetan
Haragirik eztuk jaren. |
| 3. Hartuko duk Bazkoz bederen
Gorphutz saildua humilki. | 7. Denbora debekatueta
Eztuk egiñen eztaiak. |
| 4. Igande, besta manatuak
Idukiko tuk sailduki. | 8. Xuxen pagatzak hamarrenak,
Paga xuxen primiziak. |

Elizan zazpi sakramendu dire

- | | |
|----------------|--------------------|
| 1. Bathaioa. | 2. Konfirmazionea. |
| 3. Eukaristia. | 4. Penitentzia. |
| 5. Alunzioa. | 6. Ordena. |
| 7. Ezkontza. | |

I. Bathaioak egiten gaitu giristiño, Elizako eta Jainkoaren seme. Khentzen daroku bekhatu orijinala, baita aktuala ere, baldiñ baginduen batere.

II. Konfirmaziñoak ematen daroku Espiritu Saildua, eta indarrak deabruen tentazioneen garaitzeko.

III. Eukaristiak daduka JESUS-KRISTOREN Gorphutza, eta harekiñ errezibitzen ditugu bizitze eternaleko dohaiñak; gure arimak handitzen dire grazian, eta gure gorphutzek errezibitzen dute glorian pitzteko bahia.

IV. Penitentiak barkhatzen darozkigu bekhatuak, eta ematen daroku galdu ondoan grazia.

V. Ordenak ematen tu Elizan presuna Sakratuak gure irakasteko, guri emateko sakramenduak, eta gure gidatzeko.

VI. Ezkontzak ematen du jeneraziño justua; hurrek emateko Jainkoari ohore eta gloria, burasoek obligaziño dute hurren ungi eskolatzeko.

VII. Alunzioak ematen daroku indar garaitzeko deabruen azkeneko guduak, eta oraiño ematen daroku grazia, JESUS-KRISTOREN sendimenduetan hiltzeko.

Anplekiago esplikatzen dire sakramenduak

Bathaioa

Bathaioko sakramenduak
Gure gatheak haustean,
Biktorios egiten gaitu
Deabru gustien gaiñean.

Bekhatu bat egiñ ondoan
Ifernua dut merezi;
Hartu ondoan ur xorta bat,
Zerua dut irabazi.

Konfirmazionea

Soldadu berri batean du
Iphizpikuak formatzen,
Gizon gazte bat duenean
Krisma sailduaz gantzutzen.

Hemen du hartzen seiñalea,
Seiñale konbatekoa:
Gurutzea bere kopetan,
Bisaian mazelakoa.

Eukaristia

Gustien Salbatzaille Jaunak
Bere haragi saildua
Egiñ du arimen hazteko
Elizan sakramendua.

Aldarean guk egitean
Sakrifizio handia,
JESUS bera da edireten
Apeha eta hostia.

Penitentzia

Bekhatuek dituztenean
Gure arimak lizuntzen,
Penitenziak darozkigu
Tatxa gustiak xahutzen.

Hau da Jesus gure Jaunaren
Odolaren ithurria:
Hemen barrena du sendatzen
Arimako izurria.

Alunzioa

Lehoiñaren gisa darraiku
Goseak hillik etsaia:
Guri galarazi beharrez
Heriotzean kuraia.

Bañan gorphutza zaikunean
Olio sailduz gantzutzen,
Borthitzten da gure arima
Eta etsaia flakatzen.

Ordenak

Ordenek dituzte lurrean
Egiten Jainko ttipiak
Handia da beraz apeha,
Botherea du handia!

Zeruko eta infernuko
Eskuan ditu gakhoak;
Bere gaiñean ere dio
Indar eman Jongoikoak.

Noelak

Eguberri egunean
Munduak behar du boztu;
Testameta berria da,
Behar dugu ohoratu.
Eguberri...

Luzifer tulunbioan
Izen zenean hondatu,
Ifernurat giñoazen,
Bañan Jesusek salbatu.
Eguberri...

Ekharri zuen mundurat
 Birjinak gure argia,
 Amak dolorerik gabe
 Haur handi, Jainko tipia.
 Eguberri...

Jesus Haurrari presentak
 Ziotsaten konsekratu;
 Bañan Herodes kruelak
 Kruelki zuen tratatu.
 Eguberri...

Hirur errege zuhurrek
 Adoratu zuten Haurra;
 Eman zioten insensu,
 Bere urre eta mirra.
 Eguberri...

Salutatu zuten JESUS
 Eta Birjina Maria,
 Amarik den handiena,
 Eta haur Jainko Berria.
 Eguberri...

Ala hark hagitz gu maite!
 Hil izan baitzen gugatik.
 Aita, iguzu gloria
 Jesus Semearengatik.
 Eguberri...

Orazioea

Aita Saindu Urbano VIII-K- egiña

Zure begien aitziañera
 Ekhartzen tut huts gustiak
 Zuri darozkitzut agertzen
 Errezibitu zauriak.

Doloretan bethi bizi naiz,
 Eta bethi nigarretan;
 Bitartean bethi lo natza
 Bekhatu usatuetan.

Pensatzean zer pena dudan,
 Handiago dut kaltea;
 Eta pairatzen bihotzean
 Tipiago dolorea.

Baldin punitzen bagaitutzu,
 Urtzen da gure bizia;
 Eta eztugu behiñ ere
 Kitatzen gaxtakeria.

Nik egiñ dudan bekhatua
 Hagitz da pisuagoa,
 Eta sofritzen dudan pena
 Da hagitz ariñaagoa.

Gaztigatzen gaitutzunean,
 Aithortzen ditugu faltak;
 Bañan berehala ditugu
 Ahanzten zure bisitak.

Bihotzean sentitzen ditut
 Bekhatuen doloreak,
 Bañan ez khentzen bihotzetik
 Bekhatuen maleziak.

Zehatzen gaitutzun denboran
 Grazia dugu eskatzen;
 Egiten baduzu grazia,
 Kontra gaizkitzu altxatzen.

Trublaturik ene arima,
 Milla pena tut sofritzen;
 Hala ere urguillutsua,
 Ez zait burua makhurtzen.

Baldiñ guk egin tugun hutsak
 Barkhatzen ezpaditutzu,
 Badakigu, justua zare,
 Justuki hiltzen gaitutzu.

Gloriako Aita puxanta,
 Iguzu, arren, grazia,
 Grazia zure baithan dena,
 Nihork eziñ merezia.

Ezdeusetik egiñ gaitutzu
 Zure othoitz egilleak;
 Guregatik othoitzten zaitu
 Gustien Salbatzailleak.

G. Jainkoaren apostolu sailduak,
 Othoitz egizue guretzat.

I. Diñeki errezibi detzagun
 Jesus-Kristok egiñ promesak.

Orazionea

Iguzu grazia, ô Jainko guziz puxanta, trublamentuek ikhara ez gaitzaten;
 ezarri gaitutzu Apostoluen harri borthitzaren gaiñean: othoitzten zaitugu
 JESUS-KRISTO gure Jaunaren merezimenduez, zeïña bizi eta Jaun baita
 zurekien batean, mendeen mende gustietan.

Hala biz.

Jesus

Gizonaren dohatsutasun osoa

Jesus, zu zare izatu
 Gustien kreatzaillea;
 Zu Gurutzean itzatu,
 Gustien Salbatzaillea.

Jesus, ene gutizia,
 Jesus fede dibinoa,
 Jesus atsegiñ guzia,
 Jesus ene amudioa.

Jesus, ene esparantza,
 Jesus, ene szienza;
 Jesus, ene alegrantza,
 Jesus, ene on guzia.

Jesus dela ene gustuan,
 Jesus ene beharritan,
 Jesus ene spirituan,
 Jesus ene begietan.

Jesus, ene ohorea,
 Jesus, ene sustengua,
 Jesus, ene Erregea,
 Jesus, khoroa saildua.

Jesus dela ene ahoan,
 Jesus ene eskuetan;
 Jesus ene herioan,
 Jesus gauza gustietan.

Jesus dela ene bidea,
 Jesus ene gidaria,
 Jesus fiñean xedea,
 Jesus Jainkoa, gloria.

Jainkoari Saint Augustiñen othoitza

Domine Jesu, noverim Te, noverim me. Nec aliquid cupiam nisi Te, ut odiam me et amem Te.

Quidquid agam, propter Te. Humilien me, exaltem Te. Nihil cogitem nisi Te. Mortificem me, et vivam in Te. Quaecumque veniant, accipiam a Te. Persequar me, sequar Te. Semper optem sequi Te. Fugiam me, confugiam ad Te. Dignus sim defendi a Te. Timeam mihi, timeam Te. Simque de electis a Te. Diffidam mihi, fidam in Te. Obedire velim propter Te. In nullo afficiar nisi in Te. Aspice me, ut diligam te; voca me ut videam Te. Eta in aeternum potiar Te.

Amen.

JAINKOAREN GLORIA HANDIENAREN,
ETA BIRJINA MARIA DOHATSUAREN
IZANEAN.

Taula

I. Partea

Giristiñoaren egindibea
Propos ona
Mezako deboziona
Zazpi Psalmuak
Saindu gustien letharinak
Eguneko eginbidea
Arratseko eginbidea

II. Partea

Jesus-Kristo
Berboaren
Inkarnationea
Aingeruaren salutationea
Jesus Haurraren arrenkurak
establian
Amak salutatzen du haurra
Aingeruek salutatzen dute
Artzainek salutatzen dute
Erregeek salutatzen dute
Herodes etsaia
Gizonen amudioa
Deboten amudioa
Jesusen amudioa
Pasione Sainduko instrumentak
Pasione Orenak
Jesus Gurutzean
Amudioz hiltzen da
Bekhatore gogorra

Magdalena Galbarioan
Penitenta Galbarioan
Passioneko denbora
Othoitzak
O Filii et filiae
Bestaburuak
Jesusen letharinak

Konfessionea

Bi dolore suerte
Bekhatorearen esparantza
Bekhatore nagia
Resoluzioea
Atrizioea
Kontrizioea
Resoluzioea
Esparantza
Jesusen abissua

III. Partea

Salbamendu saindua
Obra amudiozkoa
Lauda Sion Salvatorem
Othoitzak
Errezibitza
Errezibitu ondoan
Doktora da Jesus

Anima Christi
 Arimaren ohorea
 Adoro te devoto
 Aktak
 Orazino debota
 Aldarean denean
 Bertze aktak
 Pange lingua
 Sacris solemniiis
 Verbum suprenum
 Lethariñak

IV. Parte

Andredena Maria
 Bestak
 Ama eta Semea
 Bien izenak
 Deboten amudioa
 Stabat Mater eskaraz
 Birjinaren agonia
 Trionfa
 Botherea
 Esnea
 Othoitza
 Bertze othoitza
 Bertze hirur
 Salve Regina
 Ave Maris Stella
 Quem terra pontus
 O gloriosa
 Memento salutis
 Lethariñak

V. Parte

Gizonaren lau fiñak
 Heriotzeko mementoa
 Eriaren othoitza
 Esparantza
 Othoitza
 Agonia
 Jujecaren tronua
 Purgatorioa
 Arimaren abisua
 Dies irae dies illa
 Ifernua

Zer lekhu den ifernua
 Ifernuko pensamendua
 Dialoga damnatuén gaiñean
 Parabisua
 Bide hertsia
 Dohatsuen deia
 Ioateko desira
 Jainkoa da on gustia
 Amudiozko heriotzea
 Othoitza
 Koplak lau fiñen gaiñean
 Eternitatea
 Zein luzea den
 Eksenpluak
 Furia sekulakoa
 Damnatuak ezin maita
 dezake Jainkoa
 Desparazionea
 Orazionea

VI. Parte

Patroiñ sainduak
 Jainkoa
 Jesu-Kristo
 Andredena Maria
 S. Joseph
 Aingeru beiraillea
 Martirea
 Ipizpikua
 S. Bernard Abadea
 Konfessora
 S. Ignazio
 S. Xabier
 Birjin Sainduak
 Alhargun Sainduak

VII. Parte

Hañitz pressuna suerte
 Errotora
 Apeha
 Beata
 Karduguna
 Aitoren Semea
 Ihiztaria
 Soldadua

Mirikua
 Doktora
 Merkataria
 Gizon egitekotsua
 Mariñela
 Arranzalea
 Aberatsa
 Paubrea
 Laboraria
 Arzaiña
 Nekhazalea
 Ezkondua
 Aita eta Ama
 Gaztea
 Zaharra
 Amoina

Othoitza Andredena Mariari
 S. Joseph handiari
 Aingerurari

VIII. Parte

Doktrina Kristiana
 Jainkoaren manamenduak
 Elizaren manamenduak
 Zazpi Sakramenduak
 Orazionea Jainkoari
 Jesus Kristori
 Noelak
 Veni Greator Spiritus
 (Liburuaren aitzinean da)
 S. Agustienen othoitza

MENDE GUSTIEN ERREGE INMORTALAK ETA AGERI EZTENAK,
 JAINKO BAKHARRAK DUELA
 AHORE ETA GLORIA MENDE GUSTIEN MENDEAN.

